


Manuel Lasarte

Enbor zarraren ezpalak



9364
GAS-128/83



EUSKALTZAINDIA

Arahako Ordenakoa

Enbor zarraren ezpalak

Auspoa Liburutegia
225

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Manuel Lasarte

Enbor zarraren ezpalak

Auspoa Liburutegia
(1995)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-15-1

Legezko Gordailu: S.S. 123/95

Ama

GAZTETASUNA aspaldi pasa zitzaidan, eta orain aurtzaroko ixtori politak gogoratzen zaizkit, Leitzako Franki baserrikoak ain zuzen. Urte zoriontsuak antxe pasa baintuen, gutxi izan baziran ere. Aietaz sekulan ezin ninteke aztu inolako moduz.

Txikitako kontuak grabatuta gelditzen zaizkio pertsonari, zinta batean bezelaxe. Zergatik inork jakin nai balu, onela erantzungo nioke: burua argi ta fresko edukitzen duelako. Ta goazen aurrera.

Udaberri ederrak eta eguraldi sano apartak eza-gutu genituen lurralde artan. Nik artean, umea nintzalako, ez nuen lanerako almenik. Baiña beste gaiñontzekoak garaiz mugitzen ziran arto ta babarrun aziak eriteko, lurra gorritu ta prestatzerakoan batez ere. Goizean goiz ganaduak uztartu ta sorora presaka.

Gero, aieri gosaria bertara eraman ondoren, gelara joango zitzaidan ama, lo nengoen tokira. Igurtzi goxoak emanaz, muxuka ari zala esnatu arazten ninduenean, oaren ertzean exerri ta galde-tuko zidan:

— Naiko lo egin al dezu, Manueltxo nerea? Jeiki zaite, ba, oso berandu da ta.

Alaxe, erropak jantzi, besoetan artu, nik lepotik berari eldu ta sukaldera joaten giñan biok; eta gosaria emango zidan lenengo, esne zopa beroak katillu aundi batean, gozagarriz osatuta.

Aiek jandakoan, jostatzeko gogoia sentitzen nenez, geldirik egoten ezin asmatu, ta batzuetan bigurrikeriz amari pixka bat amorrazten nion, baiña denbora gutxiko. Berealaxe aztutzen zitzaizkion nik egindako okerrak.

Gauean, afaldu ta oeratzekoan, lanean ari bazan, onela esango nion:

— Exeri, ama.

— Nekatu al zera, Manueltxo? Oraintxe exeriko naiz —erantzuten zidan.

Da ura aulkian jarri ta ni bere magalean. Burua bular gaiñera bota ta aitaren egin orduko lo artzen nuela badakit, goxo asko.

Iru urte neuzkanetik seira bitarteko kontuak dira auek, gutxi gora-bera. Ara nolako arremanak genduzkan ama-semeak.

Lur gain ontan pertsona jakintsu argi asko daudela ez det dudarik. Baiña iñork neurtu ote lezake ama on baten aunditasuna zertaraiñokoa dan, eta bere aurrari dion maitasunak zenbat balio duen? Oso zailla gertatuko litzaioke ori erabakitzea, estudioen bidez ongi jantzia egon arren.

Neri, jaio nintzanetik iru urte bete bitartean eman omen zidan amak bularra. Eskerrak merezi zituen gaixo arek, baiña jaso gabe gelditu zan azkeanean. Emen norberak zartu bear du, gauza oietaz konturatu al izateko, ta guraso izatera iritxi gaiñera.

Gure ama zanaren oroimenak bizirik jarraitzen dute nere biotzean, eta aurrera antzean ere bai seguru asko.

Egun batez gertatu zitzaiguna gogoratzen zait une ontan, da idaztera nijoa, aztu baiño len.

Goizean guri gosaria eman, eguerdirako bazkaria prestatu edo martxan jarri ta Leitzara joan zan, etxean falta ziran jeneroen billa. Presaka, beti bezela, ta oiñez.

Eguraldi bikaiña zegoen. Udaberriko giro zoragarria. Baiña eguzkiaren indarrez lurrak su artuko zuela zirudien. Artaraiñoako berotasuna sentitzen genduen, etxe barrutik kanpora irtendako bakoitzean.

Alaxe, erriko dendan bearrezko gauzak erosi, aiek artu ta an dijoakigu ama, zearo ler egiñik, izerdi patsetan. Sukaldera sartu orduko onela zion:

— Ez da gaur errez bide oietan ibiltzen. Zoaz segituan iturri zarrera, Manueltxo, eta ekarri zaidazu ura, egarriz ito ez nadin.

Talo ta esnea jaten erabiltzen genituen lurrezko katillu aundi bat eman zidan eskura, lenengo arrapatu zuena, presa zeukanenez.

Nik artu nion. Banijoan korrika. Zubian pasatzerakoan, arri muturra ankaz jo, bertan erori ta katillua bi puska egin. Ura pena nerea!

Baiña disimulatu nuen, eta ara nola: bi puskak alkartu, lengo forman jarri, eskuekin estutu ta eutsiz urez bete; ta, kontuz bezela, bildurrez eraman beintzat nola edo ala, ta:

— Torizu, ama.

— Ekatzu, bai, gaixo orrek —eta eldu zion ixkiña batetik.

Nik orduan utzi ta, *plast!*, lurrera katilluaren erdia ta barruko ura.

— Ara! Au ere ikusi bear al genduen? —esan da marmita eman zidan.

Arekin eraman nion bigarren aldiz naiko ur freskoa. Trago galantak egin zituen gustora. Ala ere,

ezin ase. Odol guztiak irakinda eduki nunbait, eguzki beroak eraginda.

Ni neroni ez nintzan asarre, gertakari ura artan pasa zalako. Ixilik gorde nuen nere pekatua.

Diodan iturri zar ura etxetik oso urrean dago. Irurogei metro edo orrelatsu egon litezke tartean. Gure aita zanak egurrezko txorroa jarrita edukitzen zuen, ontziak errez betetzeko moduan alegia. Legor-terik aundienean ere sekulan etzan agortuko seguru asko. Urte guztian ango ura edaten genduen, alaxe oituak geundelako.

Baiña bestela, errekan ere alde aietan urak ezin zezakean aitzakirik izan, nere ustez.

Baiña berriro amari buruz itzegin dezadan. Jakin nai nuke zenbat tratu txar eman zion emakume gaixo arek gorputzari bere bizitzan.

Oilloenganako maitasun berezia nabaitzen genion. Goizetan, artoa aletu, soiñean mantalean artu ta irten oi zan sukaldetik atarira. *Purra-purra* deika asten zanean, laixter inguratzen zitzaizkion oillo guztiak korrika bere ondora, ta orduan arto aletua botako zioten zabal antzean, danak lasai jan zezaten.

Bide batez, batzuk arrapatu ta aieri ipurditik eskuko beatzik txikiena sartuko zioten. Ala jakiten baizuen egun artan zenbatek jarri bearra zeukaten arraultza.

Oillarra ere an ibiltzen zan tartean arro asko. Baiña gure amak arengandik etzuen arraultzik esperoko. Bein ere ez nuen ikusi ari ipurditik beata sartzan. Bere serbitzua egin zezakean, ordea, beste modu batera. Oillarrik gabe ezin liteke txitorik sortu. Beraz, ezertarako balio ez duenik ez daukagu esaterik.

Franki baserrian oillo mordoska aundia ezagutu nuen nik, eta ez nolanaikoak. Gure amari etzitzaion erdi ipurdikorik gustatzen. Etxean ongi gobernatu

ta gero kanpoan libre zebiltzala, berdura aukeran jaten zuten, da zomorro, txitxare ta oietatik ere bai.

Batzuk arraultzak edozein sasi zulotan gordean jartzen saiatzen ziran. Nora zijoazen zainduta billatzen genizkioten, baiña ez beti. Inoiz esaten zigun amak:

— Aspaldiko egunetan oillo baten falta billatzen det. Zer gertatu ote zaio?

Inork arrastorik ezin atera ta etsi samartuta zegoen garaian, an joango zitzaion ustez galdutzat zeukan oillo maite ura, atzetik txitoak segika zituela, basotik etxera. Orduantxe etzan asarre izaten gure ama.

— Etorri al zera gaixo ori, famili berria sortu zai-zunean? —esango zion.

Da, arto iriñik baldin bazeukan, ore ederra egin da jateko eman oilloari ta txito txikieri, pozik. Andik aurrerakoan aseko zituen dotore sarritan.

Sapelaitzak ibili oi ziran mendi aietan, oso arris-kutsuak. Pizti indartsu ta gaizto amorratuak gaiñera. Bera jexten ikusi ezkeru, oillo guztiak bildurtu ta karraxika sentitzen genituen.

Etxe atariraiño sartzen zekiten sapelaitzak, lotsagabe asko, lapurretara. Tiroz il edo uxatu balira batzuk, agian errespeto geiago jarri zitekean. Baiña, ala ta guztiz ere, bista ikaragarria izan bear dute derrigor. Bala baiño zorrotzago jeixten dira goitik beera, ta nolako zarpazoekin arrapatzen dituzten txito ta oillasko, oillanda ta oiek! Txiki antzekoak errez menderatu ta mokoan artu azkar, dudan egon gabe, ta martxa.

Oillo aundiak alkarrengana bildu ta borrokan asitakoan, ez du nai duenik egin izan sapelaitzak, nik dakidanez beintzat, bakarra baldin bada batez ere. Baiña pizti klase negargarri utsa dala ongi probatu genduen.

Gure ama zanak Leitzara zijoan bakoitzean zer xixtima erabiltzen zekien agertu naia neukanez, oraintxe det aukera polita.

Orretarako, esku oialez moldatu oi zuen bigungarri dotore bat lenengo buru gaiñerako, ta ara nola: oiala bigurrituz borobildu gurdi kurpillaren antzera.

Saski aundi samarra edo xextoa —biak izentatzerara noa, jendeak obeki ulertu dezan, baiña berdiñak dira—; diodan saski artan oillo arraultzak eramango zituen errira.

Mordoska osatutakoan, oialezko bigungarria buruan jarri, ta aren gaiñean saskia; ta an joango zan oiñez, pausorik alperrik galdu gabe, zuzen eta trebe. Sei kilometro daude Franki baserritik Leitzara. Bada zerbait noski; eta, ara irixtean, arraultzak saldu ta sardiña zarrak erosi.

Soroan garia kendu ta barrabas belarra bertan uztea bezelatsu juzkatzen det ori. Baiña zer ote zan motibo berezia? Nere ustez auxe: arraultzak diru asko balio zutela, ta aieri eskerrak trukean etxerako bearrezko gauzak eskuratzen zirala: asi ogitik, olio, kafe, azukre ta beste ainbat jenero, neri une ontan gogoratzen etzaizkidanak.

Famili aundia duen gurasoak beti ikusi lezake zerbaiten falta. Guztiz osatzen oso zailla baida.

Ori orrela izanik, gure amak, errira zijoanean, pixka bateko pakea egin nai ta saskia leporaiño betetzen zuen jeneroz, eta gero karga galanta.

Baiña artu Leitzan buru gaiñean da Frankiko sukaldean sartu bitartean etzuen iñun utziko. Atsendenik gabe sei kilometro pasatzeko almena bear du ainbesteko zamarekin. Da nola gaiñera! Eskuz ukitu ere egin gabe eramango zuen saskia, besoak zintzilik eta libre. Ala ere, etzitzaion buru gaiñetik ezer lurrera eroriko.

Au neronek seguru dakidalako esaten ari naiz; ez txantxetan. Tarteka joaten bainintzan errira amarekin batera. Sei edo zazpi urte neuzkaneko kontuak dira auek. Gerora ni bialtzen ninduen enkargutara. Baiña, arraultzak saltzerakoan, beti berak joan nai izaten zuen.

Emakume gaitz ikusia ta zintzo purrukatua genduen guk ama.

Naparroako Leitzatik Gipuzkoako Aiara bizitzaz aldatu ondoren, berealaxe Erniomendin baso lanean jardun nintzan lenengo. Gero, Zumarragan ganadu perratzen boladatxo batean, eta andik Eibarko perratzaillarengana pasa.

Alaxe, gustora nenbillen oso, ta baneramazkien sei edo zortzi illabete etxera agertu gabe, ta pentsatzen nuen ama asarre egongo zala.

Iritxi zitzaigun Gabon bezpera; ta eguerdian, bazkaltzen ari giñala, esan nion nagusiari:

— Gabon jaiak etxean pasatzeko baimena eman-go al zenidake?

— Bai, Manuel, bai. Pozik gaiñera. Noiz joan nai dezu?

— Biar bazkalondoan edo ez dakit...

— Segi, ba, lasai; ta al dezunean etorri. Badakizu emengo berri —erantzun zidan.

Alaxe, biaramonean, arratsaldeko trena artu aurretik, Eibarren denda batera sartu ta galtzerdi beltzak lodi antzekoak eta negurako zapatillak, berogarria barrendik zeukatenak, erosi nituen, amari erregalatzeko.

Etxera iritxi orduko, antzeman nion pixka bat edo dexente mindurik zegoela gaixo ura, ta:

— Etorri al aiz aspaldiko partez? Nitaz aztuta bizi intzala uste nian.

Auetxek ziran bere lenengo itzak, eta nik erantzun nion:

— Oker zaude, ama, orrela pentsatzen badezu. Ez naiz zutaz bein ere aztu, eta torizu paketetxo au.

Iriki ta ikusi zituenean, etzan asarre. Erregali txikiak, baiña arek aunditzat juzkatu, ordea, ta ixtimatu gaiñera benetan.

Auxe zan gure ama biotz xamurrekoa, garai artan emakume asko oi ziran bezelaxe.

Aita

AITARI buruz itzegitekotan, berriro Leitza aldera itzuli bearko nuke. Nekazaritzan gaztetandik asi ta zaartu bitartean antxe jarraitu baizuen, bestelako ametsik gabe.

Gizon kapritxoso utsa iduritu izan zitzaidan. Udaberrian, patata, arto, babarrun da oien aziak ereiteko, lurrak gozaten etzan berealakoan aspertuko. Beti antxe, ganaduekin buelta ta jira.

Paotxa dexente izan oi zanez, sail bat azitarako uzten zekien; eta gero, ondutako garaian, sorora aulki zarrak eraman, aietan exeri ta bertan eskuz bildu paotxaren azia garbiro, ta zakuetan jaso urrengo urterako ganbaran.

Beste jokabide au ere sarritan edo beti ezagutu genion aitari: artoa ta babarruna nasian erein. Ori alde guztietan orrela ikusi degu. Baiña arta jorran ez, ordea.

Lenengo jorratu aldian, landare tartean zeuden belarrak beatz muturrekin ipurditik atera, atxurra erabili aurretik. Noizko pasa saillak? Denboraren bidez pixkanaka zerbait egin txukun asko, ori bai.

Ta bigarren jorratu aldian, zulo bakoitzean bost edo sei arto landare baldin bazeuden, bakandu. Iru bat utzi. beste gaiñontzekoak atera, ta lurrez ongi bete. Andik aurrera pakea ta lasaitasuna Leitzako Franki baserrian.

Uztarrirako idirik sekulan etzuen iñork edukiko alde aietan. Beien bidez baliatzen zan jendea lanerako etxe guztietan.

Arrazoi zeukatela derizkiot, gaiñera, orretan. Idiari etzaio esnerik kentzen, eta urteko egunik geienetan ukuilluan etzanda alperrik egoten da, jan besterik egiten ez duela, terreno sail txiki antzekoak dituen baserri bilduan batez ere.

Gure aita zanari ezagutu nion nik bei pare bikaiña. Franki aldeko lanak ezer gutxi ziran aientzat, eta urte bakoitzean ume bana seguru samar aziko zuten, edo aurrerratu beintzat.

Orduko beiak etzuten gaurko askok aiñako errape zakurik. Esne grasatsua ta sendoa bai, baiña urri antzean ematen, ordea. Argatik zeukaten lanerako kelmen izugarria. Idien pare juzkatu zitezkean, batere dudarik gabe.

Ni gogoratzen naiz gerra denboran alemanak, Plazaolako trenaren estaziotik Andoain aldera iru edo lau kilometrorra gutxi gora-bera, zulo ikaragarri batzuk nola egin zituzten, burnia fabrikatzeko mineral edo material billa.

Toki ederrean zebiltzan! Ez det uste ezer eraman zutenik. Mendi sail galantak urratu utsaren truke; orixe bakarrik.

Leitzako erritik jendea dexente joan oi zan lanera, diodan mina oietara. Portugesak ere mordoska ibili ziran, ez oso itxura dotorekoak. Ijitoen antza berbera zeukaten geientsuenak, narratsez eta jokabidez.

Alemanak gizon pusketa mardulak ikusten genituen tarteka. Urtoko kamio gurutze edo mikeleteen

etxe ingurutik ebaki zuten bide berria, minak antolatu aurretik, autoz baliatzearren; eta noizean bein agertzen zan nagusi jendea, laneko martxa zer moduz zijoan ikustera.

Ala zebiltzala, gau batez berandutu nunbait uste gabeen; eta, Berastegi aldera zijoazela, Plazaolako estazio inguruan erre kara amildu auto ta guzti. Orduantxe komeri latzak aleman gilbor aundiak.

Gu, sarritan bezela, gaztain erreak jaten ari giñan sukaldean, eta an dijoazkigu bi langille ate joka, zer gertatu zan esanez, ta beiak artu ta joateko mesedez autoa errekatik ateratzera.

Gure aitak galdetu zioten:

— Amarratzeko kateak bearko dira. Bai al daude?

— Bai. Badauzkagu.

— Goazen ukuillura.

Beiak uztartu, lardaia erantsi ta martxa, autoa zegoen tokira. An katez lotu ta ganaduak bere gustora jarri zituenean, muturretan goxo igurtzi ta akuillua gora jasotzearekin batera:

— Etorri neregana!

Orixe aski. Laixter atera omen zuten autoa erreka zulotik kanpora. Alemanak guztiz arriturik gelditu izango ziran.

Nik sarritan ikusi ditut itzaiak, ganaduak lanean asterako, muturretan igurtzitzen. Oiek ere maitasuna nai dute, arrazoibidez gaiñera, aragizkoak diranez. Badituzte sentimentu gozoak eta mikatzak, guk bezelaxe, izketan jakin ez arren.

Franki baserriko bei pare eder ura sekulan etzitzaion aztu gure aita zanari. Ama-umeak ziran, gorriak kolorez, aundian ere biak zein ezkorik gabekoak.

Ni artean mutil koskorra nintzan. Baiña gerora opizioaz perratzailea izan naizelako, ganadu asko

erabili det eskuetan, da ortik dakit bei aien talla modukoak larogei bana erralde pixatzen zituztela, gutxi gora-bera.

Gure aita langille artista zan zurgintzan. Etxeko ganaduentzat uztarriak berak egiten zituen. Ez zenbait uztargillek bezin azkar. Denbora asko pasako zuen; ori bai. Baiña ongi bukatu. Gurdi ta bestelako tresnak ere berdin.

Leitzatik Aiara aldatu ondoren, azken urteak or joan zitzaizkion. Alabaren gizona perratzailea izanik, alkarrekin bizitu ziran. Egun batez gertatu zitzaiguna det gogoan, eta idaztera nijoa.

Ni soldadutzara joan aurretik, Aian ganadu perratzen koñadoaren perratokian ari nintzan, goizetik asita. Lana dexente sortu zan; eta, azkeneko idi pareta perratu nuenean, baserritarrak, kontua neri ordaintzeko, kartera atera patrikatik eta erre-mintak egoten ziran mai zarraren gainean utzi aztuta. Gure aita an ibili zan neri laguntzen, baiña iñor ez giñan konturatu.

Baserritarrak aldegin zuen. Nik ere bai bazkaltzera; ta aitak, atea ixtera zijoala, ikusi kartera ta kolkoan gorde. Etxeratu orduko esan zidan:

— Au Joxerena izango dek seguru asko. Iriki diat. Diru mordoska zegok, dirudienez, ez dizkiat kontatu baiña.

— Galdu duena agertuko da —erantzun nion.

Alaxe, ari giñan jaten eta gure aita ezin zan lasaitu iñolako moduz. Kezka zeukan da onela dio berriro:

— Nola ote dabil Joxe gizarajoa garai ontan?

Nik orduan:

— Zergatik estutzen zera orrenbesteraíño, gizona, kartera dala ta ez dala? Neronek entregatuko diot. Bazkaltzen degunean, berealaxe joango naiz bizikleta artuta.

Itz auen bidez ixildu arazi nuen; eta, *kas-kas!*, ateko aldabaren otsa. Nor izango ta Joxe. Laixter altxa zan jarlekutik gure aita, eta galdetu zion:

— Zerbait falta al dezu?

— Bai, gizona. Gaur ikaragarria pasa zait. Kartera galdu det eta ez dakit nun. Etxera joan da erropak aldatzerakoan konturatu naiz. An arrastorik ez. Bidean baztar guztiak miatu ditut alpertsurik, eta perratokian utzi ote dedan galdetzera etorri naiz, bada ez bada ere.

— Bai, Joxe. Ala egin dezu, ta zure kartera nik daukat —esanda, kolkotik atera ta eman zion—. Baiña ikusi ondo diru danak or dauden. Orixe eskatzen dizut.

— *Bueno*, begiratuko det.

Ala, segituan kontatu zituen, eta pozez beterik onela dio Joxek:

— Emen ez dago ezeren okerrik. Eskerrik asko. Baiña mesede au ordaindu gabe ezin nezake utzi, ta biok bazkari eder bat egin bear degu datorren igandez, edo bestela zuk nai dezunean.

— Asko ixtimatzen det daukazun borondate ona. Baiña nik ez daukat kanpoan bazkaltzeko oiturarik, alde batetik; eta, bestetik, berriz, nerekin ez dezu batere zorrik. Ni geldituko nintzan zurekin zorretan, kartera entregatu ez banizu —erantzun zion gure aitak.

Egi ikaragarria!

Diodan Joxe au, Aian Zulaika baserriko aitona zan. Zintzo amorratua ta zuzen utsa.

Gure aita zanari buruz oraindik badet zer itzegiña. Ostatuetan etzuen traba aundirik emango. Igandeetan meza nagusira joaten zekien. Arratsaldean berriro bezperak entzutea gustatzen zitzaion, eta illunabarretan logelan sartu ta errosarioa erretzatzen zuen bakardadean.

Neri aolku batzuk eman zizkidan tarteka. Ara emen aietako bat.

Asteasutik Aiara bitartean, Andatzarateko gaiñean, ospitala zan len. Petxuko edo biriketako gaitza zeukatenak ara eramaten zituzten sendatzera erri askotatik. Ospital aundia izan arren, leporaiño beteta egoten zala badakigu, eta bertsolariak eramatea pentsatu zuten, gaixoen pozgarri.

Neri abixatu zidaten aurrez, Uztapide zana ta Basarri itzemanak zeudela ta ea aiekin batera kantatuko ote nuen; jendeak orixe nai zuela alegia.

Aurretxo artan Amezketan ostatuan jardunak geunden alkarrekin bertsoan. Baiña artean amazpi urte besterik ez nituen, eta buruaustek sortu zitzaizkidan. Ala ere, esan nioten joango nintzala.

Gero, eguna iritxi zanean kontuak. Arratsaldean zegoen saioa edo jaialdia; ta, etxean bazkaltzen ari giñala, aitak galdetu zidan:

— Joateko asmoan izango aiz noski?

— Bai. Itza mantendu bearko det —erantzun nion.

Ixilik geratu zan. Nik berealaxe aldegin nuen kalera. Kafetxoren bat artuz denbora pasa egon ondoren, ordua bazetorrela ta abiatu nintzan Andatzarate aldera bizikletan, eta erdi bide inguruan billatu nuen aita. An zijoan bertsoak entzute-ra, bera bakarrik, oiñez. Zazpi kilometro ta erdi dirala uste det Aiatik Andatzarateko gaiñera.

Alaxe, Uztapide ta Basarri, biak batera agertu ziran. Alkarri ezaguera eman genion; eta, bereala kantari asteko agindu zigutenez, iru sagardo upel aundi jarrita zeuzkaten ta, aien gaiñetara igo giñanean, aulkietan exeri, ta lenengo agurra Basarrirena izan zan. Urrengo, Uztapidek kantatu zigun; eta, nere txanda iritxi zanean, galtzak ipurdian

estutzen nunbait edo naiko lanak banituen beintzat. Baiña bertsoa osatu nolabait ere, ta segi aurrera.

Oso ongi artu ninduten bi bertsolari sonatu auek, eta jendea gustora geratu zala zirudien. Bai ni ere, saioa bukatu genduenean. Orduantxe lasaitu ta barrengo korapillo gogorrak askatu.

Andik denbora gutxiren barruan, beste jaialdi bat jarri ziguten Bergaran. Uztapide, Basarri, Zepai ta ni, Lasarte, laurok jardun giñan kantari. Lenengoan baiño askoz ere obeki billatzen nuen nere burua, ta pozik.

Orrelaxe ekin nion bertso gintzari.

Andatzaraten izan da etxeratu nintzanean, gure aitak onela esan zidan:

— Gaur estuasuna pasa dek. Antzeman diat aurpegian. Baiña ori ez dek ezer. Biak iri laguntzen jardun zaizkik goxo ta xuabe asko, ta nik espero nuen baiño ederkiago moldatu zerate alkarren artean. Uztapide ta Basarri bertsolari aundiak izango dituk dudarik gabe, ta nor nola tratatu bear dan ongi dakitenak gaiñera, neri iduritu zaidanez. Gogorretik asi balira, gaur laixter egingo zizkitek irekikoak. Baiña ez dek orrela gertatu, batekoz bestera baizik; eta gizon oien ondoan umil ibili, al badek.

Auxe zan aitarengandik jaso nuen aolkua.

Beraz, goazen aurrera. Nik ogei urte neuzkan garaian il zan gure ama zana; eta bolara artan, bertso tara iñora joan gabe, etxe aldetik nenbillen.

Baiña zarauztar iru mutil gazte an dijoazkit Aiara. Koñadoaren perratokian lanean ari giñan, sutegian ain zuzen, erremintaren batzuk zorrozten edo konposturan. Auspo aundi bat bagenduen eta aita ari eragiten ari zan, beti bezela, gora ta bera, burnia berotzean nik maillua astinduz.

Antxe sartu ziran zarauztarrak, ta lenengo:

— Egun on.

— Bai zueri ere —guk.

Eta berealaxe batek onela dio:

— Ire billa etorri gaituk, Lasarte.

— Zertarako? —galdetu nion.

— Santa Ageda eskean ibili nai diagu, ta bertso-laria falta.

— Nik etzaituztet serbituko, ba. Gure ama il berria dek eta ez nauk atrebitzen. Lotsa ematen zidak kantatzeak.

— Baiña, gizona! Oraindik illabetea baiño geiago zegok, eta ordurako lasaituko aiz. Orko baserritar jendeak ire bertsoak eskatzen dizkik.

Aurreko urteetan ibilita bainengoen Zarautz aldean Santa Ageda eskean.

Aita ixilik zegoen gure kontuak entzuten; eta, gazte aiek pena ematen ziotenez, onela esan zidan gizarajoak:

— Baiña, Manuel! Zergatik ez dituk serbitu bear, borondate onez dabiltzan mutil jator auek? Ire ama il uan. I bertsolaria izatea nai zian, nik bezelaxe. Gaur bizirik balego, Santa Agedaren oiturari jarraitzeko esango likek. Ori bazekiat seguru, ta joan adi lasai. I kantuan jarduteak amarentzat ez dik ezeren kalterik izango, errespetorik galdu gabe itzegin ezkerro beintzat.

Orduantxe eman nioten baiezkoko itza, eta etziran asarre zarauztar mutillak.

Ara emen nola agiri dan gure aita zanaren biotza. Berak animatu ninduen Santa Ageda bezperan eskera joateko, ta gero etzitzaidan damutu. Soldata ederra eman zidaten. Oso gustora itzuli nintzan etxe aldera.

Baiña ibillera gogorra bezin aspergarria jartzen da, ogei ta lau ordutan batetik bestera atsedetik artu ezin litekean langintza dalako. Egun argiz ongi moldatu oi da. Gau illunean, ordea, edozein zulotan ankaz aurrera sartzeko arriskua egoten da; ta, golpe txarren bat artu ezkerero, uraxe beretzat propina.

Ala ta guztiz ere, eguraldi onean gaitz erdi. Askotan nolabaiteko giro zipotzak aukeran izan oi dira urte garai orretan. Otsaillaren 4-ean ez da geiegizko segurantzirik, eta kontuz.

Ortik aparte, berriz, etxez-etxe edo atez-ate eskean ibiltzeak kezka pixka bat ematen duela badakigu probatu degunak, naiz eta oitura ori len-dik datorrena izan da jende askori gustatu.

Kaleko ostatuak pasatzen genituen banan-banan illunabarrean, jendea baxo erdiak artzen zebillen garaian. Dirua dexente bildu ere bai. Ta gero, afaldu ondoren, berriro mendi aldera igo ta segi baserriz-baserri, bideetako lokatzak astinduz. Ezagutzen ez dan tokian, estrapozu errez egin oi da.

Nik, bat aipatzekotan, 1955-garren urteko negu negargarri ura bereziko nuke. Oikinatar gazte batzuk pentsatu zuten Santa Ageda eskean ibiltzea, ta neregana etorri Oriora. Ez neukan gogo aundirik, baiña itz emen nioten, eta gero betetzen kostatzen.

Eguraldiak txarrera jo zuen neurritz kanpora irten arte. Alde auetan ez dakit noiz ezagutuko zan artarainokorik. Basoetako piñu zugaitzak, danak edo geientsuenak, igarturik utzi zituen jelateak, toki batzuetan beintzat, eta gu orduantxe santa eskean.

Oikinan, San Migel Artadin da abar gauetz ibili giñan. Illunabarrean asi ta urrengo goizean bukatu. Ez nik nai baiño len. Ura zan mixeria! Bertso kantari ekin ateondoan, da otzak il bear. Baserrietan

barrura sartu arazten ginduzten. Kafe beroa ta patarra eman ere bai oparo. Baiña ezerk etzuen balio gau triste artan.

Dana dala, berriketa aldi luze au onenbestean utzita, berriro aitarengana itzuliko naiz.

Gizon osasuntsua ta zimela izan zan gure aita zana. Alako batean, ordea, perlesiak arrapatzea egokitu ta aretxek menderatu azkenerako. Irugarren atakean il zitzaigun.

Baiña aurretik antzeman zion bere buruari etzetorkiola gauza onik, eta neri abixatu zidan mutil koxkorra Aiara eramateko mesedez, gure Euxebio au alegia. Ez baizuen bein ere ikusi; ta, ordurako bi atake pasata zeuzkanez, bildurturik egon ura, gizarajoa.

Gure Euxebio artean ume txikia zan. Goiz batez, artu besoan da an nijoa Aiara oiñez. Etxera sartu giñan garaian, gure aitak besoetan erabili zuen aurrea, pozez beterik, igurtzika ta muxuka. Aspertu eziñez sentitzen nuen gizarajoa, ta galdetu zidan:

— Egun bat edo birako utziko al diguk ume au emen, Manuel, nik berriz ikusterik ez diat izango ta? Ongi zainduko diagu.

— Bai, gizona. Utziko det, badakit esku onetan dagoela ta. Emendik iru egunera etorriko naiz. Bitartean lasai egon —erantzun nion da aldegin nuen Aiatik Oriora nere lanetara.

Alaxe, iritxi zan izentatutako epea eta joan nintzan aurraren billa. Denbora dexente pasa genduen kontu kontari. Arreba gureak ordurako bear zuen alimentua emanda zeukan mutil txikia. Aldatzeko eraman nizekion erropak ere paketean jarri zizkidan.

Eta, abiatzerakoan, gure aitak aurrari bi muxu aundi eman ondoren, onela dio:

— Nere semerik gazteenaren semea ezagutu diat, eta orain konforme gelditzen nauk noiznai iltzeko.

Arrazoi garbi ori gogoratzen zaidan bakoitzean, begiak negar malkoz bustitzen zaizkit.

Dana dala, etzuen luzaroan bizirik iraun. San Inazio egunez Donostiko Loiolan gendukan bertso saioa egin bearra Uztapide zanak eta biok.

Bezperan, zoritxarrez, abixoa bialdu zidaten Aiatik aita oso gaizki zegoela. Ordurako arratsalde berandua izanik, al nuen azkarrena joan nai ta ankak astindu nituen. Baiña azkeneko atakeak zearo mututu arazi zuen. Ez genion geiago itzik entzun. Lo zorroan pasa zuen gau guztia.

Arnasa bazeukala ta esnatuko ote zan zai geundela, erriko medikuak, joan da ikusi zuenean, onela esan zigun:

— Onek ontantxe bukatuko du. Biar arte iraun lezake geienaz ere.

Nik goizaldean erabat etsita aldegin nuen, Oriora iritxi ta nere kasa pentsatuz: “Orain zer jokabide daukat? Loiolan nere zai egongo dituk. Ordezkorik billatzeko berandu dek. Oso garai txarra gaiñera. Au dek negargarrikeria!”. Baiña beste erremediorik ez nuen ikusten, eta azkenean neroni joan.

Alaxe, ostatu batean sartu nintzan. Uztapide ta jai eratzailleak an zeuden. Esplikatu nioten etxeko pasadizoa. Banekien Loiolan plazan eguerdian bakarrik kantatzen genduela; ta gero, bazkalondon, lagunartean saio batzuk. Ori gogoan izanik, Uztapideri esan nion:

— Begira, Manuel: kanpoko bertso saioan lagunduko dizut, etorri naizen ezkerero. Baiña arratsaldeko lanak zerorrek bakarrik egin beariko dituzu. Nik Aiara joan nai nuke, aitari ainbeste zor diot eta.

— Bai, gizona. Uraxe dek lenengoa, ta arrazoi osoz mintzatu aiz orretan. Gaur etortzea ere ez dek gutxi, postura ortan aita utzita. Emengo jendeak ixtimatuko dik ori, nik ez-ezik.

— Ixtimatuko ez degu, ba? Bai benetan —zioten jai antolatzaileak.

Alaxe, eguerdian agindu zigutenean, jardun giñan kantari; eta bukatu bezin azkar andik aldegi-teko asmoa neukan, baiña esan zidaten:

— Orain, ezer jan gabe, ez abiatu iñora, Lasarte, mesedez. Alkarrekin bazkaldu dezagun, onezkero prestatua egongo da guk bear deguna ta. Gero joan zindezke, nai dezun garaian.

Ala, gelditu arazi ninduten.

Zaldibiko Martin Artano ta bere lagunak ziran orduko Loiolako pestaren arduradun. Gizon jator askoak eta bertsozale purrukatuak.

Diodan Martin au Zaldibitik gazterik aldegiña izango zan seguru asko. Nik Loiolan ezagutu nuen. Or bizitzen zan. Esne beiak edukitzen zituen. *Martin Letxeroa* deitzen zioten danak. Egu-nero Donostira eramaten omen zuen esne freskoa saltzera.

Dana dala, lenengo San Inazio eguneko pasadi-zoa bukatu dezadan, eta gero jarraituko det Marti-ñen saillean, badira ixtori politikak eta.

Lentxeago nion bezela, ostatura inguratu giñan koadrilla jakiña, ez aundia. Baiña bai ona, eta an erakutsi ziguten nun exeri. Maia prestatua baizeu-katen. Aurrez enkargatuta egongo zala zirudien, dudarik gabe. Nola janari ederrez ala edari bikai-ñez, aukera osoa zegoen etxe artan. Nik ez nuen asko aprobe txatu, baiña jendea ongi berdindu zala badakit. Postre goxoa jan ondoren, onela dio Martin Artanok:

— Lotsa ematen dit, Lasarte, gaur zauden bezela egonik zuri ezer eskatzeak. Baiña iru edo lau bertso kantatu al bazenitu, pozik entzungo genituzke.

— Bai, gizona. Ori besterik falta ez bada, aletin-duko gera —erantzun nion.

Uztapidek ekin zion kantu lanari arinkeri gutxi-
rekin da errespeto aundiz, eta nik erantzun. Saio
luze samarra egin genduen gaiñera, ta eskertu zuen
entzule jendeak. Ixildu giñanean, esan zidaten:

— Orain kafeak artuko ditugu, Lasarte, eta libre
zaude etxe aldera joateko.

Loiolatik Amarara autobusak ugari zeuden. Aie-
tako batean sartu ta bertara. An tren artu ta bere-
alaxe Orion nintzan. Gero, emendik Aiara presaka.

Baiña aita ordurako an zegoen oaren gaiñean
luze, biajerako soiñeko erropak bestek jantzi ta
prest. Goizeko amarretan il omen zan.

Ez nuen egun artan bertsotara joan bear legez,
Baiña loiolatarrak asarretuko zitzaizkidan bildurrak
eraginda artutako erabakia izan zan. Ortik aparte,
berriz, erri batek deitzen duenean, baiezko itza
emanda dagoenak ura bete bearra dauka nola edo
ala; ta nik orixe egin nuen, gogo txarrez bazan ere.

Plazako bertso saioan ez genduen aipatu gure
aitaren konturik, eta oso gutxik zekiten zer gerta-
tzen zitzaidan. Jai eratzailleak bakarrik. Gerora
agian jendeak jakin zezakean.

Dana dala, ontantxe bukatzen det aita zanaren
ixtoria, ama zanarena bezelaxe, bieri barkamena
eskatuz.

Plazaolako trena

ILBELTZAREN 19-an, San Sebastian bezperan, 1994-ean ain zuzen.

Euskal Irratiko adiskideak aurrez deitu zidaten nik Plazaolako trenaren berri jakingo nuela ta ea joango nintzan mesedez argibide batzuk irratiz ematera entzule jendeari.

Baietz esan nioten eta tasista bat etorri zitzaidan Oriora billa. Arek eraman ninduen Donostiraiño. Alaxe, alkarrizketa egin genduen irratiz zuzenean.

Baiña geroago esango det nola San Sebastian bezperan, 1914-ean, inauguratua izan bear zuen Plazaolako trenbide berria,

Orain dala larogei urte inaugurazio ospetsu ura Uitzin egin zala dio Euskal Irratian eman zidaten paperak, Naparroako ta Gipuzkoako eskualdeak bertan bildurik.

Trenaren konboi bat Donostitik eta bestea Iruñetik irten omen ziran, goizeko amaiketan Uitzin alkartzeko.

Trena erritik errira pasatzen ikusten zuen jende guztiak, txaloka eta su-ziriak aidera boteaz ongi-etorria egin izan bear zion, pozaren pozez.

Iruñeko ta Donostiko konboi biak Uitzin alkartu ziran garaian, musikeroak estazioan zai zeudenez, aiek eman omen zioten egun artako pestari asiera, Uitzin eta inguru denak elurrez zuriturik zeudela.

Jaialdia bukatu ondoren, bi konboiak bat egiñik Iruñera joan eta gertaeraren aunditasuna ospatzeko bazkari eder bat trenaren barruan egin zuela jendeak dio paperak.

Nik ez nuen gauza auen entzuerarik. Baiña lengo gerra-denboran, Plazaolako estazioa Franki baserritik urrean zegoenez, nik ikusi gabe gutxitan pasako ziran bide artan trenak, eta merkantziak ere.

Gure anaiak gerran zebiltzan, arrebaren senar-gaia ere bai, ta aiek bialdutako karta pobreak trenak ekartzen zituenez, ni beti estazio aldera inguratzin nintzan, trenaren ordua zainduz ta etxekoan aginduz.

Goizeko amarrak aldean gutxi gora-bera irixten zan Plazaolako estaziora Andoaindik Iruñera zijoan trena, eta an denbora dexente pasatzen zuen geldirik, batzuetan beintzat.

Arri-ikatzaren indarrez lana egiten omen zuten makina aiek; eta, lengo ikatza erretako garaian, berria bota bear derrigor. Kalderako atea iriki ta artan jarduten ziran bi gizon, suaren berotasunak eragin da izerdi patsetan, esku-palekin, aurpegi aldeak ederki zikindurik, moroak bezela beztuta.

Trena aldapa gorakoan oso mantxo ikusten genduen. Nekez joaten zala badakigu; ta bide-baztarretako belar gozoak jatera jexten ziran mendiko abere asko. Ardiz eta beorrez beterik billatzen zituen sarritan trenak pasa bear zituen tokiak.

Makinista larri ibili oi zan, eten gabe tutua edo bozina joaz, animaliak aurretik kendu eziñez. Ala ere, noizean bein arrapatuko zuen bakarren bat

azpian trenak, eta dena txikitu. Abere klase oiek ez dute arrisku txarrik ikusten. Janari onak engañatzen ditu, ta gero kontuak.

An gure auzotar batzuek bazuten asto ostikalari bildurgarri bat, demonio guztiak berekin erabiltzen zituena. Arek etzuen lagunik. Beti bakarrik ikusten genduen, trenbide ixkiñetako belarrik gozoenak jaten; eta, trena bere parera zijoakionean, atzea ematen zion. Baita ostikoz jo ere iñoiz aitzaki gutxi-rekin. Arek etzeukan ezeren hildurrik; edo, bestela, etzitzaion gogoratzen ipurdia berea zuenik.

Zuleta

NIK ez nekien, garbiro idazteko, Plazaolako trena deitzen zitzaion ura zein urtetan jarri zuten martxan, aspaldiko kontuak eta pasadizo zarrak diranez.

Baiña an bazan gizon aipagarri aundi bat, neronek ezagutu nuena, Andoaindik Iruñera bitarteko trenbide berria egiten jardundakoa noski, adibidez, mendi baldar traketsak urratu ta ebakiaz, tunelak ere ugari antzean atera bearko ziranez.

Langintza zail askori erantzutea ez da berriketa. Kostako zitzaizkioten galanki, orduko erreminta pobre aien bidez, erreka inguruko ta gainontzeko arkaltz gogorak zulatzen. Garai artan ez baizegoen, gaur bezela, aurrerapenik lanerako ezertan ere.

Arri brankal aundiak barrenoz eta pistoletaz baliaturik zulatzen omen zituzten noski. Gero dinamitak sartu barrura, ta lertu arazi. Aiekin txikitu edo zatitu ondoren, pikatxoiz, palaz, aitzurrez, arrastailuz, palankaz ta tresna oien bidez bildu.

Esku-karretillak ere zurezkoak erabiltzen omen ziran garai artan, zaborreria batetik bestera aldatzeko. Ez orduan bakarrik. Baita geroxeagoan ere. Neronek ezagutu nituen, da ortik dakit.

Karretillari egurrezko kurpilla bereala gastatzen zitzaiolako, gaiñetik burnizko uztai bat jartzen zioten, ala geiago iraungo zuela jakiñik. Eskarmentuak eraginda bururatzen zaizkio gizonari orrelako gauzak.

Baiña lan-klase batzuetarako oso ongi prestatuak zeudela dudarik ez dezala iñork eduki. Erreka bakoitzaren parean edo gaiñetik trenbidea pasatzeko egindako zubi asko oraindik zutik daude, ta nolakoak! Zoragarri utsak. Arri landuz eta arku ederrez moldatuak dotore asko.

Garai artan bezelako argin artistarik gaur ez dago Euskal Errian billatzerik, Galezi aldera joan da andik ekarri ezean. Gazte jendeak ez du ikasi langintza ortan, etorkizunik ez dagoelako. Orixe da arrazoi nagusia ta bakarra, ni oker ez banago beintzat.

Plazaolako trena aspaldi ezkutatu zitzaigun, bere burua mantendu ezin zuelako seguru asko. Arek etzeukan bizirik irauterik iñola ere.

Orain Franki eta an inguruko baserritarrak kortex ibiltzeko aprobeztatzen dute bide ura kamio gisara. Txukunduta jarria daukate gaiñera. Oso egoki baita ere.

Len aipatu ditudan zubi gogoangarri aiek oraindik zutik daude. Lengo trenbidearen seiñale bezela kontserbatzea merezi lutekela uste det, beraiek ikusgarri politak dira ta.

Dana dala, goazen aurrera daramakigun martxan.

Atal ontan izentatzen dedan au, gizon pusketa ikaragarria zan: luzea, zabala ta sendoa gorputzez. Nik zartu ta gero ezagutu nuen. Baiña auskalo zenbat kilo zeuzkan orduan ere. Zuleta deitzen zioten auzotar danak. Ez genekigun izen ori nundik edo nola zetorkion.

Zaldibitarra omen zala berez gure aita zanari sarritan entzun genion. Arek jakin zezaken. Asko tratatzen baizuten biak alkarrekin.

Diodan Zuleta famoso ura trenbidea egitera gazterik joana izango zan alde artara, dudarik gabe; ta, mutil errespetotsua ikusi zuenean, nagusiak kapataz edo enkargatu jarri bertan, langilleak zaintzeko ta martxa obeki eramatearren batez ere.

Baiña atzerritar kastillanoak dozen erdiren bat koadrillan izaki, ordea; ta aiek inbidi izugarria artu omen zioten noski Zuletari. Ezin ikusiaren bidezko gorrotoa alegia, ta zearo asarretu egun batetik bestera.

Era berean, bildurra idukiko zuten, itxura danez, kastillanoak. Banaka aurpegi ematen atrebitzen ez eta gau illunean an irten zaizkio, txabolarra dijoala, bidean danak batera, jo bear dutela pentsatuta.

Baiña gaizki atera gauzak. Zuleta aurrez antzema omen zegoen nolatsu zebiltzan azpijanean, berari egurra eman naiean; eta urritzezko makilla eskuan artu zer gerta ere, ta bete-betean asmatu.

Lenengo aurrean jarri zitzaionari ezurrak ederki berotu omen zizkion, da besteak korrika igesi, estu bezin larri ta buru makur. Orduantxe egin noski betirako pakea. Gau artatik aurrera umiltasuna erabili zutela kastillanoak lantokian eta lagunartean.

Pasadizo auek gure aitak zekizkien, Zuletari bere aotik entzunik. Beraz, nagusiak jakingo zuen nori eman mutillak zaintzeko kargua.

Zuleta zanak sarritan esaten zekien, adibidez, makilla eder bat eskuan izanik, berak etzuela gizon bakarra ezertarako, ta biren bildurrik ere ez noski garai aietan; atzetik azio txarren bat norbaitek egin ezean, aurrez-aurre ari etziola iñork biderik itxiko.

Biukaia deitzen zioten Leitza aldean gustoko makillari. Orrek esan nai du bi urteko zugaitzki gaztea. Izan liteke urritz; gaztaiña, makatza edo lizarra. Baiña ez lurrean aldatutako landarea, basoan berez sortua baizik, ezkurretik seguru asko.

Zuletak billatuko zituen ala moduzkoak. Erreka baztar aietan aukeran baiziran. Berarentzat etzegoela makilla on bat baiño lagun oberik aitortzen omen zuen.

Gozoa jarriko zan ura, artaraiño berotzean, berez indartsu ikaragarria ta jenioz bizi amorratua izanik. Segurantzi aundiko gizon kelmentsua, guk entzuerara genduenez.

Zuletaren ixtoriak zertaraiñokoak ziran nork ote zekien? Nik etxean aitarengandik ikasitako banaka batzuk dauzkat gogoan. Artean umea nintzan, baiña grabaturik geratu zitzaizkidan buruan. Nolanai ere, errespeto izugarria zeukala dudarik ez dago. Goazen aurrera, ta emen ikusiko degu garbiro.

Zuletak gazte denbora guztiko borrokaldirik lartzena apaiz batekin asarretuta egin izan bear zuen. Belardiren batean, kanpo librean, bi ordu pasa ta alkar menderatu ezin. Noski, soiñeko erropa danak txikitu ta larru gorritan jartzeraiño.

Azkenean, gaiñetik begira zegoen jendeak apartatu biak. Mingaiñak aotik kanpora irtenda omen zituzten, eta itotzeko zorian oso larri. Ala ere, batak besteari barkamenik eman nai ez.

Apaiz uraxe era izango zan bateonbat. Baiña billatu, ordea, bere moduko laguna, eta antxe bukatu borroka gogorraren auzia, ta kito. Obe gaiñera.

Zuleta Plazaolako trenaren estaziotik metro gutxitara bizitzen zan; eta, igande batez, etxetik irten da badijoa, bi balde utsak esku banatan dituela, erre kara ur garbiaren billa.

Andoaindik Iruñerako tren estaziora iritxi dala ikusi duenean, gelditu da bertan, baldeak lurrian utzi ta lasai, denbora pasa, “giro bikaiña zegok” pentsatuaz; ta gizon sasoiko aundi samar bat trenetik jetxi ta an dijoakio zuzenean beragana, ta:

— Egun on lenengo.

— Baita zuri ere —Zuletak.

Eta bereala galdetzen dio kanpotar orrek:

— Aizu: nik biderik ez det ezagutzen, bein ere ez naiz pasa emendik eta. Baiña Goizuetara joateko kapritxoa neukan mendiz mendi; ta gaur eguraldi apraposa dagoela ikusita etorri naiz. Zuk jakingo dezu nundik artu nezakean arako bidea.

— Bai, gizona. Erakutsiko dizut gutxi gorabera. Igo zaite aurreko baso ortan gora, ta ura datorren kanal bat billatuko dezu. Segi berari ta labaderora eramango zaitu. Ara irixten zeranean, jo aurrera. Aritz-malkor deitzen zaion mendigain bat dago, ta andik ederki ikusten da Goizueta beko zokoan.

Esplikazio danak entzun ondoren, iduripen txarrez-edo onela dio kanpoko gizonak Zuletari:

— Ongi erakutsi neri gauzak! Bestela, igarriko diozu! —esanda, bastoia gora jaso ta aurrean serio jarri lotsa gabe.

Zuletak orduan kendu eskutik bastoia ta lepo gaiñetik bera bi edo iru zartada eman omen zizkion; eta, umildu arazi zuenean, bastoia entregatu:

— Torizu au ta aldegin emendik segituan, gaurko parteak artu dituzu ta!

Txukunak izango ziran golpe aiek. Toki ederrean zebillen zezena toreatzen. Gizarajo ura kanpotarra izaki ta ezagutzen ez.

Baiña, pixka bat urrutiratu zanean, berriro bastoia gora jaso ta desapiatu omen zuen Zuleta oiuka:

— Gaurko au ez pentsatu ontan geldituko danik aztuta! Arrapatuko zaitut baztarren batean luzaro baiño len!

Eta Zuletaren erantzuna:

— Ongi da jakiñean egotea. Etorri nai dezunean. Ni ementxe bertan aurkituko nazu, ta urrengo pasadak eskarmentua sartuko dizu. Orixe dala uste det zuk falta dezuna. Gaurkoa jolas bat besterik ez da izan.

Ortantxe bukatu omen zan egun artako ixtillua, ta gerokoa ere bai noski. Guk ez genduen entzun geiago alkarrengana iñoiz bildu ziranik, ez giñan oso aparte bizi baiña.

Pasadizo auek ez dira nik nere kasa asmatuak, besteri entzundakoak baizik; eta erosi nituen prezio berean saltzen ditut. Baiña Zuletaren jokabideak etziran txantxetan artzeko modukoak nolanai ere.

Seiretako meza entzungo zuen, Leitzara joanda, lenengo. Gero, andik etxeratzean, gosaldtu.

Ta udaran batez ere, eguraldi ona zegoenetan, Franki errekan len andreak garbituta zeuzkan pañuelo, esku-oial da orrelako erropak berriro uretan pasa ta zugaitz adarretan zintzilik jarrita eduki oi zituen, eguzkiak legortu arte, dotore asko.

Gizon txukuna ta kapritxoso aparta zirudien berez. Bizimoduko gauza guztietan juxtua ta arduratsu amorratua zala dudarik ez nuke jarriko, kanpoan ez-ezik, etxean ere.

Andreak zopa, potajea edo beste edozer janari izanik berdin, gizonari maiaren gaiñean jarri eta platera artatik kutxarearekin berak probatzen omen zuen lenengo. Gatzean ongi zegoen edo ez ikusi, ta orduan esan:

— Asi zindezke jaten.

Emakume zintzoaren seiñale berezia da ori, ta oitura ixtimagarria denbora berean.

Orrelaxe ziran garai aietan famili askotako ama ondradu maitekorrak, nola senarra ala seme-alabak gobernatzeko zekitenak, gastu aundirik gabe.

Zuleta oso ixilla ta berriketa gutxiko gizon klasea izango zan adibidez; baiña zuzena.

Etxean ostatua edukitzen zuten, eta ez det uste grazi geiegi egiten zionik. Ori erakusten du garbiro onoko gertaera onek.

Larunbat gau batez, beti bezela, garai jakiñean joanda sartu omen zan sukaldera afaltzeko asmoan; eta iru kanpotar maian, arek jaten zuen tokian eseri ta karta jokoan ari zirala arrapatu, ordurako erdi berdoztuta, zer egiten zuten etzekitela, bulla ta zarata besterik gabe.

Zuletak lenengo onez esan omen zioten aldegitako mesedez. Baiña beste irukoteak gaizki artu ta etzirala jarlekutik mugituko.

Ori entzunik, erabat berotu Zuleta. Nola ez? Eta eldu lepo aldetik biri esku banarekin, irugarrena tartean zala; ta, lurreko sua sukalde baztarrean zegoenez, irurak bertara bota.

Laixter irten omen ziran, aurpegi aldeak ederki beztuta ixil asko etxetik kanpora, disputak erabakita. Gizarajo aiek obe zuten umilxeago ibili balira.

Ostatua danen serbitzurako egoten da; baiña baditu bere neurriak eta eskubide zorrotzak, naiz eta guri juxtuegiak iduritzen zaizkigun sarritan.

Zuletak aguazil edo sereno bat izateko planta bikaiña zeukala derizkiot. Balioko ote zuen, alegia, jendeari bildurra sartzeko ta errespetoa jartzeko. Aren seriotasunak ez baizuen azkenik.

Gure anaietako bat oso ostatuzalea genduen. Beti edo denbora zeukan guztian, etxe artara joan oi zan, eta arek zekien Zuletari gertatu zitzaizkion pasadizo asko nolatsu ziran. Nik, berarengandik

ikasi nituen bezela idazten ditut, ez gutxiago ta ez geiago.

Zuleta famoso ura neronek sarritan ikusi nuen. Itzegin ere bai, artean umea edo mutil txikia nintzala, ordea; ta bera, berriz, zartu samarra zan ordurako.

Baiña edaria ta jatekoa biak ematen zituzten, eta auzoetako baserritar jendeak joera aundia zeukan ostatu artara.

Baita berastegitar artzaiak ere. Ardien aitzakiz edo abar, geienetan an sartuko ziran denbora pasa, ta karta jokoan asi segituan, naiz eta gero noiz gelditu jakin ez.

Mandazaiak eta baso-mutillak beste batzuk. Igande arratsaldea bakarrik izaten zuten libre. Goizetik eguerdira bitartean lana, asteko egunetan bezelaxe; ta basoko txabolan bazkaldu. Siesta on bat egin eta gero, illunabar aldera, Zuletaren ostatura bildu oi ziran, jaiari zegokion bukaera eman nairik.

Etzeukaten arrazoi faltarik ortarako. Baiña gauari zati aundi bat antxe kentzen zioten, beraiek konturatu gabe bearbada edo gustora zeudelako agian, eta gaueko lo gozoa galdu. Berandu erretiratzek ez du mesederik iñorentzat.

Dana dala, Zuletak ostatuko martxari ez omen zion kasorik egiten. Andrearen kontu utzi ta or konpon. Bere garai jakiñean afaldu ta oera.

Baiña deskuidoren batez bulla ta zaratak loa galerazten bazioten, orduantxe komeri latzak. Jeiki ta oiuka asten zanean, an izaten omen ziran estuasunak eta anka-jokoak. Eskailerak bera igesi, mozkorrik aundiena zeukana ere korrika noski; ta danak ixilik kanpora. Alako errespetoak ez du dudako konturik.

Diodan Zuleta onek andrea emen Aiako alaba zuen. Pizkor amorratua ta langille utsa. *Kantinako*

amona deitzen genion guk, eta auzoetako jendeak ere bai. Ortik pentsatu leike zartu ta gero ezagutu genduela, artean oso gazte giñanak batez ere.

Plazaola aldera joan zan garaian, ordea, sasoi ederrekoa bearke zuen izan derrigor.

Familia azitzen an asi zalakoan nago, seguru jakin ez arren. Nik ezagutu nituen bere semeak, gizon galantak batzuk beintzat: Agustin, Manuel, Migel, Martin eta Joxe, azkeneko au senideetan gazteena noski. Emen aipatzen ditudan bost anai auek illak omen dira. Senide geiago ere bai ote ziran daukat errezeloa, naiz eta nik ezagutu ez.

Martin Leitzan bizitzen zan, aspalditxoan ez nuen ikusi baiña. Martiñekin askotan itzegiña naiz, poz aundiz gaiñera. Oso gizon atsegiña iduritzen baizitzaidan ortarako.

Joxe, berriz, Aian ere ikusi nuen egun batez, gure arrebaren etxean. Bixitatzero joan zitzaion. Gazte denboran auzotarrak eta famili artekoak bezelatsu ibili ziralako, konfiantza izugarria zeukaten alkarrekin. Biotz oneko pertsonaren jokabide leiala da ori, ta ixtimagarria benetan.

Oien amak, Zuletaren andreak alegia garbiago esateko, Aian urte gutxi pasako zituen agian. Oker egon niteke, baiña alaxe daukat iduripena.

Ezkondur ere gazterik egin ziteken seguru samar; eta aurretik beste erriren batean neskame igoal zegoen ostatuan edo orrelako toki ezagunean, eta uste gabe antxe alkartu Zuleta ta biak. Modu ortako kasoak sarritan gertatu izan ziralako badakigu, ta onek ere itxura berbera du noski, konturatzen bagera.

Bestela, mutilla Zaldibin eta neskatxa Aian egon balira, urrutitxo zeuden alkarrengana bildu al izateko, garai artan batez ere. Ibilirako erreztasunik bai al zan, ba? Batere ez. Ankarz baliatu bear derrigor, iñora joateko asmorik artu ezkeror.

Ortik aparte, diruarena beste arazo larria. Iñundik iñola sosik inguratu ezin. Ori danetan okerrena.

Baiña jende xea alaxe oituta zegoenez, iñork etzuen esperoko bizimodu obeagorik, eta segi aurrea etsi-etsian, lengo guraso zarren antzera. Zer egingo zuten bestelakorik?

Neska-mutilen arteko amodio beroak, ordea, bizirik irauten orduan ere.

Txorro

AIAN bazan *Txorro* deitzen zioten mutilzar bat. Aretxen arreba zuen Zuleta indartsuak andrea.

Ain zuzen, nik *Txorro* ura Plazaolan ezagutu nuen lenengo. An ibili zan illabete batzuetan, arre-baren etxera denbora pasa joanda. Eta gero, gu Leitzatik Aiara bizimoduz aldatu giñanean, noiznai alkar ikusten genduen.

Gaztetan borroka kontuan ere oso pizkorra omen zan *Txorro*. Gizon txikia izatekotan, errenditzen zailla. Bera baiño askoz aundiago ziran mutilak domatzen bazekiela esan oi zuten garai artako zarrak. Jenioz eta izakeraz bizi amorratua zirudien. Antzematen zitzaion garbiro.

Borrokarako apizio ori ez da gustagarria. Baiña jokabide auxe erabiltzen zuela sarritan entzun genion Aiako jendeari: gizon kelmentsuren batekin asarretzean, lendabizitik astindu galantak artuaz ibili bear, bera txikia zalako; ta orduan egiten omen zuen lapa bezela amarratu ta eutsi besteari, ta segi aurrera lurrean bueltaka, kontrarioa zearo nekatu arazi arte, eta poliki-poliki azkenean nagusitu ta auzia bere alde erabaki. Ara nolako manejo klaseak zeuzkan.

Askok ziotela bildurra *Txorro*-ri gai ortan aitortzen bazekiten, ura gaztetan ezagutu zutenak.

Ni beingo batez arritu ninduen. Garai artan *subsidioa* ematen zioten ume txikiak zeuzkateneri gobernoak. Famili aundiagoak azitzearren izango zan laguntza ura seguru asko, ta illean bein artzen zuten gurasoak.

Aiako baserritar gizonezkoak goizetik kaleratu oi ziran dirua kobratzera. Donosti aldeko norbait etortzen zala uste det ordainketak egitera, ta ordu jakiñak zeuzkaten dirua jaso bear zuten guztiak.

Baiña gero etxera joatea aztu ta bertan gelditzen, ordea, batzuk beintzat egun osorako; ta gauari beste pusketa eder bat kendu bitartean antxe ostatuz ostatu, bulla ta zarata zeriota. Ume diruak kalean utzi artu bezelaxe ta kito. Kontuak garbitu ta orduantxe erretira.

Len aipatzen dedan *Txorro* sonatua aiekin batera zebillela, Armendi baserrian ostatua garai artan edukitzen zutenez, an bazkaldu omen zuen koadrillan, bateonbateg konbidatuta noski, *Txorro*-k ere.

Baiña geitxo edan nunbait uste gabe, edo gaizki asentatu barruan agian; eta, bere buruari igarri zionean, komonera zijoan aitzakian irten kanpora ta etxe ondoko sagastira sartu disimuloan.

Sagar zugaitz aundi baten azpian itzalean etzanda zegoela, kaleko mutil koskorrak jolastera joan da ikusi zutenean, bera zirikatzen asi sagar tiraka ta abar, urruti samarretik noski. Baiña zearo amorrizi arte segi antxe lata ematen. Zenbat eta sarriagotan esan andik aldegitoko umeeri, orduan da okerrago.

Azkenerako, burutu ezin, iñun pakerik ez eta altxa ta martxa.

Ni koñadoaren sutegian lanean ari nintzala, an dijoakit gure *Txorro*, erabat suturik. Gizarajoa etze-

goen gozaten erreza. Onela galdetu zidan, izketan asi ordurako:

— Aizu, Manuel: ikusi al dituzu Armendi aldetik kalera etorri diran mutil koskorrak? Emen pasako ziran, dudarik gabe.

Ta:

— Bai, noski. Baiña ni ez naiz oartu. Zer gertatu zaizu? Toretu al zaituzte? Oso nerbioso zaude gaur.

Ori esan nionean, ura erretolika gizonarena! Kontatu zizkidan pasadizo danak. Etzeukan mingaiñean illerik.

— Ume oien aurka alperrik zabilta, ta obe zenduke pazientzia artuko bazendu, Agustin.

Ala baizuen jatorrizko bere izena, naiz eta jendeak *Txorro* erabili aotan.

Nere iritzia entzun ondoren, onela dio:

— Bat edo bi ezagutu ditut, eta arrapatzen dedanari belarriak kenduko dizkiot!

— Ez orrelakorik egin, Agustin, mesedez. Bestela gaizki erabiliko zaituzte —esan nionean, gozatu arazi nuen.

Nereganako etzuen borondate txarrik, eta ontzat artu zidan. Gizon zarrari ez litzaioke burlarik egin bear. Baiña, ume dan bitartean, nork ulertu lezake ori? Oso zailla dala badakigu. Ezaguera falta izaten baida.

Patxiku Naparra

AIA aldeko albiste batzuk emanaz asi nai nuke ataltxo au, poliki eta txukun antzean, asmatzen badet beintzat. Naiz eta erreza ez dala jakin, aleginduko naiz ulertzeko moduan idazten.

Aian, gure gazte denboran, baziran pertsona indartsu gordin ikaragarriak, beste erri askotan bezelaxe. Baiña geroxeago itzegingo det gai ontaz.

Orain, lenengo, azken urteetan egin dituzten aldaketak aipatu ditzadan, merezi duten ezkerero.

Erriko plaza berritu ta garbi bezin dotore jarria dago, edertasunez jantzirik. Bide ta kale zokoak ere era berean txukundurik dauzkate. Frontoia edo pelotalekua oso polita zutitu zuten, gaiñetik estalita, eguraldi onerako bezela txarrerako balio zezan, gazteak jolastu al izateko. Baita probalekua ere antxe dauka aldemenean bertan.

Aipatzen ditudan bi auek aspalditxo egiñak dira, ta geroztik beste ainbat obra, nik ez dakizkidanak edo ikusi gabekoak, ez naiz joaten da. Baiña erri ontako ezagunengandik jakin izan ditut nolatsu dijoazen gauzak Aia aldean.

Ostatuak ere len baiño ugariago omen daude, ta aukera ohea noski oien zale dan jendearentzat. Bat izentatzekotan, *Kanoa* daukagu jatetxe sonatua. Gure gazte denboran ere alaxe ezagutu genduen. Baiña aspaldi ontan uste det buruz gain beteta dabillega lanez.(1)

Batetik bestera baztarrak miatzen ibiltzen danak badaki nun jan lezakean ongi ta gustora. Kanoaneran, berriz, arategia ere etxean daukate; ta, Aian baserri asko izanik, aukerako txekorrak erosi ta iltzen dituzte.

Bixente Zuloaga bertako nagusietako bat da, arakiña. Bi anai dira alkarrekin martxa eramaten dutenak. Bestea, Inazio Zuloaga. Onek sua egin eta parrillean txuletak erretzen ditu. Kostillak ere bai, ederki gaiñera. Aragi ona erabiltzen dutela sarritan entzun det. Berak ez du gutxi balio; ta, ortik aparte, emakumezkoak sukaldaritzan oso dotore ta egokiak izanik, edozer gauza prestatzen asmatzen dute.

Gaur babarrun gorri ta zuriak ere modan jarrita dauzkagu toki askotan, adibidez; eta, Kanoanera joaten bazera, irakurle, jango dituzu gusto ederrekoak, ongi egosiak alegia.

Baiña beste au ere aitortu bearrean aurkitzen naiz: len babarrunak bakarrik beste ezer gabe egosi ta prestatzen ziran etxerik geienetan. Orain, ordea, gozagarri onak nasten zaizkiote: txorizo, odolki, saieski ta abar.

Oiek adierazten digute garbiro janari txarrik ez dala, laguntzaille itxurazkoak tartean sartu ezkerro ta sukaldaritzan ari danak mimatzen baldin badaki.

Diodan potaje klase ori, berriz, ez da burla egitea merezi duena, eskertzeko modukoa baizik. Osasuntsu dabillen pertsonari gorputzerako oso ongi datorkion alimentu zoragarria, berez. Aizetsua, orixe du akatsik aundiena babarrunak, nola gorriak ala zuriak. Bestela, jan erreza ta aspergaitza.

Aian, Bentaberri izan da beste bat jatetxe ona ta sonatua. Nik ango nagusia laguna nuen: Manuel Aldalur. Il zan gizarajoa, aspalditxo gainera. Baiña bere emaztea bizi da, ta semea etxera ezkondata daukala uste det. Beraz, arek bete bearko du aitaren tokia. Lan asko egiten dutela entzuten det.

Beste jatetxe dotore bat Juan Lertxundik jarri zuen Aiako plazaren erdi parean. Martxa ederra erabili ere bai urte mordoan. Baiña gero gaitz txarrak jo ta eraman zuen mundu ontatik gizarajoa. Bere emazteak orduantxe utzi zion ostatuko langintzari, eta orain esku-aldaturik dago. Jarraitzaille berriak dira ango ardura dutenak.

Azken aldiko urte auetan Aiara joan gabe bizi naizenez, ezin nezake bertako berri zeatzik eman. Baiña uste det ni izan ezkeroztik beste jatetxeren bat jarria badala. Ala entzundako errezeloa daukat beintzat.

Gure mutil koskor denboran ostatu gutxi ziran Aiako kalean: Landanekoa, Portitxanea, Panadero-koa, Armendi baserrian ere edukitzen zuten, eta Kanoa danen buru bezela nabaitzen genduen garai artan. Beraz, gaur ez-ezik, len ere jatetxe sonatua zala dudarik ez dago.

Ortik aparte, berriz, nekazaritzan gogotsu saiatu oi ziran oraingo auen aurrekoak, terreno sail aundiak eta onak baizeuzkaten laboregintzarako, ongi gobernatu ta zainduak, nola soro ala sagasti ta belar zelaiak. Ukuilluan ganadu talde galanta gainera, esne bei ederrez, txekor gizen mardulez ta idi pare bikain batez osaturik.

Morroi zar bat ere bazuten, *Patxiku Naparra* deitzen zitzaiona. Langille bildurgarri oietakoa edo iñor ez bezelakoa zala esan genezake bera ezagutu genduenak. Arrigarri utsa. Liburuan irakurri ta sinisterik ez dagoen modukoa, begiz ikusi gabe.

Gizarajo pusketa ura buruz etzan, ordea, gorputzez bezela jantzia ta osatua. Arrazoi zelebren pranko entzun da jaso genizkion bolaratan. Beingo batez onela zion:

— Mundu au dana bigurritu dek, eta amerikanoak abionak ekarri ta bonbaz txikitu bear diat, ea pixka bat zuzentzen dan.

Nik orduan, zirikatuz, galdera batzuk egin nizkion:

— Etorriko al zaizkizu amerikanoak, Patxiku?

— Bai azkar asko! Nere karta baten zai zeudek alde ontara abiatzeko leporaiño prestaturik.

— Noiz bialduko dezu, ba, diozun karta ori?

— Datorren astean bertan, luzatzerik ez dek komeni ta.

— Bueno, nun bota nai zenituzke lenengo bonbak, Patxiku?

— Ortxe, beko soro barrenean, asiko gaituk; eta gero ikusiko diagu —erantzun zidan.

Nik, berriro kuerda ematearren, esan nion:

— Obeko dezu kontuz ibili. Rusoak eta alemanak Zarautzen omen daude abion aundiekin, gerra noiz asiko zai; ta Orion ere sekulako soldadu tropak sartu dira. Barku ikaragarriak ekarri dituzte nunbaitetik. Jakin dute zuk zer asmo dituzun, eta izurratuko zaituzte, Patxiku. Rusoak Zarautzik eta alemanak Oriotik alkarri abixatu ta bonbak botatzen asten bazaizkigu, erri guztia txikituko digute, ta amerikanoeri ez diote Aian sartzen utziko. Orduan nora jo bear degu? Ni bildurrez aidean nago, ta pakeak geiago balio du, Patxiku. Zuk ez iñori kasorik egin mesedez.

— Ori izango diat onena, bai —erantzun zidan.

Garai artan bigarren gerra mundiala zebillen borroka bizian; eta, bestelako konturik entzuten ez genduenez, Patxikuk ere uraxe gogoan.

Zenbat gezur sinistu ote zuen gizarajo arek, buruz osatua etzalako? Sarritan toreatzen jarduten giñan; baiña berak ematen zigun orretarako bidea. Begiratu, bestela, onoko alkarrizketa ontara. Oso ateraldi polita iduritzen zait.

Egun batez, etxe atarian gurdia prestatzen ari zan belar billa joateko asmoan, eta ni inguratu nintzaion beragana. Ikusi ninduenean, onela dio, besterik ezer baiño len:

— Jendeak bazeukak ezkontzeko amorrua! Pilarmonika otsik ez dek faltako Aia aldean!

— Baliteke, bai, Patxiku. Zu nolatan gelditu ziñan ezkondu gabe?

— Nik Agertuari itza eman nitxoan ez nintzala ezkonduko, ta bete ere bai zintzo.

Jesukristori deitzen zion Agertua. Bakoitzak bere modura erabiltzen ditu esaerak.

Dana dala, aren sanotasun ura neretzat aztu eziñezko zerbait dala aitortu bearra daukat. Ainbat parre algara gozo eragin baizidan, berak etzekiela.

Nik egundaiño ez det begiz ikusi iñor Patxiku Naparra baiño belar sorta egille ederragorik. Ikara-garrizko zamak erabiltzen zituen bizkar gaiñean, bidean izpirik galdu gabe, txukun eta dotore. Ori, zartua egonik. Jakin nai nuke sasoirik onenean zenbat indar zuen gizon arrigarri arek.

Sekulan etzan etxez kanpoko ostatuetan sartuko, seguru asko. Tabakoa gustatzen zitzaion, zerbaiten bearrez edo bizioz. Ez dakit zergatik zeukan erretzeko oitura. Periodikoari pusketak kendu ta aiekin egi-ten zekien zigarroak, puru aundien antzekoak.

Izan ere, paper txikietan nola moldatu aren beatzak zigarroa biltzeko, danak kalloz betetako esku baldar nekatuak baizeuzkan gizarajo arek?

Gaztain koloreko idi pare bat bazuten etxean. Uste det bere burua baiño geiago maite zituela Patxikuk.

Norabait joateko aiek uztartzerakoan, lenengo eskubia askatuko zuen katetik; eta “Etorri adi nerekin, makala!” esatea aski. Idiak atzetik segiko zion *taka-taka* atarira.

Ari buruan edo lepo gainean uztarria lotuta, berealaxe ukuillura sartuko zan idi ezkerraren billa; ta, ura artean etzanda baldin bazegoen, onela esango zion:

— Ik beti lotan egon bear al dek? Altxa, kaballe-ro putanero, garaia dek-eta mugitzeko!

Itz auek erabiltzen zituen idiekin Patxiku Naparrak. Bakoitzari bere izena jarrita zeuzkan. Gure lantokitik edo kanpoko ateondotik aien atarira metro gutxiko tartea zegoenez, errez entzuten genizkion kontu guztiak.

Emen diodan bezela zebillen egun batez ganaduak uztartzen; eta jan da paseatu besterik egin gabe bizi zan amerikano batek onela dio:

— Idi oiek etzeukatek lanerako gogorik, Patxiku.

— Ez ik ere; ez daukak asko, len ere ez intzan punta-puntakoa izango noski ta!

Ara Patxiku Naparraren erantzun dotorea bezin egokia.

Emen aipatzen dedan amerikano au, Aian Zatain baserriko semea zan; Ameriketan urte sailla pasa ta berriro errira itzulia. Kanoa jatetxean apupillo zegoen garai artan. Txanponak bildurik edukiko zituen, eta mutilzarra gainera. Familiaren kezkarik ezak emango zion lasai bizitzeko modua.

Baiña noiz edo noiz galanki suprituko zuela bistan dago, ala dirua sobratzeko noski. Artzantzan ibiliko zala derizkiot Ameriketan; edo, bestela, ganadu talde aundiren bat zegoen tokian morrontzan.

Euskal Erritik ara joandako mutillentzat bi oiek omen ziran langintza jakin samarrak jeneralean.

Beraz, soldata ona irabazteko aukera gutxi, ta gastatzeko ere bai, adibidez. Jai ta aste eten gabeko eginkizuna beti nork bere gain zeukanez, arixe erantzun bear nai ta nai ez, oporraldiak alde batera utzi ta zintzotasunari elduaz, mendiko bakardade tristean.

Ez da bizimodu eroso ta gustagarria izango gazte batentzat. Baiña etsi-etsian urte batzuetan iraun ezkerro, berez zurra danak txanponak eskuratzen ordea, ta gerorako ogibidea erreztu. Orixe da buruz argi jokatzea.

Dirua gordetzen dakiten pertsonak nabarmenak dirala uste izaten degu. Baita alperrik botatzen dutenak ere. Nere iritziz, emen eta beste gaiñontzeko alde guztietan, bakoitzak bere oiturak mantendu bearke ditu, txarrak edo onak.

Beraz, arrazoirik etzitzaion falta Zatain baserriko amerikanoari, zartzarora ongi pasatzen alegintzeko eskubide osoa baizik.

Baiña onenbestean bukatu dezadan gai au, berriro len neramakien arrastora sartu nadin. Patxiku Naparrarengana nijoa zuzenean, dana merezi duelakoan.

Arek, kanpotik janariak etxera eramandakoan, egun guztia ukuilluan ganaduak gobernatzen eta aiek zepilluz garbitzen edo apaintzen pasa oi zuen. Etzanda zeudela, bakoitzari onela esango zion, aurreko muturraren ondora joanda:

— Ederki ago, ba, naikoa jan da deskantsuan gizarajo ori! Baiña jeiki bearke dek oraintxe, nik nere lanak egin ditzadan.

Era ortantxe gozatzen nunbait. Gizon apala ta aspertu ezin arek, pertsonetan baiño konfiantza geiago zeukala ganaduetan dudarik ez nuke jarriko.

Kanoanean mostradore aurrean famili guztia bilduta mai luze batean bazkaltzen edo afaltzen danak

batera ikusi nituen iñoiz. Gosaldu ere era berean egingo zuten noski.

Baiña nik gogoan dedana auxe da: maian Patxi-kuk etziola iñori ezer esaten, buru makur, errespetoz alegia, sabela bete bitartean.

Bein bukatzen zuen garaian, ordea, zigarro aundiren bat egin, ura sutu ta laixter jarlekutik altxa ta ukuillu aldera inguratuko zan ganaduetara. Antxe pozik, parrez eta jolasean, zoramen osoan bere aiekin. Ainbesteraño maite nunbait. Gaur alako morroirik billatzen ez dago errez.

Zenbat nekaldi ta tratu txar eman ote zion arek bere gorputzari, bizkarreko zama astunak erabili eziñik, neurria artzen etzekialako? Belardiak etzizuten etxetik urruti. Baiña aldapan betik gora eraman bear janariak; eta, naiz idiak alperkerian eduki, geientsuenetan sortaka ibiliko zan gizarajoa.

Ura indartsu bildurgarria zala ezagutu genduen. Guztiok bagenekigun ori. Nola ez? Egunero begien bistan baigendukan, goizetik gauera bitarteko orduetan.

Gogorrena da bera ez konturatzea zenbat aztarrika alperrik egiten ari zan, erabat okertzeraño, antxe nekearen menpean.

Ala ere, beti kolore ederra ta azal fiña nabaitzen ziran aren aurpegian.

Medikurik bazanik ere etzuen jakingo seguru asko, sekulan etzan aietaz beartuko ta. Ori da gizonaren izakera zoragarria. Lana bakarrik amets.

Zuka itzegiten etzekien. Erriko apaizak iñoiz toreatzen zuten pixka bat, eta aieri ere ika erantzuten zioten. Garai artan, apaizen aurrean, berorika itzegin bear izaten zuen jendeak, nik ez dakit zergatik edo nork aginduta, aita gurea ere zuka erreza-tzen da-ta, euskeraz beintzat.

Dana dala, Kanoanean bi anai alkarrekin bizitzen ziran. Xixario zan etxera ezkondua, oraingo nagusi auen aita. Arek ostatuko martxa eramaten zuela uste det. Inazio Marik, berriz, ganaduen goraberak eta kanpoko lanak, Patxiku morroiak lagunduaz.

Inazio Mari gizon serioa ta zuzena ikusi genduen. Familiko guraso bezela juzkatu zitekean, naiz eta mutilzarra izan.

Egun batez, betiko garai jakiñean, bildu dira bazkaltzera ta Patxiku falta. Sentitu zuenean, joan ukuillura ta galdetzen dio:

— Nun abil? Ez al dakik noiz bazkaltzen degun?

— Sorta bat belarren billa joan nauk ganaduentzat, ik ekarrita ez ditek asko jango ta.

Orra Patxikuren erantzun dotorea. Orrelako arrazoiak ematen bazekien tarteka.

Errian pestak ziraretan, berak etzuen parrandarik egingo. Baiña besterenak jakin bai, ta gero aiek buruan bueltaka erabili. Nik sarritan zirikatzen nuen. Batzuetan alperrik, ordea. Etzidan ezer esaten. Tenple ona zeukanean, berriz, zekizkien guztiak.

Auxe zan Patxiku Naparra.

(1) Nik au idatzi ezkeroztik, eskuz aldatu omen da Kanoaneko ostatua. Lengo nagusiak lanean ari zirala idatziak daude lerro auek.

Manterola-erdiko Errena

MANTEROLA-erdiko errena gai gisara arturik idatzi nai nuke atal au. Gizon aundiak bezelaxe ixtimatzea mereziko baidute txiki antzekoak ere, bakoitzari berea emanez noski.

Erriz erri baztarrak ongi miatzen asiko bagiña, billatuko genituzke alde dexentea dutenak, nola bizitzari dagokionez, ala jokabidez.

Guk Aian ezagutu genduen mutilzar zelebren bat. Manterola-erdi baserrian jaiotako semea bearko zuen diodan onek. Nik ala pentsatzen det, segurantz osorik eduki ez arren.

Manterola-erdiko Errena deitzen zioten bere erritar guztiak. Orrek adierazten digu garbiro. Batzuetan, izan ere, familiak aldatu oi dira etxe batetik bestera bizimoduz. Baiña geientsuenetan, nun sortua dan, ango seilloa eramango du bakoitzak. Ori ez dago kentzerik.

Nik ez nion sekulan iñori entzun erren onen jatorrizko izenik, eta ez dakit emen idazteko, ez nuen ikasi ta.

Dana dala, berez gizon txikia zan, gorputzez alegia. Anka bat bestea baiño ondotxo motzagoa zueñez, ibillera neketsua ikusten zitzaion.

Ala ta guztiz ere, etzan iñun gelditzen. Txingurria zirudien, esate baterako; ta pertsona zaildua bezin ixpiritu gogorrekoa.

Zenbat tratu txar eman ote zion bere buruari premirik gabe, bidez bide zebillenean? Etzituen anakak guk bezela txandaka aldatzen, pausotik pausora. Beti bat aurreratuko zuen, sano zeukana; ta gero bestea arengana bildu arrastaka, makillarekin lagunduaz.

Noizean bein gelditu ta baztarretara begira egon oi zan, nekeak erasaten zion garaian noski. Ta, norbait ikusi ezker, berriz, laixter emango zuen itzegiteko aukera. Erri guztiko kontuak jakiten zituen, bera berritsua zalako edo ez dakit zergatik.

Gazte denboran Leitza aldean ere ibilia izan bear zuen. Emendik aiatar batzuk ara baso lanera joan omen ziran, eta Manterola-erdiko Errena beraiekin eraman pintxe bezela noski.

Leitzako Gogortzaneko denda ongi ezagutzen zuela sarritan entzun genion, Baba beltza, olio, ardo, ogi, urdai ta beste jenero guztiak an erosiak izaten zirala esan oi zigun Aiako erren zelebre arek; berak eramaten zituela enkargu danak erritik basora, eta mutillentzat janaria prestatu. Arrantxerotza egin, alegia.

Orrela esplikatzen jarduten zitzaidan gauzak iñoiz, tenple ona zeukanetan. Uraxe gutxitan izaten, ordea, gizarajoak, jenioz bizi amorratua zalako. Edozer uskeri gaizki artu ta sutan jartzen zekien, erabat irakinda.

Orduan, ura toreatzen kontuz astea onena. Bestela, entzungo zituen deskuidatzen zan norbaitek bere parteak eta bi. Geiago ere bai, arrazoi txarrak ematen asitakoan. Iztun azkarra ta ugari ikaragarria baizan. Etzitzaion mingaiñik trabatzen.

Aiako kalean, ostatuetan, batzuek apropos zirikatzen zuten, martxan sartu bitartean, gero aren kontura parrez gozatzearren,

Zirko politak ikusi genituen prankotan. Antxe egoten giñan zoratu bearrean, Manterola-erdiko Errenari begira aspertu eziñik.

Egun batez Zarautzen feria ta joan da Salegiren ostatura, baxoerdiren bat artzeko asmoan; eta jangelan izugarrizko bulla sentitu noski.

“Nor ote da or izketan ari dana olain altutik?” pentsatu ta sartu barrura. Ta bere ezagun baserri-tar bat, an bertan bazkaldu ondoren arronka ta zalaparta besterik gabe, inguruan zeuzkanak asper-tu arazten; eta, ikusi orduko, onela dio Errenak:

— Jo, jou! I al intzan emen orrela indarrez bete-ta? Etorri berria bearoko dek. Len ez uan askorik. Jakatik ekarri al dek edo zer gertatu ote da?

Jakan indar-etxe sonaturen bat egongo zan garai artan seguru asko. Gauzak ala du itxura, ori esateko. Laixter ixildu arazi omen zuen baserri-tar gizarajoa. Errespetoa jartzeko gizon txikia aski da batzuetan.

Manterola-erdi baserriko nagusiak, Pedro zanak, osaba zuen diodan erren sonatu au, ta kontatzen zizkigun pasadizo zelebren ugari, gure koiñadoaren perratokira ganaduak perratzeraz zijoanetan.

Lotsa izugarria ematen omen zion bere osabaren nolabaiteko bizimodu narratsak.

— Iru edo lau aldiz eraman det nik ori gure etxera —esaten zigun—, eta etzeukan ezereen faltarik, ixtimatzen jakin balu. Jan da edan guk bezelaxe egin zezakean lasai, ta lotarako oe zuria antxe zeukan udaran eta neguan. Ortik aparte, berriz, arropa garbiak soiñean jantzi arazi ta itxura obean ikusi nai genduen, familikoa zalako. Lanerako bein ere ez genion estuasunik jartzen edo derrigortu beintzat, bere kasa utzi baizik. Merezi baiño geiagotan esan nion: “Osaba, zuk auetxek bakarrik egin bear dituzu: ganadueri aska aurre-

tik belarra eman pixkana-pixkana, presarik gabe jan dezaten; eta gero azpigarria bota, etzan da gustora egon ditezen astiro-astiro; eta, gogoia daukazunean, emakumezkoentzat sutarako egurra txikitu poliki-poliki. Ez dizugu besterik ezer eskatuko, ta diru pixka bat irabaziko dezu gainera, jai egunetan kalera joan da lagunartean itxuraz ibili al izateko”.

Baiña aolku guztiak alperrikakoak ziran aren-tzat. Berealaxe aspertu ta aldegiten zuen etxetik, nora zijoan iñori esan gabe, ta kito.

Orrela esplikatzen zizkigun gertakizun danak Manterola-erdi baserriko nagusi Pedro zanak bere osaba errenari buruz.

Askatasunean oitu ezkeru, jende klase ori errenditzen oso zailla dala badakigu. Errezkerira jo ta zearo aldrebestu oi dira, ta lanik onena ere txarra andik aurrerakoan. Iñun iraun ezin da baztarrak endredatzeko almena izaten dute, ta azkenerako besteri etsi arazi erabat.

Manterola-erdiko Erren arek makilla luze samarra erabiltzen zuen berekin. Artaz baliatzen baizan noranai joateko; ta mutil koskorrak bildurra zioten gainera.

Aian, San Lorentzo gau batez gogoratzen naiz. Bi tratalari zebiltzan baxoerdiak artzen ostatuetan denbora pasa noski, ta beste bitxo au aieri segitu eziñez, anka bat arrastaka zuela, plazatik Kanoanera zijoazela. Eskola etxearen ondoan aldapatxoa igo bear ta tratalariak aurrera errez, baiña Errena dexente atzeratu.

Ordurako illundua ere bazegoen, eta nere lagun batek eldu zion brusatik. Jo golpe ta alperrik: pausorik aldatzen ez. Ura komeria! Bueltak ematen asi zanean, mutilla atzetik beragana bildu zitzaion. Etzuen iñor ikusten, baiña konturatu ordea bateonbategi brusatik tiratzen ziola.

Giro ederrean jarri zan orduantxe! Ura jenioa Errenarena! Aiek makilkadak ezkerrera ta eskubira!

— Arrapatuko aut, bai, zerri ori! —esaten zion.

Erreza zeukan gizarajoak! Aspertu arte alaxe toreatu zuen, eta alako batean utzi.

Nik gau artan bezin gozo parre ez nuen askotan egingo. Gaztetasunaren kontuak eta umorezko jolasak dira oiek. Iñori kalterik ez badatorkio, gauza politak noizean beingo.

Manterola-erdiko Erren arek udaran eta neguan jazkera berdiña erabiltzen zekien: alkandora, txalekoa, galtza urdiñak edo al zan moduzkoak, abarka gomazkoak oiñetan, lepoan bufanda, brusa beltza luzea ta abar, jaietan bezela astez.

Ankak gizonik aundienak aiñakoak bazituela esan zitekean, abarketara begiratu ezkerro beintzat: eta esku baldar izugarriak.

Emen Oriokoa ere ixtori zelebrea entzunda nago. Ez da atzo goizean gertatua izango, baiña nik ikasi nuen bezela idatziko det.

Sagardotegiren batean arrantzale jendeak sardiña jateak prestatzen noiznai, oitura alaxe zeukate-lako. Arratsalde batez, etorri da gure errena Aiatik denbora pasa, ezer jakin gabe; ta, sagardotegira sartu danean, bertako nagusiari bururatzan zaio bat-batean: "Gaur pesta antolatu bear diagu".

Eta galdetzen dio Errenari:

— Aizak, adiskide: iñorako presarik bai al dek?

— Nik ez batere.

— Ori orrela izanik, erakutsiko nitek zer egin. Emen bazegok upel utsa; ta ik, onen barrura sartu ta gordean egon bear dek diximuloan. Edaria artu nai dekena ta lasai! Guk oraintxe parrillan sua piztu ta geroxeago jarriko dizkiagu sardiñak erretzen. Sei edo zortzi lagun etorriko dituk jatera; eta,

asetzen diran garaian, disputan asi ta bulla ikaragarriak aterako dizkitek. Ik ala sentitzen ditukanean, egin bi edo iru oiu, al danik aundienak.

— Konforme!

Manterola-erdiko Errena, pozik gaiñera, berealaxe sartzen da ta an dago etzanda, bere txandaren zai.

Bai besteak ere, nagusiak esan bezela, an dijozte betiko ordu moduan zintzo. Sardiñak jan bitartean, ixil antzean, bakoitza bere tokian. Baiña gero ekin diote alkarri gaizki esaka, ta jabetzen zaiote Errena:

— Zer pasatzen da, mutillak?

Ori esatearekin batera, erakusten du upelaren zulotik lenengo anka ta urrengo bi ukabillak. Laixter ixildu ta aldegin omen zuten danak kanpora igesi, zearo bildurturik, zorrak ordaintzeko astirik gabe, kuzkur. Auskalo nolako orroak egin zituen upelaren barruan.

Nagusia gozatuko zan ederki. Erren txikiak, berriz, bere gustoko lana uraxe izaki, ta biak kontentu.

Sarritan esan oi zuen:

— Oillarrak bezela burua gora jasota kontuz ibili, ni munduan asko korritutako gizona nauk eta!

— Zenbat erri ezagutzen dituzu, ba, zuk?

Ori galdetzean, onela erantzungo zizun:

— Aia, Orio, Zarautz, Getari, ta Leitza ere bai.

Aiako Zulaika baserrian etxeordeko aundi bat bazan len, ganaduen azpigarriz leporaiño beteta egoten zana. Garo, orbel ta orrelakoak edukitzen zituzten, udazkenean kanpotik bildu ta eramanak. Negurako edo urte guztian bear zuten aiña bai, seguru asko, legorpean sartu ta txukun.

Manterola-erdiko Erren sonatuaren otela uraxe zala badakigu, lotarako batez ere. An pasatzen baituzten gauak geientsuenetan, kale aldera zetorrene-

tan. Oso urrean eta egoki baizegoen diogun etxeordeko edo txabola eder ura.

An orbel eta garo tartean lo gozo egin da goizean esnatzean altxa; ta, begietako makarrak kendu orduko, gure koiñadoaren perratokira bixita egingo zuen seguru samar.

Ori bagenekigun; eta gero, aulezia sentitzen zuen garaian, Kanoaneko ostatua bi pausora nola zeukan, bertara joango zan, poltxikoan xentimorik ez bazuen ere.

Ango etxeakoandre Antoni zanak laixter emango zion gosaria. Etzuen beintzat tripa utsean bialduko kanpora, ain biotz zabaleko emakumea izanik. Ortik aparte, berriz, ongi zekien Manterola-erdiko Errenaren berri.

Gure perratokiko goien ere artean ostatua edukitzen zuten, eta ango etxeakoandre Mikela zana sukaldaritzan artista izugarria zala entzuten genion Aiako jendeari. Arek bazkaria seguru emango zion errenari, etxeke bezela arturik eta premia zeukala jakiñik.

Ala ere, eskerrik asko esan gabe aldegingo zuen sabela bete ondoren. Orrela dabillen gizonak sekulan ez du iñun zorrik bere ustez, artzekoa baizik alde guztietan.

Bertso zarrak, batzuk bazekizkien. Mikelaren ostatura zijoan bakoitzean, baxoerdiren bat ardo artu, maian exeri ta aiek kantatzen asiko zan denbora pasa.

Guk, bean lanean ari giñala, sentitzen genduen, eta esan ere bai:

— Ara or oillo gosetua kantari.

Umöre aundirik gabe noski, baiña nola edo ala adierazi bear zertsu komeni zitzaion.

Beraz, orrelaxe zebillela ezagutu genduen guk Manterola-erdi baserriko Erren sonatua.

Korredorea zala ere sarritan entzun genion bera-ri, ta izango zituen lagunen batzuk, ezkutu antzetik zeuzkanak eta diru pixkaren bat ematen ziotenak, jokatzeko agian. Baiña gauza gutxi noski.

Otsa ta zarata geiago erabiltzen zuela badakigu sakelean, txanponak baiño. Ori garbiro ikusita gaude.

Egun batez, Tolosan korrika apustu bat zegoen izentatua, eta aurrez agertu zitzaigun Errena perra-toki aldera, arronka zeriola, baztarrak endredatzera.

Korrikalarietako bat *Chiquito de Huizi* naparra zan, jokatu bear zuena. Bestea ez dakit nor. Ez naiz une ontan gogoratzen. Bestela, idatziko nuke pozik.

Dana dala, ni an ari nintzan ganadu perratzen, sarritan bezela, ta bi edo iru baserritar an zeuden kontu kontari; ta, ateondora iritxi orduko, onela dio Manterola-erdiko korredoreak:

— Milla pezta naparraren alde!

Nik ez neuzkan milla pezta nere mende garai artan. Eduki banitu ere, ez nizkion botako sekulan. Etzait gustatu diru jokorik.

Baiña ixildu gabe ari zan, burua gora jasota, iñork kasorik egiten etzisionan da beroago:

— Milla pezta naparraren alde! Bosteun pezta igoal! Baita ogei duro ere!

Eta antxe nabarmendu zan Erren gizarajoa. Baserritar batek, nazkatu zanean, atera zion patri-katik ogei duroko papera ta:

— Bota! Zuk ez daukazu xentimorik eta zertan ari zera emen mingaiña luzatu ta berriketan?

Giro ederrean jarri zuen orduantxe korredore pobrea. Baserritarrari esan zizkion asmatutako guztiak, baiña dirurik batere jokatu ez, ordea. Ez baizeukan sosik. Asarre bizian aldegin zigun perra-toki aldetik.

Zenbat orrelako disputa narrats eta seta gaizto erabili ote zuen arek bere bizitzan? Alaxe gozaten zala zirudien. Bakoitzak jatorrizko griñak dituela ez da gezurra, eta oiek ez dago aldatzerik inholako moduz.

Egun batez gogoan det nolako oillar jokoa izan zan Aiako Kanoa jatetxe sonatuan.

Oñatiko gizon argal aundi bat, urte batzuk zeuzkana ta mutilzarra gainera, au ere tarteka joaten zitzaigun Aiara garai aietan. Bere opizioz ebanista edo zurgiña bearke zuen izan derrigor, nik entzuera neukanez beintzat.

Bein ere ez nion ezer galdetu gai orretaz; baiña gaztetan nun edo nun ikasten jarduna zala lanean dudarik ez nuke jarriko.

Aian baserriz baserri ibili oi zan mueble zarrak konpontzen eta erdi autsita zeuzkaten oe, armario ta jergoiak berritzen eta txukuntzen. Illabete bezela, bi pasako zituen artantxe, etxe batetik bestera aldatuaz.

Esku arterako diru mordoxka osatzen zuenean, ordea, lanez aztu ta Kanoaneko ostatuan amabost egun gutxienez edo geiagoan lasai egoten zekien, irabazitako diruak gastatu bitartean; eta, poltsa zearo ustutakoan, martxa berriro txanpon batzuen billa.

Bere burua mantendu beste kezkarik ez eta ura geiegi ark ere sarritan, gizarajoak. Erririk erri ibiltzen omen zan urtearen aurrenetik azkenera, berak aitortzen zuenez.

Aian Kanoanean zegoen garaian, gure perratokira maiz joaten zitzaigun esku erremintak prestatzera: zintzel, trintxa ta orrelakoak. Nik jartzen bainizkion zorrozuta bere gustora. Lanean gizon kapritxosoa ta txukun-zale amorratuaren itxura zeukan oñatiar arek.

Nerekin ongi portatu zanez, ez daukat gaizki itzegiteko biderik eta arrazoirik.

Kanoa ostatuan jatekoz eta edariz ornitu arren, lo ere nunbait egin bear derrigor eta Zulaika base-
rriko txabolara edo lentxeago aipatzen degun etxe-
ordeko artara erretiratzen zan gauerako; ta Mante-
rola-erdiko Errenak antxe egin zion ondoren txarrak
sortu zituen pikardia Oñati gizarajoari, eta esango
det nola, ontaratu naizen ezkerero.

Eguraldia erabat biurritu ta berebiziko euri era-
soak artu ditu bizkarretik bera Errenak. Dana busti
ta lokatzez beterik joan da gauean Zulaikako etxe-
ordekora lotara, beti bezela; eta ordurako Oñati
antxe legorpean, trankil bezin gozo.

Konturatu da Errena aldemenean etzan zaiola;
baiña konfiantzan utzi ta kasorik ez. Erropa batzuk
morralean eduki Oñatik noizean bein aldatzeko; ta
Manterola-erdiko Errenak ori jakin da arrapatu dizkio
morraletik. Jantzi ere bai, ta bere busti ta lokaztuak
bertan utzi ta martxa, auskalo zer ordutan edo noiz.

Goizean esnatu da Oñati, eta Errenaren zarpa
zarrak ikusi dituenen, “emen ez dek gauza onik”
pentsatuta, miatzen du morrala ta erroparik one-
nak falta.

— Au dek marka!

Odol guztiak irakin diote ta berealaxe an dijoaki-
gu perratokira, burutik eginda baiño areago, zearo
bere lasaitasuna ta patxada galduta, zertara jo ez
dakiela, larri bezin estu.

Gu an ari giñan sua piztu ta lanean, Barrura
sartu orduko, antzeman nion nik: “Gaur gizon onek
etzekarrek beste egunetan bezelako umorerik”.

— Ari al zerate? —esan zigun lenengo.

Ta:

— Bai. Emen ari gera pixka bat. Zu zerbaiten
billa al zatoz, Oñati?

Eta segituan galdetu zidan:

— Manterola-erdiko Erren alu ori ikusi al dezu, Manuel?

— Ez. Kale aldetik dabillenean sarritan etorzen da. Baiña gaur oraindik ez da agertu. Okerren bat al dezute alkarren artean? Oso serio ikusten zaitut.

Ori esan nionean, erabat sutu arazi nuen lenaz gaiñera, ta esplikatu zidan erropak nola eraman zizkion morraletik eta abar. Onela zion:

— Momentu ontan emen baldin balego, ezurrak ongi berotuko nizkion, eta soiñean dauzkan erropak kendu ta larrugorritan utziko nuke!

Bi ukabillak gora jaso ta ura zan jenio klasea gizonarena! Nik, bere itzak entzunik, esan nion:

— Obeko dezu kontuz ibili, Oñati, Manterola-erdiko Errenarekin. Makilla erabiltzen du ta golpe txarren bat erantsiko dizu, zuk uste baiño len, batere pentsatzen egon gabe gaiñera. Ortan oso azkarra baida.

Orduan erantzun zidan:

— Ni orain nere trasteak artu ta beste erri batera banijoa lanera. Baiña berriro itzuliko naiz Aiara, ta arrapatuko det Erren txatxu ergel ori. Ez uste izan makillaren bidez bildurra sartuko didanik. Eta zuk, Manuel, esan bear diozu, sekulan artu duen muturrekorik aundiena nik emango diotela.

Auxe zan Oñatiren enkargua, ta ala gertatu ere azkenean. Geroxeago argituko det noiz eta nun. Bitartean, goazen aurrera.

Oñatik aldegin da urrengo egunetako batean an dijoakigu Manterola-erdiko Errena perratokira.

— Egun on.

— Bai zuri ere —erantzun genion.

Ondoren asi nintzaion galderak egiten:

— Lengo gau euritsu artan zer pasa zitzaizuen Zulaikako etxeordekoan?

— Zergatik diok ori?

— Ez dakit, ba. Oñatik esplikatuko lituzke gauzak ongiena. Lengo goizean emen izan zan, eta oso asarre zegoen, zuk morraletik erropak arrapatu ta aldegin zeniolako.

— Ori ez dek egia. Nik etzeukat aren erropa bearrrik. Gezurti zikiña! Baztarrak engaiñatzen al dabil? Ortantxe bakarrik zekik arek!

Orduan esan nion:

— Entzun zaidazu mesedez, Manterola. Obe zenduke erropak entregatu urrengo datorrenean, eta barkazioa eskatu, bestela pasadaren bat emango dizu ta.

Gozoa jarri zan.

— Esaiok nik ez dedala aren bildurrik, eta deitzeko nai duen tokira!

Beste itzik gabe, martxa perratokitik kanpora.

Alaxe, denbora bazijoan. Ez nekien nun zebiltzan. Baiña goiz batez Kanoaneko terrazan ikusi nuen Oñati. “Au etorri dek!” pentsatu ta nere lanean jarraitu nuen.

Eguerdian etxera joan, bazkari legea egin da berriro perratokira.

Inguratu giñanerako, an gendukan erriko praktikantea zai: bere zaldiak bi perra galdu zituela ta aiek jartzea nai.

Berealaxe ekin genion, atarian perratzen baigenituen zaldi asko ta orrelako abereak, gure aita zanak anketik eusten ziola.

Lenengo perra josten ari nintzala, begiratu nuen kamiora ta Manterola-erdiko Errena ikusi, Kanoa-

nera zijoala. Bat-batean bururatu zitzaidan: "Oraintxe dizkiagu erriko pestak!"

Errena barrura sartu orduko, konturatu da Oñati. Bai altxa ere laixter exerita zegoen aulkitik. Giro izan bear zuen an, alkarri gaizki esaten asita, bat aurrera ta besteak atzerakorik ez noski.

Lotsagabekerian ari ziran garaian, Manterola-erdiko Errenak makilkada galanta eman bizkar gainean Oñati aundiari, ta nagusituko zala uste. Baiña gauzak oker irten. Oñatik jo kokotzean da maiaren azpiraiño sartu Errena, ta gero andik ezin atera, anka bat motzagoa ta indar gutxikoa izanik. Gaizki ibiltzen omen zan lurretik jeikitzen.

Kanoaneko ama zarrak, Antoni zanak, komeri latzak erabaliko zituen pakeak egin eziñik. Etxean bakarrik egokitu une artan, ala bearrez. Laguntzeko iñor ez eta terrazatik neri deitu zidan:

— Manuel, etorri zaitez, al badezu. Emen ez degu gauza onik! Gizon auek alkar ilko dute!

— Ez bildurtu, Antoni, aspertuko dira ta —erantzun nion.

Berealaxe irten ziran biak kanpora. Oñatik aurrean artuta atera zuen Errena, ta antxe bukatu zirko guztia.

Gero perratokira joan zan denbora pasa bezela, edo bere burua pixka bat lasaitu nairik agian, Oñati mutilzarra. Ta:

— Zer moduz konpondu zerate? —galdetu nion.

Kontatu zizkidan pasadizo danak, baiña nola? Arritzeko moduan! Aren aurpegiko seriotasuna gaur ere ikusten dedala iduritzen zait. Begien aurrean gelditu baizitzaidan. Arratsalde artan etzegoen txantxetarako.

Baiña denbora asko baiño len aztuko zitzaion borroka-aldi ura. Seguru samar esaten det au, bere

izakera ezagutu nuelako. Nik neronek pixka bat lagundu nion animatzen. Bai parre gozorik egin ere tarteka.

Oñati gizon paketsuaren itxuran ikusi genduen beti. Etzan iñorekin ezertan sartzen, azio txarren bat egiten ez bazitzaion. Bakarrik ibiltzeko oitura izan zezakean agian, edo lagunarterako trebetasunaren falta. Nork daki?

Manterola-erdiko Errenak ere nolabaiteko bizi-modua eraman zuela dudarik ez dago. Zergatik, ordea? Besteren erakutsirik aintzat artzen etzekielako. Baiña ez det uste ethez etxe eskean sekulan ibili zanik, nik dakidanez beintzat.

Ari gertatuko zitzaion lanerako arreta galdu. Errezkeriari eldu, ta gero galanki supritu bearra, urtetan aurrera zijoan neurrian.

Dana dala, ez derizkiot baztarretan kalte aundirik egingo zuenik. Bere buruarentzat txarrena izango zan ura ere, gizarajoa.

Ibilirako nabaitzen genion apizio izugarria. Aiatik Zarautz aldera, Getarira, Oriora ta abar, ortxe batetik bestera gelditu gabe.

Berez osasuntsua ta gogor amorratua izaki nunbait, eta errez irauten.

Guk sasoirik onentxoena pasa ta gero ezagutu genduen. Baiña antzematen zitzaion etzuela nola-naiko ixpiritua.

Putajoder

EIBARREN entzundako pasadizo zar batekin asiko det lantxo au. Erri guztietan izan oi dira aparteko doai klasea duten gizon zelebretzuzuk, eta jende xearen artean politenak jeneralean. Ez dakit zergatik, baiña au orrela gertatzen da, sarritan beintzat; eta nik ezagutu nuen oietako bat an, ganadu perratzen jardun nintzan urte aietan.

Eibarko perratzailea, nere nagusia, umoretsua zanez, parranda ederrak egiten ere bazekien tarteka. Billatzen zituen beretzako ongi zetozkion lagunak noizean bein, ez gauero noski; eta gero neri kontatzen zizkidan ikusitako gora-bera geientsuenak, aldarte ona zeukanean edo gustora lanean ari giñanean. Alkarrekin konfiantza osoa erabili baigenduen beti nagusi-morroiak.

Nik aldegin nionean, pena aundia artu zuen gizarajoak, eta neronek ere bai. Baiña ordurako beste pentsamentu batzuk neuzkan buruan, tentatzen nindutenak.

Dana dala, perratokiko kontuekin geroxeago jarraituko det, lenengo asieran aipatzen dedan pasadizoa garbi adieraztean.

Gizon argal zimel bat zan diodan au. Baserritarra berez, baiña kale aldeko giro gozoaren maitale sutsua. Ortik aparte, berriz, nerbioso utsa ta bizi amorratua. Zirkorako ere balioko zuen agian, gazterik artaratu baldin balitz.

Izugarri alai genduen gizon zelebren au. Ateraldi aberatsak zeuzkan. Norbaitek zirikatzen zuen bakoitzean, erantzun zorrotzak, alegia.

Izengoitia ere bai polita, adibidez, berak bere buruari jarri ziona. Emen idazteko ez da oso egokia, baiña barkatuko al didazu, irakurle, gaizki iduritzen bazaizu. Neri gauzak diran bezela esatea gus-tatzen zait. Bestela ez baidu grazirik, gatzik gabeko janariaren antzera gelditzen da ta.

Beraz, goazen ariari elduaz, eta auxe omen zan gizon onen esan berezia:

— *Putajoder!*

Zerbaiten motiboz amorrarazita zebillen garaian ateratzen zitzaiona noski. Gaiñontzean nik ez nion bein ere entzun biraorik eta orrelako itxuskeri narratsik. Ezta bere izen naturalik ere ez nuen sekulan ikasi.

Ganaduekin perratokira zijoan bakoitzean, goizetik baldin bazan, onela esango zigun sarreran:

— Egun on Jainkoak.

— Baita zuri ere. Etorri al zera, *Putajoder?* —erantzungo zion nere nagusi perratzaileak.

Arratsaldean izanik, berdin.

Nik, lenengo bolara batean, parre gozorik egin nuen. Baiña azken aldera antzeman nioten alkar toreatzen jarduten zirala biak, eta aien artean konfiantza osoa zegoela.

Noizean bein joango zan baserritar au kalera, larunbat illunabarrez edo bestela igandez, etxeko ganaduen esneak bildu, gobernatu, pasada eman

da itxuraz utzita. Baiña gero kontuak, alamoduzko lagunak inguratzean.

Igande gau batez ederki gozatuak izan bear zuten Eibarren, Untzagako plazan. Pausoz-pauso bidea neurtu eun metro gutxi gora-bera, ta korrika ez dakit zenbat segundotan pasa baietz eta ezetz ostatuan apustua eginda bero-bero.

An, arraian, batek txalo jo, noiz irten abixatu alegia; ta beste aldeko puntan perratzailea, erlojuz marka artzen, onela esanez:

— Jo oraintxe deken guztia!

Ta azkenean:

— Ez aiz, ba, iritxi. Pauso batez galdu dek. Berriro probatu bear diagu, nere ustez ondu ezake ta.

Alaxe zerabilkitela, zearo nekatu arazi *Putajoder* gizarajoa.

Auntza bezela saltatzen zala bein baiño geiagotan entzun nion gure perratzaillari, sei lagunentzat kafe konpletoak jokatuta. Gero, aiek artzera ostaturara pakea ederrean, eta korrika ibili zanak ezer ordaindu bearrik ez. Jakingo zuen arek zertan zebillen len ere.

Ortik aparte, berriz, mutil zarra izaki ta askatasun osoa berekin edozertarako. Umore onaren faltarik ez. Zintzo purrukatua, buruz ongi jantzia ta danetara osatua zirudien gizaseme leial onek.

Illabete bezela, bi pasako zituen parrandarik egin gabe zuzentasunez, etxeko martxari begiratuaz, ordena jatorrean da txukun. Noizean bein deskarrillatzen, ordea, arritzekoa ez danez, eta orduantxe nastutzen dexente. Kaleko lagunartez itxutu geiegi edo gozamen ura ezin utzita lotara joatea aztu. Emen bakoitzak bere akatsak dituela ez dago ukatzerik. Baiña etzion iñori kalte aundirik egingo.

Zebillen tokietan, sanidade izugarrikoa ta biotzez aberatsa zala ez nuke dudarik jarriko. Lagunak asko maite zuten, da orixe da seiñalerik onena. Beti bere zai edukitzen zituen gure perratzaillea ta beste batzuk, kale aldean noiz ikusiko. Norbaitek bearizaten du aurrelari, pesta giroan denbora pasatzeko ta koadrillan umore ona piztu ta batasun pake-tsuan ibiltzeko.

Nik neronek ezagutu nuelako batez ere, ta beste askoren iritziak entzunik, pertsona jostailu grazioso zoragarri utsa juzkatzen det *Putajoder* deitzen zioten mutil zar ura. Sekulan ez genion tristurarik nabaitu. Batekoz bestera, beti kantuan edo zelebkerian. Txiste politikak kontatzen ere bazekien, plazentzitarrenak eta abar.

Parrandero bat

EIBARREN jende langillea ta jatorra zala bada-
kigu. Baita parrandero bikaiñak ere batzuk,
alde guztietan bezelaxe. Nere nagusi izandako arek
kontatu zidan orain idatziko dedan ixtori au.

Untzagako plazatik gora aldapa dexentea dago,
Ermua aldera abiatuta. An bazan len *Escuela de*
Armería deitzen zitzaion tallar aundi bat, eta gazte
askok bertan ikasten zuten opizioa, eskolarekin
batera. Orixe baida langille onak sortzeko modurik
egokiena. Beraz, goazen aurrera.

Diodan tallar artatik oso urrean, ezkerretara,
mojen komentua zegoen, goiko gaintxora igo ta
bereala.

Kamio ertzean, eskubi aldean, berriz, zugaitzak.
Lau edo bost metroko tartea edukiko zuten batetik
bestera. Auskalo noiz aldatuak ziran. Gerri alde
sendoak zeuzkaten, da udaran aien itzalera jotzen
zuten sarritan, paseatzen denbora pasa zebiltza-
nak. Nik ikusten nituen pareta gaiñetan exerita
zeudela. Zugaitzak bide luzean illadan kamioa
gogortzeko jarriko zituzten seguru asko, ta dotore-
tzearren ere bai agian, danetarako balio dutenez.

Txorientzat gustoko jeneroak dira. Gordeleku egokiak, kabi politikak egin da umeak jaio ta azitze-ko. Illunabarrez garai jakiñean erretiratzen badakite pizti oiek, eta nora? Zugaitz adarretara. Aien gaiñean kuxkurtu ta egin oi dute lo goxo aski. Gauez atsedendu ta urrengo goizean egunsentian asiko dira kantari, doiñu atsegiñak erabiliz, nagikeririk gabe, alaitasun zoragarrian.

Guk ez degu orrelako zuzentasunik. Ez dakigu orduak errespetatzen. Begiratu, bestela, gertakizun ontara. Eibartik Ermua tartean bizi zan gizon batena da, ain zuzen.

Aste guztia lanean pasa ta etxeratu, soiñeko erropa zikiñak kendu, garbiak jantzi ta joan da kalera. Larunbata izanik, presaka ibili bearrik ez noski, ta lasai sartu da ostatuan, oitura zeukan bezela.

An billatzen ditu bere lagunak. Asi dira alkar konbidatuz kontu kontari. Geroxeago, berriz, gose-tu eta afaria eskatu etxeko andreari. Arek jangelara pasa arazi ta eman dio bakoitzari komeni zaiona. Ase ditu ongi, jatekoz ez-ezik, edariz ere; ta kontentu danak. Ondoren, kafeak artu ta segi patarra edaten.

Baiña berandutu zaiote uste baiño len, eta batek onela dio:

— Kontua edo zor deguna ordaindu ta aldegin obeko diagu emendik, mutillak, orduak aurrera ziaztik eta.

— Bai. Arrazoi daukak orretan —besteen erantzuna.

Alaxe, ostatuko gora-berak konpondu ondoren, jarlekuetatik jeiki ta kanpora.

Baiña ordurako, Eibartik Ermua aldera joan bear zuen gizonak izugarrizko zepeliña arrapatua eduki, eta batek galdetzen dio:

— Nai al dek etxeraiño laguntzea?

— Ez. Eskerrik asko. Bakarrik ederki moldatuko naizela bazekiat. Gau on pasa ta urrengora arte —esan da abiatu da aldapan gora.

Len aipatzen dedan *Escuela de Armería*-ren ondotik pasa ta igo da mojen komentuaeren ingurura, kamio guztia beretzat gutxiégi duela, balantzakak. Jo du sorbaldarekin bide baztarreko zugaitza, ta esaten dio:

— Barkatu, etzaitut ikusi ta.

Oso illun omen zegoen, eta norbait irten zitzaiola uste bidera.

Ala, jenio txarrean, baiña segi; ta, aurrera dijoala, jotzen du beste zugaitza kopet ezurrarekin bete-betea, da erori da lurrera.

Giro omen zan orduantxe. Erabat asarretu gizona. Altxa lurretik eta asi da galdezka:

— Au al da pertsona tratatzeko modua? Esaidazu nor zeran. Lentxeago batek or eman dit sorbaldako galanta. Orain zuk kopeta ia autsi zenidan. Gaur danak nere kontra zerate, bakarrik naizela jakiñik. Aldegin zaidazu aurreko aldetik mesedez, eta utzi neri pakean, etxeratu nadin. Biar berriro eguerdira baiño len ementxe pasako naiz, eta itze-gingo degu gizonetik gizonera egun argiz.

Itz oiek esan omen zizkion bigarrenko zugaitzari. Ara edariak nola nastu arazten duen gizona.

Itz auek entzun zizkiona gau artan berarekin batera ibilitakoren bat izango zala dudarik ez nuke jarriko. Neri perratzailleak kontatu zizkidan, orrela-ko ixtoriak jakiten etzan txarra ta.

Berdengillo baserria

GUK perratokia Eibarko *Astelena* pelotalekua-ren gaineko aldean bertan genduen, baiña Berdengillo baserrian bizitzen giñan. Gipuzkoa eta Bizkaia antxe mugatzen dira, ta len goardiak egoten ziran koartela edo antzeko bat ere an ezagutu nuen nik.

Olarria (Olarreaga) zuen izena baillaratro arek, eta metro gutxiren tartean Berdengillo baserria. Mugaz Bizkai aldetik arkitzen da. Etxe geiago ere baditu inguruan. Ostatua, berriz, oso egoki dauka, kamioa ukitzen duela, gauzak len bezela baldin badaude beintzat. Aspaldiko berririk ez dakit eta ezin eman ziurtasunez.

Dana dala, Olarriatik Eibarko perratokiraiñoko joan-etorri guztiak oiñez egin bear izaten nituen nik. Kilometro ta erdi egongo dira gutxi gora-bera.

Goizean joan, eguerdian etxeratu, ganadueri janaria ta ura eman, garo edo iñurkiñez etzanlekuak txukundu, bazkaldu ta denborarik alperrik galdu gabe berriro lanera, eta illunabarrean zintzo etxera gauerako; ta, al bazan, urrengo goizean eta eguerdian bear genituen ganaduentzako jangaiak bildu. Udaran, nekez illuntzen duenez, errezago moldatzen da.

Lau esne bei ta txekorren bat edo bi beti izan oi ziran Berdengillo baserrian. Arako naikoak, terreno sail txikiak baizituen.

Ortik aparte, berriz, perratokian lan geiegi sarritan, da nolabait ibiltzen giñan, danetara iritxi eziñez.

Len aipatzen ditudan bideko zugaitzak ainbat biderrez ikusi nituen. Aien adar gaiñetatik kantuan goxoki ari ziran txoriak sentitu ere bai.

Aspaldiko kontuak dira, ordea. Orain guztiz aldatua dago Eibar. Etxe berriz eta tallarrez baztar danak estalirik daude. Ez dauka erri arek lengo itxurarik. Baiña orixe komeniko zalakoan nago, bizimodurako batez ere.

Ni an nenbillela, azken aldera ekin zioten kamioak zabaldu ta txukuntzeari. Ermuatik Eibar bitarteko bidea asko dotoretua gelditu zala goioan det.

Ez dakit kontratista nungotarra izan zitekean. Baiña langille jendea kanpoko beintzat. Mixeria ta gosearen menpean ibilitako itxura zeukaten.

Ni goizean, ukuilluko ganaduen lanak bukatzean, kafesne zopa beroak jan da zazpirak aldean joaten nintzan perratokira jeneralean, eta ordurako sarritan ikusten nituen kamio ertzetako soroetan sartu, jelatutako arbia atera kutxilloarekin, gaiñeko azala kendu ta bere artan jaten. Ai zer nolako gosaria negu beltzerako! Barru alde beroa eramango zuten gizarajo aiek lantokira. Errukia eman bear biotzik zeukanari.

Guk, zorionez, ez genduen goseterik pasa Elbarrren. Aurretik, bai, ordea arritzeko modukoa, gerra ondorengo urte negargarri aietan. Sekulan etzait aztuko orduko bizitza naigabetsua, ta beste askori ere ez noski. Probatuta jakiten baida nai ta eziña zer dan.

Mallabi Motza

AN bazan gizon jator aipagarri bat, izketan arinkeri gutxi ta arrazoi mardulak ematen zekiena mantxo-mantxo ta nasketa baldarrik gabe, dotore asko.

Mallabiko semea, baiña urte mordoska Eibarren zeramazkiena. Altura txikia zuen. Beste gaiñontzean, gorputzez zabala eta sendo ikaragarria, *Mallabi Motza* deitzen zioten.

Ardo almazenean enpleatzen zan, ez dakit bere kontura edo mutil bezela.

Dana dala, beingo batez, gogoratzen naiz, bazkaldu ta perratokira nijoan lanera. Baiña tabakoa falta zitzaidan. Batere ez neukan. Ez nuen asko erretzen. Aste guztian bi pakete geienaz ere. Aiek derrigor bear, ordea; ta, erosteko asmoan, sartu nintzan *Txaltxa*-ren ostatuan.

Baita Mallabi Motza ere. Kafea eskatu zuen, eta an zegoen ezagun batek galdetu zion:

— Bazkaldu al dezu, Mallabi?

— Familia bildu danean, maian edo aulkietan exeri ta alkarri begira an egon gera, sarritan bezela, alperrik denbora galtzen. Nik urte osoan bazkari

bakarra egiten det itxura antzekoa, ta bera San Juan egunez. Orduantxe bai gustora. Baiña, jaten asi aurretik, pixua ikusi zenbat naizen, seguru jakitearren; eta bazkalondoan berriro pixatu ta lau kilo geiago edukitzen ditut.

Auxe izan zan Mallabi Motzaren erantzuna; eta besteak, zearo arriturik, onela dio:

— Posible ote da bazkari baten bidez lau kilo irabaztea gizonak?

— Bai, noski. Nik ez det gezurrez iñor engañatu nai, adiskide; ta, sinisten ez badezu, apustua jokatuko dizut: edozein ostatutan eman dezaidatela jatekoa eta edaria, nik eskatzen dedanetik. Orduan ikusiko degu garbiro gauzak nola diran. Baiña gastuak galtzailleak ordaindu beariko ditu —esan zion patxada ederrean Mallabi Motzak, eta kito.

Artantxe bukatu dudako disputa. An etzegoen asarrerik eta griña gaiztorik.

Afaria

BESTE gau bateko ixtorira pasako naiz orain. Emen ere badet zer kontatua ta aprobetxatu dezadan.

Eibarko perratzaillearen lagun aundi batek ezkondu naia omen zeukan. Orretarako gustoko andregaiia komeni, ta ura berak gutxiena uste zuen garaian billatu.

Beraz, beti ez dala presaka ibili bear bistan daukagu. Pazientziz jokatzek balioko du geienetan, al izan ezker beintzat, edozer gauzetan ere, dudarik gabe.

Diodan gizaseme au etzan oso gaztea, ordurako urteetan pixka bat aurrera zijoana baizik. Baiña sasoi ederra nabaitzen zitzaion. Gorputza ongi zaindua zeukan, da osasuna gainezka. Ez dakit zenbat denbora zeramakiten alkarrekin tratatzen, nere egi-tekoa etzan ori ta.

Dana dala, erabaki dute ezkontzea, ta pentsatu du mutillak *despedida de soltero* erderaz deitzen zaiona egin bear duela, ta konbidatu ditu bere lagun guztiak afariz.

Nik ez nekien ezer, baiña nere nagusi perratzaileak jakinaren gainean zegoen, naiz eta ixilik gorde. Larunbata zan da arratsalde artan besteetan baiño lenago menderatu genituen perratokiko eginkizunak, eta galdetu zidan nagusiak:

— Zer lan daukazu etxean, Manuel?

— Beti bezela, ganadueri azpiak garbitu, ta sorotik arbia atera ta eramane. Batere ez dago aska aurrean.

— Joan zaite, ba, orrela bada, al dezun azkarrena.

Alaxe, bi sorta arbi etxeratu, ganaduen ankapeko zimaurreak kendu lenengo ta gero garo edo inurkinenez azpigarri bigunak jarri, etzan da gozo egon zitezene. Ori zortzi egunetik bein egiten genduen, eta larunbatez.

Ukuilluan leiorik nola etzegen, neguan ere berotasun aundia sentitzen zan, kanpotik barrura sartu berrian batez ere; ta, ango zimaurreak edo gorotzak ateratzeko garaian, ederki izerditzen zitzaidan gorputza. Zearo busti sarritan.

Alaxe, nagusiaren aginduz goizago etxeratu nintzan larunbat zoriontsu artan. Aipatu ditudan garbiketak egin ondoren, beiak jeizten edo errapean zeukaten esnea biltzen asi orduko, an dijoakit gure nagusi Joxe Antonio ta onela dio:

— Gaur Eibarren alkarrekin afaldu bear degu, Manuel.

— Zer dala-ta pentsatu dezu ori? Ni ez nijoa inora —erantzun nion.

Da arek:

— Badakit zerk ematen dizun kezka. Baiña ez bildurtu. Zure gastu guztiak nik ordainduko ditut, ainbeste merezi dezu ta. Are ta geiago esango dizut orain: Uztapide ta Basarri bertotan jardungo zaizkigu, zuri ainbat gustatzen zaizkizunak. Soiñu jo-

tzaille bikaiña ere antxe izango da, ta gau zoragarria pasako degu. Ni, erropak aldatu ta segituan banijoa. Eta zuk, ganaduen lanak bukatzen dituzunean, gauza bera egin: txukun antzean jantzi ta joan lasai *Txaltxa*-ren ostatura gaueko amarretarako. Ordu orixe aurrez izentatua afaltzen asteko, eta mesedez garaiz agertu ara, iñoren falta izan ez dedin.

— Bai, bai. Joango naiz —erantzun nion.

Ipurdiko ezurrean ostikoz jotzea aiñakoa bazala iduritu zitzaidan konbita ura, ta ukuilluko goraberak laixter konpondu nituen. Gero, erropak presatuta zeuzkan etxeko andreak, eta jantzi aiek. Aurregiari garbitu bat eman ondoren, jakiña, ta pozez beterik, abiatu nintzan Berdengillo baserritik Eibar aldera.

Nola ez? banekien afari ona izango zala. Baiña orduko nere ilusiorik aundiena zan Uztapide ta Basarriren bertsoak entzutea. Emen bakoitzak bere apizioari begiratzen dio.

Txaltxanea jatetxe sonatua ezagutu genduen guk urte mordoan. Oraingo berririk ezin nezake eman, ez dakit eta. Dana dala, jarraitu dezaiogun daramakigun martxari.

Nagusiak agindu bezela, amarrak baiño lentxeago antxe nengoen bearrezko lekuan, da zai neukan Joxe Antonio gurea.

Alaxe, beste askorekin batera, igo giñan goiko jangelara. Ordurako batzuk exerita zeuden. Betekada bikaiña artu zuen azkenerako, toki lasaia izan arren.

Asi zan, ba, jendea jaten eta edaten kupidarik gabe. Klase guztitik aukeran eramaten baiziguten. Ogiaren eskasiak ematen zituen kezkarik larrienak garai artan. Baiña ura ere sortu zuten nun edo nundik. Ederra gaiñera. Panaderoren batek egingo

zuen disimuluan edo ixillean lana dotore asko, ta gureztat ongi etorri. Afari zoragarria prestatzen alegindu zitzaizkigun *Txaltxa*-ren jatetxean, da denok kontentu alde orretatik.

Baiña bazuen jendeak pena dexentea, eta esango det zergatik. Uztapide bertsolariak joatea eziñezkoa zitzaiola abixatu omen zioten. Basarri bakarrik agertu; ta, azkeneko orduan, Asteasuko Joxe Lamitegi Ermuan bizitzen zanez, ura eraman da antxe jardun ziran Basarri ta biak.

Iru saio uste det egin zituztela, ta Basarrik bere garaian lotara aldegin. Entzuleak bertso geiago nai ta komeriak. Lamitegik gaita izugarria zeukan, berriz, kanturako. Ixildu ezin iñolako moduz.

Nik artean ez nuen ezagutzen edo ez nekien bere bertsogintzaren berri. Geroxeago, ordea, Ermuan saio batean biok parte artu bear izan genduen, eta antxe egin giñan alkarren lagun. Neretzat gizon leiala ta atsegiña zala ez daukat ukatzerik Asteasuko Joxe Lamitegi.

Beraz, berriz lengo ariari eltzera nijoa. Oraindik ez baidet pasadizo dana bukatu.

Koadrilla umoretsua bezin jatorra ikusi nuela arrats artan *Txaltxa*-ren jatetxean sekulan etzait aztu.

Afariaren gaiñetik kafeak eta kopakoak. Lenengo puru galantak ere etziran falta. Baiña azkenerako patar korrientea gutxitxo iduritzen jendeari, ta markakoa probatzen asi, ta ez dudan gaiñera. Botilla osoak eskatzen zituzten. Ango lagunarteko berotasun sanoak etzuen azkenik. Giro zoragarria ta pakea nagusi.

Ni pozik arkitzen nintzan. Baiña, orduak aurrera zijoazela ikusi edo konturatu zanean, perratzaile Joxe Antoniok esan zidan:

— Etxera joan bear degu, Manuel.

— Goazen, ba —erantzun nion.

Baiña jarlekutik jeiki giñanean, batek galdetu zigun:

— Martxa al dezute?

— Bai, biar goizean ganaduen lanetan asteko lo pixka bat egin dezagun.

— Ederki. Baiña emendik Berdengillora bitartean egarrituko zerate ta artu au biderako —esanez, artean erdi beterik zegoen botilla patarra eskeiñi zion Joxe Antoniori.

Besteak gustora kolkoan sartu, ta bagoaz etxe aldera kontu kontari. Alako batean atera du kolko-tik botilla:

— Tori, Manuel. Egin tragotxo bat —esan zidan—. Beingo z mozkortzea ez da izango pekatu, ta au ustutzea ohea da, alperrik galtzea baiño.

Alaxe, denbora dexente pasata, baiña botilla ustuta etxera joan. Biak egin genituen. Urrengo goizean beti bezela oetik altxa ere bai.

Etxeko andrea, zerbait jakin naiez, galdezka:

— Atzo afari ona al zan, Manuel?

— Bai. Oso ederra.

— Zer garaitan etorri ziñaten?

— Ez dakit. Gizonak esango dizu. Nik nagusiak agintzen didana betetzen det —erantzun nion, beste esplikaziorik gabe, motz-motzean.

Bestela anka sartu bainezakean errez, ta ez nuen nai.

Amona

AMONA zar bat ere bazan Berdengillo base-
rrian, len aipatzen dedan etxeko andrearen
ama, zintzo purrukatua ta biotz xamurrekoa.

Zenbat potaje goxo jan genduen arek jarrita?
Adierazten ez da erreza. Astez, babarrun gorria; ta
jai egunetan, berriz, zuria, txandaka. Biak dira
onak gaztearen sabelerako.

Amonatxo gaixoak bere bizitzako gora-berak
sarritan kontatzen zizkidan, denbora pasa geunden-
netan.

Lo ariñekoa izan omen zan beti. Gau lenean bi
edo iru ordutan poliki osatzen nunbait, eta andik
aurrera edozer uskerirekin esnatu, goizaldera
batez ere.

— Zartzaroak ekarriko zizun gaitz ori agian
geien bat —esaten nion nik.

— Bai. Gero ta gutxiago egiten det, baiña gazte-
tan ere ez nuen askoren bearrik. Etxe ontan gauez
ez litzake kanpotik barrura iñor sartuko ni kontu-
ratu gabe, arratoiaren antzera ibili ezean beintzat.

— Seguru zaude orretan, amona?

— Bai orixe —erantzun zidan.

Ala, ixilik gelditu nintzan, baiña sinistu eziñez, ordea.

Geienetan, igande ta bestelako jai arratsaldeak etxean pasatzen nituen, erromeri kontuak baztarre-ra utzirik. Amonaren esaera gogoratzen zitzaidan noiznai; ta, probatu naia neukanez, igande bazkalondoan, siesta egin da kontu kontari ari giñala, bururatu zitzaidan: “Beti etxe txuloan egonda zer aurreratzen det nik?”. Eta esan nion:

— Gaur illunabarrean, ukuilluko eginkizunak bukatzean, afaldu ta kalera joan bear det, amona.

— Arrazoi daukazu, Manuel. Ederki pentsatu dezu. Gaiñera, zure moduko gazteak antxe ibiliko dira.

Auxe erantzun zuen; da, nik lanak egiterako, afaria maiaren gaiñean jarria zeukan.

Jan, erropak aldatu ta martxa. Eibarren nere lagunekin bildu, kafetxo bat artu, kontu zar batzuk berritu ta garai onean erretira.

Berdengilloko sarreran aritzezko ateak tranga edo egurrezko krixketa aundi bat zuen, kanpotik irikitzeke, eskuleku ta guzti. Giltzarik ez.

Alaxe, beragana inguratu ta eldu nion krixketa-ri, jaso gora ta eutsiz bultza ateari. Barrura pasa ta poliki bezin xuabe itxi. Baiña kontuz, bestela zarata izugarriak ateratzen baizituen. Gero, anketako zapatak erantzi bertan, eta poxpoloa sutu, eskalletan gora igotzeko.

Alaxe sartu nintzan nere gelara, beste argirik piztu gabe. Oera ere bai ixil asko, amona esnatu etzedin.

Urrengo goizean, betiko garaian altxa. Neroni lenengo, egun artan beintzat. Ukuillura joan, beiak jetzi, esnea baldean nuela sukaldera. Ordurako amona gaixoa an ari zan gosaria prestatzen.

— Egun on! —esan nion, oitura gendukan bezela.

Ta:

— Bai zuri ere —erantzun zidan.

Orduan pentsatu nuen: “Au ez dek konturatu batere ni nola ibili naizen gauean”, eta segi lanean.

Ganaduen gobernuak bukatu ondoren, gosaltzera; ta bera asi zitzaidan galdezka:

— Atzo noiz etorri ziñan etxera, Manuel?

Orduantxe eman nizkion esplikazio guztiak, eta parrez geratu zan, gustora.

Arek etzuen merezi gezurraren bidez engañatzerik. Ain zan fiña. Ta nik, artean gaztea izanik, ez nuen baloratzen amonaren nortasuna zertaraiño-koa zan. Gerora jantzi naiz, mundu au ezagutuz eta bizitzak eman dizkidan estuasunez jabeturik.

Atzo baiño askoz ere ederrago ikusten det gaur emakume zimel ura, sukaldea betetzen zuen amona maitasuntsua.

Gauza gogoangarri pranko badet beragandik jaso. Ara emen aietako bat.

Eguerdi partean, sarritan nagusiak baiño len-txeago aldegiten nuen perratokitik, ganaduak gobernatzera. Geientsuenetan belarra eraman bear lenengo kanpotik, eta etxera iritxi orduko:

— Atoz sukaldera unetxo batez, Manuel.

Auxe izan oi zan amonaren deia, ta segituan ogi koxkorren bat ardo pixkaren batekin emango zidan, esanez:

— Artu auek aoa goxatzeko.

Etziran gaizki etortzen, bizigarri baizik. Eta orduan, sega, eskoara ta bizkar zama lotutzeko soka nerekin nituela, joan belardira ta berealaxe etxeratzen nuen janaria. Ganaduak kateetatik askatu, atarira atera ura edan zezaten, eta berriz barru-

ra sartu, bakoitza bere lekuan lotu, belarrez ganbelak bete ta, aiek jan bitartean, geronek bazkaldu.

Orrelaxe moldatzen giñan. Oso famili ona zan Berdengillon neretzat.

Jakin nai nuke amona arek zenbat neke ta sakrifizio egin zuen bizitzari erantzuteko. Nik andik aldegin nuenerako, larogei urte edukiko zituen, oker ez banago. Gorputza okertua ta auldua ikusten genion, baiña ixpiritu gordiña ta borondate aparta, lengo guraso zar askok zuten bezelaxe.

Lastima! Merezi duen garaian ez dakigu bakoitzari eskerrak ematen. Gero konturatzen gera, aiek pasa ziran erreka berean sartzen geranean, da larrialdia sentitzen degunean, eskarmentua nundik datorkigun.

Asto arra

DANA dala, guk Eibarren, perratokian, lana buruz gain erabiltzen genduen. Errian bertakoz aparte, kanpotik sartzen baitzitzaigun asko. Ermua, Mallabi, Elgeta aldeko ta Zaldibartik ere joera aundia zuen jendeak Eibarrera.

Beste iñun ez bezelako salmenta zeukaten an baserriko berdura, babarrun, patata, fruta, arraultza, oillo zaar, oillasko, esne ta gauza guztiak. Eta emakumezkoak abereak kargatu ongi ta eramaten zituzten plazara egunero. Azoka aberatsa ikusten omen zan Eibarren.

Ori zala-ta, ugaritzen zitzaigun guri ainbeste lan. Abasto eman eziñez ibili oi giñan, aldizka beintzat.

Goizean goizago jeiki bearako zuten oetik emakume aiek, nagitasun da perezak alde bat utzita noski, kilometro mordoska pasatzeko etsian eta almentsu, familietako ama leialak ez-ezik, neskatxa gazteak ere. Asto, zaldi ta beorrez beterik plaza guttia noiznai.

Perratu premian zeudenak, guregana eraman da an utziko zizkiguten argolletan lotuta. Beraiek plazako eginkizunak bukatu bitartean, perratzea nai

izaten zuten, da saiatzen giñan, gogotsu gaiñera. Opizioa ikasita daukaten bi lagunek lana errez menderatzen dute, ta eskuetatik kendu.

Egun bateko gertaeraz gogoratzen naiz tarteka oraindik ere. Mallabiko emakume gazte, lirain, dotore bat an dijoakigu presaka, asto arra trallan artuta.

— Egun on.

Da:

— Bai zuri ere —erantzun genion.

Ordurako beste lau edo bost asto bagenduzkan, eta ganaduak ere bai. Alaxe ari giñan berriketa gutxirekin, da emakumeak onela dio:

— Zuek lanez beterik zaudete, ta nik zai egoteko astirik ez. Plazara joan bearra daukat derrigor, saltzeko, ekarri ditudan jenero danak an utzita dauzkat eta.

— Segi lasai, ori orrela bada. Zu andik zatozenerako, guk astoa perratuko dizugu. Lotu ortxe argollari —esan zion nere nagusiak.

Alaxe lotu zuen, da korrika aldegin ere bai. Baiña gero komeriak. Asto emearen ondoan zegoela antzeman zionean, asi zan arrantzaka ta ankaz lurra txikitu bearrean. Aiek arnas otsak eta zala-partak asto arrarenak! Inun kabitu ezin da indarka zebilela, muturreko soka eten edo askatu.

Giro zan orduantxe arekin. An zeukan tripa azpian misilla galanta, disparatzeko prestatua. Asto emeak bizkar saskiak kendu gabe eduki ta beste eroa ederki aprobetxatu. Atzetik salto egin da bi besoak saskietan sartu ta lepotik ortzekin eldu.

Itoko zuela bertan uste genduen. Joan giñan, baiña nork libratu? Asto emeari lurra jo arazi zion berealaxe, ta ura oso larri ikusten zan. Arra gaiñetik kendu nai ta ezin. Aiek ixtillu klase zelebreak!

Alako batean nagusiak esan zidan:

— Zoaz barrura, Manuel, da ekarri ur pixka bat.

Pote zarra beteta eramán nionean, bota zion belarriko zulora. Bai laixter espabilatu ere asto ar baldarra, eta orduan lotu ongi lengo lekuan.

Baiña etzan ixiltzen. Arrantza ta eskandaloa ugari. Bost ankan zebillela zirudien.

Gero, perratzeko garaian berriz arro jarri zitzai-gulako, makillaren bidez bizkarreko batzuk eman genizkion, eta une artan gorde zuen bere misilla luzea.

Nik anketatik eutsi ta nagusiak josi zizkion perrak. Gaur baiño sasoi ohea neukan arren, ederki izerditu arazi ninduen.

Asto ikaragarria baizan. Edozein mando aiña bai aundiz, eta setosoz berdintsu. Arek jotzen zituen zartadak etziran txantxetakoak. Len ere sarritan perratua gendukan. Baiña egun artan bezin zakar sekulan ez genduen ikusi. Burua ta errespetoa, biak galdu zitzaizkion.

Bere jabea agertu zanean, esplikatu zion pasadi-zo guztia nere nagusiak, eta onela esan zuen emakume leialak:

— Ez naiz batere arritzen. Etxe aldean lan asko eragiten diogu, ta ez da gaizki portatzen. Baiña andik kanpora irten ezkeró, arriskutsua jartzen da, beste asto edo beorren bat ikusten duen bakoitze-an. Onen saltoak eta arrantzak ez dute azkenik. Guk ezagutzen degunez, ortxe ibiltzen gera sarritan, lotsatzeko moduan ere bai, iñork ezin du ixildu arazi ta.

Nik ere zerbait adierazi nai ta esan nion:

— Ori laixter ixilduko litzake.

— Nola? —galdetu zidan emakumeak.

— Eskatzen duena emanda —erantzun nionean, parre algara gozorik egin zuen.

Asto arrak udaberrian gaizto amorratuak izan oi dira, geientsuenak beintzat. Ez dakit zer gertatzen zaioten urte garai orretan. Oientzat erremediorik onena da gazte dauden bitartean txikiratzea. Bestela ez dago pakerik.

Kaleko abereak

EIBARREN kalez-kale zaldi ta beor galantak erabiltzen zituzten gerra ondorengo urteetan. Kamionak oso urri izanik, aberez baliatzen ziran erri barruko karretajeak egiteko.

Fabriketan edo tallarretan moldatzen zan makineri berria bezela, beste edozer tresneri merkantziz bialdu bear kanpora, ta orretarako estaziora nola eramán? Lau kurpillezko karro aundi batzuk zeuzkaten prestatu rik abere jabeak beraien kontura. Bildurgarrizko kargamentuak erabiltzen bazekiten. Sarrítan ikusi genituen alde batetik bestera zebiltzala. Abereak ere ez nolanaikoak. Aundiak eta ongi gobernatu ta zainduak gaiñera.

Eibarko estazioan espaloietan naiz eta toki lasaiak izan, danak leporaiño beteta egon oi ziran paketeriz, batez ere makina berriak, eta erori ta austeko arriskua zeukaten.

Gauza guztiak, berriz, egurrezko itxituraren barruan sartuta edo enbalajea eginda, bagoi itxietan bialtzen zituzten segurantzi osoan.

Baiña kanpotik zetorren materiala, ta beste aibat tresna ere, merkantziak ekarriko zituen dudarik

gabe; ta gero karroak kargatu ta abereen bidez eraman, estaziotik tallarretara bezela, ferreteri ta almazenetara ere noski.

Azken urte auetan ez dakit nola dabillen. Baiña Eibarren industria indar ikaragarrian ezagutu genduen guk. Ori zala-ta, lanez buruz gain beterik ibili bear derrigor, nola abereak ala aiekin zebiltzan gizonak. Diruari zegokionez, ongi irabaziko zutela koan nago. Baiña gastuak ere etziran txikiak izango, ta esan dezadan zergatik.

Egunero karroari tiraka, karga geiegi atzean duela, dabillen abere batek, gobernu ona eskatzen du, ta pentsua sendo eman bear zaio. Izerdi asko ateratzen baidu goizetik illunabarrera bitartean, da nekeak erasan. Beraz, merezi luke itxurazko tratementua, nere ustez. Bestela, nai baiño len jo lezake ondoa, ta kito. Ezertarako gauza ez dala gelditu.

Orduan zer jokabide dauka aberearen nagusiak? Lengo zaarra alperrik galdu bere zabarkeriz, ta berriaren billa joan norabait. Animali klase ori badaki ez duela utsaren truke iñundik ekarriko.

Eibarren orrelako kaso zelebrerik gutxitan gertatuko zan, ordea. Baba alea, lasto motza eta berdura ematen omen zizkioten oparo antzean. Udara partean belar freskoa errez billatuko zuten. Neguan kontuak.

Baiña guregana perratzeraz zijoazenean ikusten genituen nolatsu gobernaturik zeuden. Abere bikain da mardulak agertzen ziran benetan. Ez aztuta baztarrean egonak. Oiei ere errukia zor zaio-te, aragizkoak diranez.

Eta orain perra kontuetan sartuko naiz. Onek merezi baidu bere esplikazio labur antzeko bat.

Aipatzen ditudan abere aientzat burni soillez egindako perrak alperrik zirala adierazi nai nuke. Ormigoizko bideetan ez-ezik, arrizko galtzadak zeu-

den kale guztietan ere anak irixtatzen zitzaizkionten, oso errez gaiñera; ta iñun katiatu ezin da pausorik emateko konfiantzarik ez.

Baiña baziran beste perra klase batzuk gozoagoak. Azpitik burnia zeramaten. Saietsetan ere bat pestañak. Eta erdian uekoa edo utsunea. An goma espeziala sartuta jartzen zioten. Plazentziko Paskual Txurrukaren fabrikatan antolatzen zituzten perra auk. Galesti samarrak, baiña oso serbitzu onekoak abereen anketarako.

Ni sarritan joaten nintzan Eibartik Plazentzira perra billa, nagusiaren bizikleta artu ta presaka, goizean goiz. Etzan batere gustagarria ibillera ura, negu partean batez ere. Bildurgarrizko izotzak eta jelak egiten baizituen. Erreka baztar aietan egun guztian etzan eguzkirik sartzen. Nik, berriz, jazkera ere alamoduzkoa erabiltzen nuen. Eskerrak gaur baiño sasoi ohea neukan.

Dana dala, gomazko perrak ongi ajustatu ta josi ezkerero, bi illabeteetan iraungo zuten edozein zaldi edo beorren anketan, da nun-nai ederki ibiliko ziran abereak bildurrik gabe, ta orretzek balio edozer lanetarako.

Gerora ugaritu zitzaizkigun kamionak eta furgonetak, eta orduantxe sobratu zearo merkantzi ta abere guztiak. Erosotasun aundiak espero genituen, baiña ez dakit zenbat aurreratu degun.

Guk Eibarren demarako idi asko perratu bear izaten genduen. Noiznai baziran inguru aietan sari ketaren batzuk edo alkarren aurkako probak. Apizio izugarria nabaitzen zitzaion orretarako ango jendeari; ta Bizkai aldean, berriz, eguneroko ogia bezelatsu juzkatu zitezkean ganadu probak.

Eibarren bertan antolatzen bazekiten urtero sari ketak. Nik ere ikusten nituen noizean bein, nagusiarekin batera joanda. Baiña igandez egoki-

tzen ziranetan. Astez ez neukan astirik. Perratzailleak sarrera libre izaten genduen plazan. Etziguten ezer kobratzen.

Artikulu au berealaxe bukatzera nijoa, geiegi luzatu ez dezadan, iñoren aspergarri. Ez beste zer-bait adierazi gabe, ordea.

Nik gazte denboran ezagutu nuen Eibar, ez dago gaurkoarekin konparatzerik. Garai artan, baserriak txukun da garbi zaindu oi ziran. Laboregintza oso goi maillan zegoen. Arrate baillaran ikusten genituen gari sail zoragarri aiek datozkit gogora. Arto ta babarrunak ere bai; ta an bezela beste tokietan.

Ortik aparte, berriz, kaleko fabrika guztiak lanez leporaiño beterik aurkitu zitezkeela badakigu; eta gazte bakoitzak bere gustoko opizioa ikasi zezakean. Zer bear da geiago? Obe genduke gaur alako aukerak baleude noski.

Joxe Mari, igeltseroa

GAUR baiño umore obean bizi giñan garai aiek ditut oroigarri, naiz eta egun illun ugari pasatakoak geran arren. Danetik probatzea kome-niko zan nunbait. Alaxe gertatu da beintzat. Beraz, goazen aurrera.

Nik ezagutu nuen igeltsero zar bat, langille ego-kia bezin txukuna ta garbia. Ez nolanaiko narratsa ta zabarra. Artista utsa. Kapritxosoa, berriz, bera bakarra bezela juzkatzen nuen nik. Ixtimazio izuga-rria erabili zuen ainbat aldetan, erretiratu bitartean.

Sarritan xamurtasunez esaten zituen gauzak, bere iritziak agertzerakoan, Beingo batez onela zion:

— Igeltserotza oso errezten ari da, itxurak dira-
nez. Esku-erreminta onak aukeran daude edozerta-
rako, ta orrek asko laguntzen dio gizonari. Nik
ikusten ditut sarritan: joaten dira obrara mutil gaz-
teak ezer ez dakitela, eta berealaxe opizioaren jabe
egin. Ori pixka bat neurtu bearko litzake, lan klase
batzutan batez ere, segurantzi geiago izan dezan
bakoitzak, bere gain artzen duen eginkizunean.
Denboraren bidez eta ongi dakien maixuaren ondo-
an edo aldemenean jardunez eskuratzen dan gauza

dala badakigu ori. Ala ta guztiz ere, alde ederra nabaitu liteke langille batetik bestera. Berezkotasun aundia daukanari antzematen eta erakusten ez da batere zailla. Baiña alako artetsuak gutxi izaten, ordea.

Izlari egokia zan diodan igeltsero au. Egun batez, gogoratzen naiz, emen, Orioko kalean, biok alkartu giñan uste gabeen, eta segituan ostatura konbidatu ninduen: zerbait artuko genduela, presaka ez banenbillen alegia. Alaxe lagundu nion.

Baxo erdi bana ardo eskatu zituen; eta, eman zizkigutenean, tragoxkada egiñez kontu kontari geundela, sartu zitzaigun beste igeltsero gazte ezagun zelebre bat, eta ark ere borondate onez galdetu zigun ea zer nai genduen artu.

Baiña guk zurruterako gogo geiegirik ez gendukan eta ezer gutxi aski. Ortik aparte, berriz, ordurako arratsalde berandua edo illunabarra izanik, nik neronek beintzat gosea geiago sentitzen nuen egarria baiño.

Ala ere gizonari, bere eskeintza ixtimatzearren, bazo erdi bana ardo atera zezala agindu genion, mostradore barruan zai zegoen neskatxari; eta, sarritan bezela lan kontuetan izketan ari giñala, irten zitzaigun etxeakoandrea sukaldetik amorru bizian, eta onela deitu zion igeltsero gazteari:

— Aizak, kankaillu: noiz etorri bear dek gure etxeke lanak egitera? Ez pentsatu beti ire zai egongo naizenik. Nik laixter billatuko diat beste norbait, ik baiño azkarrago egingo dituen; eta or joango aiz aize freskoa artzera, betiko gaiñera.

Ori entzunik, xuabe asi zitzaion izketan beste errape lasaia:

— Ez asarretu, etxeakoandre, mesedez. Badakit arrazoi osoa daukazula, ta datorren astean ementxe ikusiko nazu, Jainkoak nai badu.

Orduan, nere lagun igeltsero zarraren erantzuna auxe izan zan, igeltsero gazteari eman ziona:

— Bejondaikela, mutil! Ik Jainkoa peontzara ekarri nai al dek edo zer arrazoi klase dituk oiek? Ire moduko askoren saltsetan sartzen baldin bada, bizitza ederra eramango dik gizarajoak. Utzi akiok pakean Jainkoari mesedez. Bestela ere naiko buruauste ta kezka edukiko duela uste diat, mundu bigurri ontako nasketa zelebrea ikusita noski.

Ateraldi zorrotza bezin dotorea, bueltarik gabekoa gaiñera, iduritu zitzaidan igeltsero zarrarena.

Nik une artan parre gozo egin nuen, beste aldera aurpegia jirata, aren izketarako moduari ta zeukan seriotasunari begiratu ondoren. Nola ez?

Izan ere, len, garai aietan, oitura izugarria zuen lurralde ontako jendeak Jainkoaren izena aotan erabiltzeko, batzuetan amorrasi ta biraoka zoritxarez, gauza itxusia ta zikiña dan arren.

Sarritan, konturatu gabe errezkeriz edo laiñezak eraginda esaten ziran narraskeri aldrebesak genituen oiek, ikasteko pentsatu bearrik gabekoak eta aztutzen oso zaillak. Gai ortan asko giñan errudun, garbiro aitortzekotan; eta gaur ere komeni baiño geiago entzuten omen da baztarretan birao kontu ori.

Beste era batera adierazteko, berriz, onela usatzen genduen Jainkoaren izena: goizean, kalean edo mendian, norbait ikusi orduko:

— Egun on, Jainkoak.

— Baita zuri ere; alaxe eman deizula —erantzungo zuen norbait orrek.

Arratsaldez berdin; eta, gauera irixtean:

— Gau ona pasa ta biar arte, Jainkoak nai badu —esango zion sukaldean gelditzen zanak.

Bertso saioetan ere, “Jainkoak laguntzen badit” esaera ugaria bezin ezaguna zan gure garaietan. Gaur oso gutxi aipatzen dutela uste det itz oieta-korik. Oiturak aldatzen diran seiñaleztat artu genezake diodan au gutzia; ta bertsolari bakoitzak bere jokabideak dituela erakusten du beintzat, eskubide osoz gaiñera.

Aspalditxoko kontua da. Adiskide aundi bati entzun nion:

— Orain Jaungoikoa eta gizona, biak berdindade, Lasarte —esan zidan.

Beraz, or zerbait gertatu izango da dudarik gabe. Nik ez nuen sinistu, baiña Jainkoa bera jetxi edo bestela gizona oso gora igo.

Egia aitortzekotan, auxe ikusten dala dirudi: alde guztietan gizonak bere burua oso aunditzat juzkatzen duela alegia. Ori adierazi naiko zuen nere adiskide arek, geiegizko esplikazio luzerik eman gabe.

Dana dala, nik ezer gutxi dakit eta ezin nezake ongi neurtu gizonaren nortasuna zertaraiñokoa dan. Baiña auxe pentsatzen det: diruzale izateak edo beste zerbaiten antsiak nastu arazi ezkerro, ez dala beti gustora biziko.

Ortik aparte ere gauza asko ezan litezke: guk, jauregi ederrean morroiak eta neskameak bere zaindari dituela eta paseatzeko egazkiña, barkua edo kotxea aukeran dauzkala bizi dan aberats ura ikusten degu aundi; ta egunero erropa zarrak jantzi ta izerdiz familirako ogia irabazten ari dan gizarajolari ez diogu eskerrik ematen.

Nor ote da bietan aundiena? Lanetik bakarrik jaten duenak eta iñori kalterik egiten ez dionak, ez al ditu Jainkoaren aginduak betetzen? Nik auxe derizkiot: emen txikirik sortu ez balitz, etzala aundirik ezagutuko.

Dana dala, lengo toki berean gelditzen geranez, ixiltzea obe dalakoan nago; ta Jainkoari, berriz, utzi dezaiogun pakean, nere lagun igeltsero zarrak gazteari esan zion bezela.

Orain beragana itzuliko naiz, etenalditxo bat egin ondoren. Joxe Mari zuen izena. Aspaldi illa da. Nik arekin benetako konfiantza artu nuen. Ain zan gizon irikia ta atsegiña, neretzat beintzat.

Gezurrari zion nazka izugarria. Gaur bizirik balego, entzun bearko lituzke mardulak. Orrek ez du urrialdirik. Egunetik egunera ugaltzen ari ote dan daukat errezeloa.

Joxe Mari zanaren ixtoriala berak kontatuta dakit, eta alaxe idatziko det.

Amairu urte zituelarik asi omen zan igeltserotzan ikasten, Bilbaon gaiñera. An osaba bat martxa aundian zebillena izaki lendik etxegintzan, kontratista sonatua alegia, eta arek beregan eraman illoba Joxe Mari ori.

Bakarrik ez; taldean zeukan igeltserorik onenaren ondoan jarri gaiñera lanean lenengo egunetik. Zer oberik mutil gazteari erakutsi al izateko? Emezortzi urte zeuzkanerako, aurreneko maillako opizialaren karneta eskuratu zuela entzun genion berari bein baiño geiagotan.

Ortik pentsatu genezake buruz oso argia zala, eta begiz urrutira lana neurtzen zekien artista aundi bat genduela gizon zoragarri au. Bai esku egokia ere.

Erremintak, klase danetakoak, aukeran edukiko zituen beartzen zanerako aurrez prestaturik txukun eta dotore kaja batean gordeta.

Ferreterian edo burdindegian zerbait erositako bakoitzean, neregana agertu oi zitzaidan. Gauzak kapritxoz eta ongi jartzea gustatzen baizitzaion, eta ori nik egiten niola badakit. Pozik gaiñera, bera alaxe portatzen zalako.

Gu bion artean etzegoen ezkutuko konturik. Baiña alkarri esaten genizkionak ixilik edukiko genituen, batek bezela besteak. Konfiantza osoa gendukan ortan.

Berez osasuntsua ta sendoa izan arren, azken urteetan suerte txarra erabili zuen Joxe Mari gizarajoak. Iru operazio egin zizkioten denbora gutxiren barruan, eta orduantxe urritu gorputzeko almenak eta zorioneko itxaropenak.

Gogoratzen naiz egun batez nola galdetu nion:

— Zer moduz zabilta, Joxe Mari?

Ta onelaxe erantzun zidan:

— Frakasoa besterik ez det ikusten, Lasarte. Nik txapela berriak egiteko faubrika martxan jarriko baldin banu, iñork ez luke jantzi naiko, ta mutiko guztiak edo geienak txapelaren bearrik gabeko buru klasearekin jaioko lirake seguru asko.

Ateraldi polita benetan.

Gazte garaian Bilbao aldean kontentu ibili omen zan bere osabaren babesean lanean, ordu asko sartuaz noski, baiña soldata ona irabazi ta itxuraz mantenduta, lagunarteko giro ederrean. Orrek etzuen gutxi balio urte aietan.

Larunbatak asteko beste edozein egun bezela omen ziran. Ez jai, gaurko antzera. Au da, sei egun lanerako ta zazpigarrena atsedentzeko. Igandea bakarrik libre. Guk ere alaxe ezagutu genituen emengo jokabideak, bereziki gazte denboran, baiña bai geroago ere.

Erriko pestak errespetatzen zituen jendeak, eta tarteka zetozen izen aundiko santuen egunak, igandez aparte; San Pedro, San Juan, Santio, San Migel, Ama Birjiña ta auek bezela beste asko. Erri bakoitzak bere zaindaria izaten baidu.

Azken urteetan, berriz, ostiral arratsaldez bukatzen dira aste osoko eginkizunak lantokirik

geienetan, eta larunbata jai izentaturik dago beraz, gauzak aldatu zaizkigunez.

Goazen lengo arrastora. Nere lagun igeltsero Joxe Marik sarritan esan zidan bere bizitzako unerik gozoenak Bilbaon pasa zituela. Baiña zoritxarrez, 1936-an sortu zan gerra nazkagarri arek ondatu ziola etorkizun guztia. Bete-betea arrapatu noski, ta iñundik iñolako askatasunik ez. Ori okerrena.

Euskal gudarietan ibili omen zan asieratik bukatu bitartean. Ixtori latzak kontatzen bazekien, beste askok ez-ezik, konfiantza zeukan tokian batez ere. Beingo batez auxe entzun nion:

— Guk naiko arma eskuetan izan bagendu, errez irabaziko genduen gerra. Bear aiñako laguntzarik etzigun iñork eman eta beste aldekoak nagusitu zitzaizkigun azkenerako, baiña ederki kostata. Egunez galdutako terrenoak gauez berriro eskuratzen genituen, edozer uskeriren bidez gaiñera. Fusillak eta munizioa eduki ezkeru, ta beste eskubonba batzuk, ez gendukan bildurrik.

Bere iritziak ark ere, gizarajoak. Baiña politika konturik etzitzaien gustatzen batere.

Berez gizaki aundia zan. Luzea eta zabala. Indartsu amorratuaren itxurakoa. Nolako sasoi ote zuen arek, gerrara eraman zuten garai artan? Baztarrak txikitzeke modukoa, nere ustez beintzat.

Bilbaon lanean jardun zaneke pasadizoak kontatu izan zizkidan garbi ta dotore. Ez obretako neke ta asteko goraberak bakarrik, ordea; baita bestelako jolasaldi, lagunarteko gozamenak eta astakeriz egindako parranda bildurgarriak ere.

Era berean, Joxe Marik etzuen ezer ukatzen eta gordetzen gezurraren bidez. Nerekin izketan asitakoan beintzat, benetako ixpillu bat ikusten nuen bere aurpegian. Luzaroan tratatu ezkeru, antzema-

ten zaio pertsonari zertsu kalidadetakoa dan. Biotz ederra bezin aberatsa zeraman petxuaren barruan zijoan alde guztietara, ogi opil biguna bezelakoxea.

Bilbaon bi lagun izan bear zituen bozeorako prestatzen ari ziranak, eta igande goizetan aiekin ibiltzen omen zan denbora pasa, artarako asmorik gabe noski. Baiña entrenatzen pixka bat asi ta azkenerako poliki ikasi berak ere.

— Zertarako, ordea? —esaten zidan—. Ori baiño opizio eskasagorik ezin lezake asmatu gizonak, Lasarte. Nik orduan sasoi ona neukanez, ostatur ostatu zurrutean goizetik asi ta geiegi edan eta narrasteko arrixkua zegoelako joaten nintzan nere lagun bozeolarietara. An borrokaldi batzuk egin eguerdira bitartean; eta uretan garbitu. Freskatu ta gero, bazkaltzera apetitu bikaiñarekin, sano asko. Edariak tripa utsean edo ezer gutxi gosalduta dagoenari erasaten dio errezena, ta jateko gogoa kendu sarritan, norbera konturatu baiño len. Ori probatu ez banu, ni ez nintzan bozeatzen ibiliko denbora pasa. Gorputzaren mesederako izanik ere ez baizitzaidan gustatzen batere. Baiña gaztetasunak edozertara eramaten du pertsona nunbait. Ortik aparte, berriz, bazegoen beste koxka bat ere. Bozeorako prestatzen zebiltzanak maite ninduten, lagunak giñalako; eta dotore gozatzen ziran ni zirikatuz edo ukabilkada batzuk emanaz. Sasoikoaren kontuak. Alaxe genbiltzala sortu zitzaigun gerra zikin mingarri ura, ta orduantxe aztu umorezko jolasaldi guztiak eta kito. Ara or gure ta beste askoren bizitza ipurdiz gora jarri gauetik goizera.

Auek esaterakoan, begiak negar malkoz bustitzen zitzaizkion gizarajoari. Nola ez?

Joxe Mari au bertsozale purrukatua zala ere badakit. Gogoratzen naiz illunabar batez. Kanpotik trenean etorri ta Orion jetxi ta etxera zuzenean nijoala, zubi muturrera irten zitzaidan, eta:

— Kaixo, Lasarte. Presaka al zera?

— Ez, gizona. Artaraiñoko estuasunik ez det. Zer nai zenduke? —galdetu nion.

— Ori orrela baldin bada, gaur biok alkarrekin afalduko degu —erantzun zidan—. Banekien kanpoan ziñala ta zure zai nengoen. Ortxe, ostatuan, angula fresko ederrak erakutsi dizkit etxeoandreak, eta aietako batzuk jango ditugu aspaldiko partez.

— Ez dezu gaizki pentsatu, Joxe Mari, ta pozik lagunduko dizut ortan —erantzun nion, ainbeste merezi zuenez.

Alaxe, joan ostatura eta, exeri orduko, an genduen bertako neskatxa serbitzaillea galdezka:

— Zer nai dezute?

— Ardo zar ona ta, arekin batera, angulak. Esaiozu etxeoandreari prestatu ditzala al duenik azkarrena Lasarte eta Joxe Marirentzat. Orrenbeste ulertuko du.

Auxe zan aren erantzuna, ta laixter genituen maiaren gaiñean bi kazuelatan, pil-pil oliotan irakiten zeudela, goxo asko jarritako angulak. Alaxe du grazia arrai fin orrek; ez erdi oztuta ta gero.

Afari zoragarria egin eta kontentu, pasadizo zarrak berrituaz. Guk ordu sailla errez pasatzen bagenekigun, alkarri arrazoi itxurazkoak emanaz, dotore bezin gustora.

Bertsolaritzari buruz ere jardun giñan, oiturarik galdu gabe.

— Gaur nun kantatu dezu, Lasarte? —galdetu zidan; eta esan nion, orain gogoratzen ez banaiz ere.

— Uztapide izango zenduen laguna, sarritan bezela?

— Bai. Uraxe nuen, ba.

Orduan onela dio Joxe Marik:

— Zuek biok ederki konpontzen zerate, Sekulan etzaitzuetet ikusi baldarkerian, batak besteari gaizki esaka; ta ori gauza atsegiña da, jendearen aurrean luzitzeko. Ez natzaizu zurikerian ari, Lasarte. Ezta gutxiagorik ere. Zuk badakizu nere berri,

— Publikoan entzule klase asko egoten dira, ordea; ta danen gustoko bertso saiorik iñoiz egin ote degu? —galdetu nion.

— Orixe ez da erreza. Baiña ezezkorik ez nizuke, ba, esango —erantzun zidan gure Joxe Marik.

Emen bakoitzak bere modura pentsatzen duela agirian utzi zuen garbiro ta diximuloan. Arek Uzta-pide maite izaki, ta Lasarte ere bai. Berak itxumena zeukan biotzeraiño sartua ta geiegi sinistea ez det uste ona danik orrelako gaietan.

Bertsolariak gorabera aundiak erabiltzen baiditu. Batzuetan errez asmatu lezake; ta, urrengoan, berriz, ezin ase jendearen egarririk iñolako moduz, norbera puntuan ez dagoelako edo abar.

Nik auek guztiak eta argibide geiago ere maiz eman nizkion nere lagun igeltsero jatorrari bertso kontuan, ez bera ezjakiña zala pentsatuaz. Asko entzuna ta ongi ausnartzeko almena baizuen. Argatik zeuzkan iritzi desberdiñak bertsolariei buruz. Baiña danak ixtimatzen zituen, bakoitza bere neurrian noski.

Ari etzitzaion bertso txarrik ontzat pasako, antzeman gabe. Deskuidoren bat bearko zuen ala gertatzekotan. Dudarik ez det ortan.

Gure garaiko bertsolari guztiak ezaguturik zeuzkan, eta bazekien nork nolatsuko moldea zeukan kanturako. Geienetan biok arrasto batera biltzen giñan erabakiak artzerakoan. Iñori etzion aitzakirik emango; ez baztarrera utzi ere; bakoitzari zor ziztzaion errespetoa mantentzen alegindu baizik.

Euskaldun sutsua, izlari egokia eta arinkeri gutxiko gizon argi leial bat iduritu zitzaidan beti Joxe Mari. Auxe da berari buruz nik edukitzen dedan uste bakarra. Ez, lagun urkoari edo beste norbaiti kalte egiten iñoiz ikusi baldin banu.

Baiña zearo bestelako jokabideak nabaitzen nizkion, ordea: neurririk eta azkenik gabeko borondate ona. Soiñean zeraman atorra edo alkandora erantzi ta edozein beartsuri emango ziola seguru bezela juzkatzen det, aren premian zegoela jakin ezkerro beintzat; eta ortxe dago pertsonaren aunditasun berezia, nere ustez.

Ainbeste tratatu genduen alkarrekin eta pena ikaragarria artu nuen gizon ura il zanean.

Beraz, onenbestean agur, Joxe Mari!

Xegundo, mutilzarra

ORAIN, lengo ari klasetsuari jarraituaz, alkarriketa bat berritu nai nuke, aspaldiko pasadizo zarra au ere.

Egun batez, Zumarragara joan giñan bertsotara Uztapide zana ta biok. An plazako saioa eguerdian bakarrik gendukan; eta gero, bazkalondoan, lagunartean kantatu bearra.

Baiña illunabarrean garaiz bukatu genituen lanak, eta Uztapidek Norteko trenan artu zuen etxera joateko. Oiartzunen nola bizi zan, Errenteriraiñoko bidea andik askoz ere erosoago egiten zitzaion

Neri, berriz, egokiago zetorkidan Urolako trenan Oriora etortzeko. Baiña Zumaietan gelditzen zan, eta an kostako trenan artu bear derrigor, Bilbaotik Donostira zijoana. Batetik bestera aldatu alegia Zumaiko estazioan.

Banaka ibili ta bakoitzak bere aukera aprobe txatu etxerako garaian. Orixe zan Uztapide zanak eta biok geientsuenetan erabiltzen genduen martxa, edozein erritan genbiltzala ere.

Beraz, goazen aurrera. Zumarragan kantatutako egun artan, illunabarrez Zumaira iritxi ta Urolako

trenetik irten nintzan orduko, estazioko jefeak alta-bozetik deitu zuen Bilbaoko trena atzerako aundia-ekin zetorrela, makinan aberia gertatu zitzaiolako, eta ordu erdi batean itxogin bearko genduela, gu-xienez ere.

“Ba ez dek arritzekoa! Geienetan badik orrek ipurdian zuloa!” pentsatuaz nengoela, inguratu zitzaidan gizon sasoiko bikain antzeko bat, aurpegiz oso ezaguna neretzat. Baiña nungotarra zan ez nekien, eta ez nion galdetu orduan ere ta len bezela gelditu nintzan.

Dana dala:

— Kaixo, Lasarte! —zion berak.

Ortik ekin genion alkarrizketari, eta galdetu zidan:

— Nunbait bertso saioaren bat al zenduten gaur ere?

— Bai. Zumarragan.

— Uztapide izango zenduen beste laguna?

— Bai, bai. Biok giñan.

Ori erantzun nionean, onela dio:

— Amaika txorakeri esanda ilko zerate zuek ere!

Ateraldi zelebre ura entzunik parregure ikaragarria sentitu nuenez, onela erantzun nion:

— Arrazoi daukazu ortan, adiskide. Baiña era berean deskuido galanta ere bai. Guk jendearen pozgarri eta ala komeni dan garaian esaten ditugu txorakeriak, norbaitek aginduta gaiñera; eta zuk jakin bear zenduke txorakeririk gabe pestarik ez dala iñun egiten. Alamoduzko gaiak jarri ezkerro, badakigu serio itzegiten ere. Gertatzen zaiguna da batzuek bertso sentimentalak nai ta beste askok, berriz, alaiak edo pikardizkoak; eta nun zer komeni dan asmatzen zailla.

Esplikazio auek entzun eta orduantxe pozik geratu zala zirudien gure gizonak.

— Egi ederrak esan dituzula garbi dago, Lasarte —erantzun zidan.

Ura ni zirikatzen ari zan, batere txarkeririk gabe, ordea.

Oraingoz bertso kontuak onenbestean utzi ditzadan, geiegi luzatzea ez baida ona; ta nere lagun zar baten ixtorietan sartuko naiz, aztu baiño len, aipagarri utsa iduritzen zaidalako batez ere.

Mutilzarra zan eta gizaki dotorea ezagutu nuen, puntako sasoia zeukan garaian. Xegundo zuen izena.

Euskeraren gurdia aretxek erabiltzen zekien urrezko kurpillen gaiñean, apain eta lore aberatsez jantzirik. Bera etzan konturatzen zeukan edertasuna zertaraiñokoa zan, eta nik ere ez nuen era ontan baloratuko, gaur modan dabillen euskera berria entzun ez baldin banu; 1992-an ari naiz idazten, jende irakurleak jakin dezan noizkoa dan.

Guk ikusi ditugu euskeraz mintzatzeko erreztasun aparta duten gizon eta emakumezko argiak len, orain bitartean. Eta aurrerantzean ere sortuko dira noski.

Baiña Xegundo zana bezelakoak oso banaka, nere ustez. Legorterik sentitzen ez duen iturri emankorrari ura bezin ugari ta errez zetorkion itz jarioa zeukan beregan.

Egun batez etorri zitzaidan Orioko nere lantokira, pixka bat edana ordurako, baiña buruz ongi artean. Atez barrura sartzearekin batera:

— Arratsalde on, Lasarte!

— Baita zuri ere, Xegundo! Zer zabilta?

Ori erantzun nionean, onela dio xuabe asko:

— Esango dizut, ba, izketan asmatzen badet, Gaur goizetik zurrutean asi naiz, eta geiegi egin, izan ere, nere bizio bakarra orixe da ta. Barkatu bearko didazu, itxura txarrean natorrela badakizu ta.

— Ez bildurtu. Nork bere buruari antzematen dion bitartean, gizona ez dago oso galdua, Xegundo.

— Egia da diozun guztia, Lasarte. Baiña ikusten nazu balantzaka nola nabillen, pauso txikiak emanez aurrera ta atzera. Bietara kargatu naizela uste det, eta orain au diximulatzerik ez dago iñundik iñola ere. Ni baserriz baserri morrontzan ibiltzen naiz beti, gartzetan opiziorik ikasi ez nuelako, eta bizimodu lotua daramakit. Kateko zakurra bezela, zai egoten naiz noiz askatuko, egunen bat kanpoan gustora pasatzearen; eta gaur aitzaki polita egokitu zait zuregana etorri al izateko, Lasarte. Segapikatzeko maillu berriak falta ditut. Ez dakit edukiko dituzun prestaturik edo emateko moduan.

— Bai, gizona. Badauzkat pare bat baiño geiago ere. Erakutsiko dizkizut, eta zerorren gustokoak aukeratu ta eraman. Ez baidira danak neurri berdinekoak. Batzuek kopa zabal antza daukate; besteak, berriz, estuagoa. Ortik aparte, luze-motzean badute alde dezentea. Gizon aundiari, lurrean exeritzean, belaunak goi samarrean gelditzen zaizkio; ta, zu ala zeranez, txungura luze antzekoa komeniko zaizu, sega belaunen gainean ongi asentatu dedin.

Asi giñan, ba, ikusten, eta berealaxe begiz jo zituen beretzako onak iduritu zitzaizkionak.

Grasa emanda neuzkan erdoitu etzitezen; eta trapu zarra pasa, ura kendu, kopak ongi garbitu arri leunaren bidez, paperean bildu, lokarriz lotu ta txukun jarri nizkionean, esan nion:

— Torizu, Xegundo. Auek erreminta bizi amorratuak dira. Segadenbora gutxian pikatuko dezu.

Baiña kontuz ibili, bada ez bada ere. Eguzkiaren berotasunak kalte egiten diote. Jelak eta izotzak ere bai. Beraz, zaindu; eta, ezeren okerrik gertatu ezkeru, ekarri lasai konpontzera. Beste enkargu au ere gogoan artu mesedez: bear ez dituzunean, zaku zar batean bildu eta umedaderik ez dagoen toki legorrean gordeta edukitzen alegindu. Eta neguko giro fresko edo gogorretan, sega pikatzen asi aurretik, maillua ta txungura biak suaren epelera urratu, An izerditzen diran garaian, busti egingo zaizkiote kopak, eta orduan trapu baten bidez kendu ezkotasuna, legortu alegia, eta ederki iraungo dute lanean. Bestela, otzak eragiñik, baliteke pusketa- ren bat botatzea, txungurak batez ere, mailluak ematen dion golpea gaiñetik bera artu bear izaten du ta. Ortxe dago arrixkua. Beraz, jakiñean gelditzen zera, Xegundo.

— Bai, Lasarte. Aleginduko naiz zure aginduak betetzen. Len ere urte mordoan erabili ditut, zuri erosita, sega-maillu dotoreak. Ixtimatzen nituen, baiña aurten galdu zaizkit. Goiz batez, ontzeko belar ebatera joan nintzan, eta nerekin eraman. Gero, amustu zitzaidanean, zugaitz azpian itzalean pikatu nuen, eta mailluak bertan utzi zoritxarrez. Eguraldi beroa zanez, presaka ibili giñan belar lanetan, eta azkenean aztu. Urrengo egunean falta ziran. Norbaitentzat egoki etorriko zan nere zabarkeria. Baiña ez diot gorrotorik. Berriak eskuratu ditut eta oso gustora nago. Auek zenbat balio duten esan zaidazu, Lasarte, mesedez, zorrak ordaindu ditzadan, etxe aldera lasai joateko.

— Ortarako ez daukazu batere presarik, Xegundo. Baiña ala nai badezu, auxe da oien prezioa.

Entzun orduko dirua eman zidan eta biok kontentu. Izketan jarraitu genion pixka batean:

— Zuen baillaran ermita berritu bear dutela entzun det, Xegundo. Egia al da ori? —galdetu nion.

— Bai noski. Alamo-dukko otsak dabil-tza. Premi ederra badauka. Aspaldian iñork kasorik egin ez eta orain gastu galanta. Teillatutik ura barrura sartzen omen da, ta santu gizagaixoak an daude supritzen. Aiek ematen didate pena, Lasarte. Ni neroni oso famili onean sartu nintzan, ori ez daukat ukatzerik, eta bapo bizi naiz.

Ateraldi polita! Orrelakoxe arrazoi dotore ego-kiak ziran Xegundorenak.

Beste gertakizun zeleb-re bat kontatzera nijoaki-zute, ontaratu naizen ezker-o. Arena baida au ere, ain zuzen.

Igande illunabarrez. nunbait bertso-tan izanda, Oriora iritxi nintzanean, baxoerdi bat ardo artzea pentsatu nuen etxera joan baiño len.

Alaxe, ostatus batean sartzeko atea iriki orduko, nor ikusiko ta Xegundo, mostradore aurrean zutik, puruari tiraka edo erretzen ari zala beintzat.

Baiña ez bakarrik. Bazituen toreatzaille ugari, ta danak zeuden, neurriak ongi beterik edo geiegi eda-nik, disputarako moduan. Emen bertako gizon aundi bat itz batetik bestera bultzaka asi zitzaion Xegundori, ezagutzen etzuelako seguru asko.

Nik orduan etxera aldegin nioten. Gero ez dakit zer pasa zan. Baiña Orion, lengo udaletxe zarrrean, bazan kartzela moduko zoko illun bat, eta erriko agoazillak an sartu gure Xegundo, arrazoiarekin edo gabe, min emango ziolakoan.

Besteak, ordea, lurrean etzan da lo seko lasai asko.

Urrengo goizean joan zaio agoazilla atea irikitze-ra, “asarre egongo dek gure apopilloa” pentsatuaz; eta esan omen zion:

— Egun on.

— Bai zuri ere. Alaxe opa dizut —Xegundok barrendik.

— Lorik egin al dezu batere?

— Bai. Oso ederki gaiñera, agoazil jauna. Premi galanta ere baneukan eta asealdi bat artu det. Au nere kalterako zala usteko zenduen zuk dudarik gabe; baiña mesede egin zenidan. Ixtimatzen dizut benetan, eta eskerrik asko. Berriz iñoiz atzo bezela ikusten baldin banazu, gauza bera eskatuko nizuke: otel ontara ekartzea alegia. Sekulan ez nintzan kartzelan egon, eta au ere probatu det suertez. Orain oso kontentu nago, agoazil jauna. Beti gogoran izango dedan gaua pasa baidet. Beraz, agur eta urrengora arte —esan da martxa.

Orrelakoxe arrazoi zoragarriak ematen zekien Xegundo mutilzarrak xuabe asko. Agoazilla guztiz arriturik utzi omen zuen. Gizon serioa zan arren, parrez lertu bearrean noski.

Ondorengo egunetako batean jakin genituen gauza auek, neri esplikatu zizkidana agoazillaren laguna baizan, eta berak esanda bezelaxe idatzi ditut. Baiña Xegundoren izketarako molde aberats purrukatua ezagutu nuen.

Arrantzaleak

ALDE guztietara begiratzen degun bakoitzean, eziña eta bildurra nabaitzen ditugu gure gizartean; galtzak bete lan jartzen dizkiguten bi gauza illun noski, ez gutxiago ta ez geiago.

Zerbait esateko gaia bear danez, arrantzale jendearen naigabe ta pentsamentu tristeak datozkit gogora une ontan; 1991-koak ain zuzen. Bera bai-zan nik iñoiz emen Orion ezagutu dedan urterik estuenetako bat mariñel gizarajo askorentzat, dudarik gabe gaiñera.

Negu luzea etxe zuloan edo erri barruan igaro ondoren, udaberria iritxi zala ta irten ziran itxasora, San Joseren opari aberatsak eskuratzeko asmoz eta itxaropenez beterik, urtero bezelaxe; eta lenengo egun batzuetan poliki arrapatu ere bai noski, antxoaz samarra adibidez.

Nik Orioko *Loretxo* deritzan ostatuan entzuten nituen askoren iritzi desberdiñak, denbora pasa joan da lagunartean, ez oso pozgarriak.

Kostera aurrera zijoan bezela, errezelo txarrez beterik aurkitzen genituen gure arrantzale geientsuenak. Astelen goizean edo bazkalondoan itxaso-

ratu eta ostiral arratsaldez etxeratzen ziran. Nik batzueri galdetzen nioten:

— Zer moduzko astea izan dezute?

— Oso eskasa, ta urrengoa ere alaxe espero degu. Ez da inun arrairik ikusten aurten, oraingoz beintzat; eta ori seiñale txarra da —erantzuten zidaten.

Etzeukaten deskuido aundirik. Txitxarroa ta berdela arrapatzen zituzten antxoaren partez. Baiña zertarako? Utsaren urrengo prezioan saltzeko edo, bestela, erregalatzeko.

Kosteraren asieran, urte batzuetan, antxoa txiki antzekoa arrapatu izan da, eta gerora aundiagoa, nik ez dakit zergatik, ez naiz itxasoan bein ere ibili ta. Baiña ikusi dedana esaten ari naiz, eta ori legezkoa omen da. Lengo arrantzale zar askori ala entzunda nago. Ez da neronek asmatua.

1991-an, lenengotik, antxoa aundia ta garbia agertu zitzaioten. Iraupen laburrekoa, ordea. Denbora gutxian agortu zala badakigu. Urte guztiak ez ditu berdiñak arrai klase orrek ere nunbait. Diodan au probatuta dagoenak jakin lezake ongiena nere ustez; eta itxas gizonak bildurra ta arrazoa biak batera zeuzkatela aitortu bearrean gaude.

Martxoan, San Jose astean edo andik laixter, gutxi gora-bera, ikusi omen zuten antxoa aundia, ta bapore batzuetara sarekada ederrak sartu ere bai noski, parean egokitu ziranak. Urrutixego zebiltzanak, ordea, utsik gelditu, zoritxarrez. Ori da penagarria: arrai aukerarik ezak ekartzen duen utsunea.

Len, garai batean, etzan orrelako eskasirik. Itxasora joan ezkerro, ontzi danak, edo geientsuenak beintzat, leporaiño beteta eramango zituzten, Donostiko portura bezela, beste noranai saltzera: Ondarroara, Getarira ta abar.

Baiña erosleak beraientzat aiña artuko zioten juxtuan: zenbat komeni zan, ainbeste. Geiagorik ez. Eta batzuetan sobratu egiten arraia, emen gusto guztiak sekulan ez diranez.

Ori izango zan orduko akatsa, ni oker ez bana-go: geiegi arrapatzen errez saltzeko, ta gero sobratutako ura errira ekartzen zekiten. Alperrik galtzea baiño obea zala-ta, emen bertako jendeari debalde edo utsaren truke eman gaiñera, etxera eraman da jateko.

Izugarrizko antxoa pillak ikusten genituen Orion, astearen azken aldera batez ere. Soro ta baratzetan asko banatzen zuen lanerako gogoia zeukan bakoitzak garai aietan, lurrarentzat ongarrri aparta baida berez arraia.

Kale inguruko baserritar batzuk baliatuko ziran aukera zegoenetan dotore asko. Ganaduak uztartu ta gurdiaekin etorri muellara. Zortzi-amar arroako tiñak bete leporaiño, gurdian artu ta martxa etxe aldera.

Agiñagara ere asko eramaten omen zuten, bate-lak kargatuta. Baita Oikinako Lore zanak ere kamionarekin etorrira.

Baiña diogun au antxoa txikia izan bear zuen, eskabetxerietan enpleatzen etzalako. Erosi nai ez iñork eta sobratzen zitzaiotena, adibidez.

Ukuilluko ganadu ta abereen gorotza edo zimaurra deitzen zaion ori ona dala badakigu sororako, alimentu aundia du ta.

Baiña noizean bein arraia jan erazten bazaio lurrari, ezagun izango du gero. An sortzen dan landare bakoitzak indar ikaragarrian jaio ta aziko baida.

Ori garbiro ikusten genduen orain berrogei bat urte, ta geroxeagoan ere bai, Orioko erribera bikaiñetan. Nolako arto ta babarrun saillak! Zoragarri utsak eta arritzeko modukoak.

Era berean, barazki gozoak ere. Emengo lur ondar nastuko oiek oso samurrak eta emankorrak izan dirala ez daukagu ukatzerik ezagutu ditugunak. Gaur, ordea, bizibidea aldaturik dagoenez, kaletar geientsuenak ez dute jakingo baratza lane-tan. Ez baizuten gaztetan ikasi atxurra erabiltzen, lengo guraso zar aiek bezela.

Dana dala, goazen aurrera. Arraia lurraren gustoko janari eder bat dalakoan egon oi dira probatu dutenak, eta ni neroni ere alaxe pentsatuaz nago une ontan.

Ainbat antxoa fresko saldu ezin da errira ekar-tzen zituzten urte aietan, soro ta baratza aldeak orain baiño obeki gobernatzen zirala esan bearrik ez legoke noski. Baiña ezjakiñean dagoenari ez dio bater kalterik egingo, nere ustez, albiste onek.

Ortik aparte, berriz, zer gertatzen zan adierazi nai nuke, eta auxe da: kale barruko zakurrak ez-
-ezik, katuak ere etxean edukitzen etzala errez izaten.

Arrai-zale purrukatua baida zakurra. Jaten asi ezker, lertu arte segiko lioke, eta gero kontuak. Gaitz egiten badio, tripako miñak sentitzen dituen garaian, isatsa ta burua biak makur asko dituela, larri bezin estu ibiliko da, bere sabelean dauzkanak kanpora bota bitartean zotinka.

Baiña ez uste izan beingoz eskarmentatuko danik. Etxean zulo itxiren batean sartu ta preso jartzen ez badezu, laixter joango da berriro lengo lekura korrika ta presaka. Arraiz sekulan ez da aspertzen zakurrik. Ori da gauza gogorra.

Eta katua degu beste bitxo bat griña ber-berekoa. Au sukaldean igoal asiko da gonbituka, emakumezkoak txartu arazi ta errietan dituela, batez ere arrai geiegi janik baldin badago; ta garbitu bear-ko ditu botatzen dizkion zikinkeri guztiak etxeko amak edo bestela alabaren batek, errespeto ederrean gaiñera, ixilik eta gustora ez bada ere.

Len nere lantxo ontan aipatzen dedanez, antxoa txikia, saldu gabe gelditzen zitzaiotena, soro-baratzetan banatzen zuten,

Orduantxe gozamina zakur eta katuentzat. Aprobetxatuko ziran ederki batzuetan. Baiña denbora gutxiko pesta izaten, ordea, ura ere. Goldez lurra jiraterakoan, azpira sartzen arraia ta andik ezin atera, naiz eta atzaparka jardun arren. Baiña animali gaizto auek beti pikardirako zai edo prest egoten.

Zer ote da inbidiaren suprimetua? Kristauetan ere ainbat bider nabarmendu dan gauza tristea.

Katuak, berez eiztaria izanik, asko balio du xagu ta arratoiak arrapatzeko, ta garbitasuna egi-ten daki etxe barruan. Ortik aparte, sukaldean kontuz utzi bera bakarrik. Bestela, kazuelan janari goxorik ikusten baldin badu, ark probatuko dizu lenengo.

Zakurra ere oso bearrezkoa da, baserrietan batez ere, etxe ingurua zaintzeko bezela, errespetoa jartzeko.

Baiña berriro lengo saillera itzuliko naiz. Bi animali auek antxoa jateko aspaldiko urteetan ez daukate aukera aundirik.

Ni Oriora 1954-ean etorri nintzan. Geroztik emen bizi naiz, eta bein ere ez det ezagutu 1991-an bezelako arrai eskasirik.

Gure mariñel gizarajoak suprituko zutela derizkiot galanki. Udaberrian antxoarekin zerbait espero ta neguko ekaitz gaiztoa bezin minkatza ta naigabetsua gertatu zitzaioten kostera guztia. Penagarria benetan orrelako bizitza estua, pentsatzen jarriko bagiña beintzat.

Astelen goizetik irten oi ziran batzuetan itxasora; eta bestetan arratsaldetik. Marea betean zegoen garaian joan bear derrigor. Bestela ur gutxirekin ez

baizeukaten Orioko barra sonatuan pasatzerik. Baporeak ondo jo ta bertan gelditzeko arrixkua egoten dala badakite, eta ori betiko kontua da.

Gu ere jakiñean gaude nolabaiteko sarrera ta irteera dirala orkoak. Nik erabakitzeko geiegi da; baiña konpostura txarra eduki lezake gaiñera, seguru asko. Lana pranko egiñez, arri pilla galantak bota dituzte barra obetzeko asmoz. Ala ta guztiz ere ez du esaten jendeak ezer aurreratu danik.

Beraz, goazen lengo saillera. Astelenetik ostiral goiza edo eguerdira bitartean itxasoan baztarrak miatzen ibilita, antxoarik billatu gabe etxeratzen zitzaizkigun sarritan gure arrantzaleak, edo oso gutxi arrapatuta beintzat geientsuenak. Banaka batzuk poliki osatu ere bai tartean, suerte onak lagunduta edo asko saiatuaren bidez.

Guk aurreko puntan dabiltzanak bakarrik ikusten ditugu, eta aiena gogoan artu, gero kontatzeko. Baiña ori ez da aski. Atzeko aieri ere begiratu bear genioke.

Nik entzun nuen egin zituzten gastu guztiak ordaintzeko aiña diru irabazi gabekoak bazirala 1991-n, antxoatako denboran. Ez dakit ala zan.

Egun batez, irratiz eman zituzten argibide batzuk; eta, ziotenez, aurreko urteko erdia baiño gutxi geiago arrapatu omen zuten. Toki ederrean zebiltzan itxas gizonak familia errez mantentzeko.

Udaberrian ementxe, Orion, Getariko adiskide mariñel zar batekin topo egin nuen aspaldiko parrez, eta izketan asi ta berealaxe galdetu nion:

— Zer moduz dabilta zuen erriko arrantzaleak?

— Al dan modura, Lasarte. Ez nai bezela —erantzun zidan—. Gauza berriren bat asmatzen ez baldin badu norbaitek, sekulan ezin liteke antxoarik ugartu iñundik iñolaz ere, nere ustez, atuna arrapatzeko ere orixe erabiltzen dute ta.

Arrazoi osoa zeukala iduritu zitzaidan aitona prestu ta leial arek. Jakiñean jarri ninduen lenez gaiñera zertsu zan arazo nagusia.

Atunaren janari ta engaiñagarri baida diogun ori. Beita deitzen zaiona eskuratu bear izaten omen da lenengo, au da, antxoa; eta udaberrirako utsune nabarmena ekartzen du, adibidez, orrek, azitzen uzten etzaiolako. Orixe dala arrazoirik garbiena esango nuke, batere dudan egon gabe.

Nik gogoan det orain dala ogei ta amazazpi bat urte, gutxi gora-bera, negu gorrian arrantzaleak nola ibili ziran itxasoan antxoa txikia arrapatzen. Bokarta deitzen genion, goxo aparta jateko, angulen pare esate baterako. Ixtimazio izugarria izaten zuen baztarretan. Asko ekartzen zuten; baiña errez saldu ta dirua sendo irabazi.

Garai artan oparo ematen baizioten bizigarri segurua itxaso aundiak. Baiña geroztik, pixkana-pixkana, indarra galtzen joana izango da, itxurak diranez; eta orain konturatu da jendea bat-bateko urri-aldiz edo azken urte auetako emaitza kaskarrez.

Emen komeri latzak ditu egunero jan bear dan ogia etxeratzeak. Bildurrez eta serio nabaitzen genituen gure erri ontako arrantzale gizarajo asko 1991-n. Ez baizan gutxiagotarako.

Baiña beste tokietan era berdintsuan edo agian okerrago zebiltzala jakingo zutelakoan nago. Aspal-diko esaera da, oriotarrak eta Getariko arrantzale trebeak arrapatzen ez badute ezer, arrairik ez dala billatuko itxasoan.

Beraz, zearo antzutu ote zan zirudien orrek ere garai artan. Ez urik, ez lurrik, ez zugaitzik eta ez bestelakorik ezin liteke iñun izan, beti emaitza onak eta ugariak dituenik, nere ustez.

Gu, berriz, noiznai zerbaiten faltan arkitzen geranez, oker txiki batek nastu arazitzen gaitu. Len,

mediku batzuek beintzat, arrai urdiña jatea galerazi egin oi zioten, errejimenean zeudenari batez ere. Oraingoz ez dakit zertaraiñoko neurriak artzen dituzten gai ortan.

Baiña badaudela derizkiot arrai urdiña oso ontzat juzkatzen dutenak. Osasuntsu dagoenarentzat ez da noski jenero txarrik, gustatu ezkerro. Erdi ipurdi dabillanak, berriz, berak antzemango dio zertsu duen kaltegarri gorputzerako.

Ni laixter konturatzen naiz, alukeriren bat egiten badet. Egunezko lasaitasuna ta gaueko loa, biak galtzen baiditut.

Dana dala, batzuek uste dutenez, len iñoiz aprobetxatu ez diran arrai klaseak jaten asi bearko omen du jendeak onez aurrera. Fiñetik aukera geiago sortzen ez baldin bada, bastoxeagoari iztimazioa etorriko ote zaion alegia.

Nik neronek ere gauza bera pentsatzen det, gerora begiratuaz. Zer da motiboa? Aspaldiko urteetan izugarritzko garbiketa egin dutela itxas alde ortan gure arrantzaleak.

Garai egokian neurri juxtuagoak artu al izan balituzte, gaur askoz ere aberatsago egon zitekean noski; baiña ori etzan erreza, eta orain berandutxo ote dan errezelotan daude geientsuenak.

Etorkizuna arrixku bildurgarrian ikusteak ekarriko zuen ori. Etsipenaren lazoan errez katiatzen ere dakigunak geranez, pentsamentu txarrak ugari dauzkagu buruan.

Zorioneko antxo! Eskabetxerietan ere etzuten lan geiegi erabiliko 1991-n udaberrian, emen bertako mariñelak arrapatuta beintzat. Kanpotik ekarri ta osatu ezean, ez dakit nola konponduko ziran. Eziña nagusi alde guztietan, pobreza gailendu ezkerro.

Orion badago eskabetxeri aundi bat. *Conservas Azkue* du bere izena, eta emakumezko asko enple-

atzen dira faubrika ortan. Jeneralean, antxoa freskoa erosi, ekarri ta barriketan, tiñetan edo ontzi jakiñetan, gatza bota ta gazitzen eduki oi dute, llenengo denboraldi luze samarrean, bere neurrira iritxi arte.

Eta gero, dagokion garaian, atera gaiñeko azala; burua, tripa ta ezur alperrikako zikin guztiak kendu, garbitu, legortu; fileteak egin eta azkenean olio fiñarekin lata itxietan jarri txukun bezin dotore.

Lata oiek makinaz antolatzen dituzte azkar asko egoki ta seguru, iñundik zirrikiturik edo arnasbiderik ez dutela. Artara ez baidu barruan dagoen antxoak usteldu edo galtzeko bildurrik. Luzaroan egon liteke bere galga modu batean sano ta ezetasun ederrean, kezkarik gabe jateko ta erosi nai duenari saldu al izateko.

Ortik aparte, nik entzutea dedanez, emengo uretan sortzen dan antxoak izugarri gusto ona omen du, ta estranjerira eramaten dutela uste det arrapazka. Itali aldera, batez ere, asko bialtzen zuten len.

Oraingo berririk ezin nezake ziurtasunez eman, ez diot iñori galdetu ere ta. Baiña ango bezeroak etziran erabat aztuko, seguru asko. Jenero itxurazkoari begiak luzatzen dizkio jendeak, prezio berdintsuan baldin bada beintzat. Gaur pobrearen egia bakarrik daukagu merke. Beste gaiñontzean, ezer ez.

Latako antxoarekin orixe gertatzen da. Ongi garbitu ta prestatzen ikaragarri kostatzen zaiotela badakigu. Dana eskuz moldatu bear derrigor, eta denbora joaten aurrera. Ortarako makinarik iñun ez baida sortu oraindik, naiz eta lan klase askotarako ugaritu zaizkigun arren baztar guztietan.

Gauza bakoitzari berea zor zaionez, merezi du egiazko aitormena kontserbako antxoak. Alimentsu bizi amorratua da ta ao sapaian gusto goxoa ezar-

tzen daki; ta ogi koskorren bat errez jan erazi gaiñera aulezia sentitzen duenari.

Egarria eman ere bai, gazi puntukoa nola dan berez. Ardoa edo txakoliña, bietan edozein edan lezake zalea danak. Ura baiño obeki etorriko zaio oietako bat.

Bazkari aundi samarretan, jatetxe sonatuetan batez ere, asieratik maiaren gaiñean jartzen dituzte antxoa latakook, beste gauza askorekin batera; eta bakoitzak aukeratu dezala bere gustokotik.

Amaiketakoa egiteko ere ez dira txarrak, ogi tar-tean sartuta. Orduantxe bai txakoliña edari egokia dala gorputza berotzeko ta indarberritzeko.

Baiña ortarako urdailla ongi eduki bear du pertsonak. Nik sarritan ikusi izan nituen, obretan lanean ibiltzen nintzan garaian, igeltsero ta bestelako mutillak antxoaz eta ogi bigunezko bokadillo goxoak jaten, zatotik trago ederrak egiñez.

Inbidi pranko ematen zidatela ezin ukatu. Alperrik, ordea. Nere barrengo errota kaxkar onek etzitu-tuen gogozko; ta, ori jakiñik, utzi pakean daneri ta kito. Alaxe asmatu gaiñera.

Nik ez dakit seguru esateko; baiña gutxi gorabera udazken aldera ekin oi diote jeneralean, udaberrian barriketan gatza emanda jarritako antxoak andik atera kanpora ta garbitzeari.

Langintza astuna danik ez dirudi berez; baiña urri samarra ta aspergarria bai noski: egun guztian zutik eta anka geldian, iñora mugitu gabe bezelatsu; zirazko mantalak jantzi; gomazko botak edo katuska luzeak ere bai; ta erdi bustirik antxe penatzen, txanpon batzuk irabaztearren, besoak eta eskuak bakarrik erabiliaz.

Emakumezkoen eginkizuna da ori, ta gizonezkoak baiño askoz ere azkarragoak dira orrelako lan ariñetan, eskuetako beatzak bigunagoak dituztelako.

Antxoa lata bakoitzean zenbat filete kabitu litezkean ez dakit, garbiro adierazteko. Baiña zortzi edo amar, adibidez. Geiago nekez noski.

Itxasotik ekarri berritan, prejituta bezela parrillan erreta, jateko zoragarri utsa degun arrai klasea da antxoa. Argatik, fresko dagoen bitartean, arrandegietara asko saldu izan dute gure mariñelak, gero an erosi ta etxera eramán dezan ala komeni zaionak.

Beste bat sardiña dala esan genezake aipatzea merezi duena. Au udaberrian, apirillean eta maiatzean, oso legorra omen da. Baiña ekaiñetik asi ta irailera bitarteko bolara ortan, grasatsua ta ezetasun izugarritzkoa. Parrillan erreta jateko, gozo aparta. Kanpotarrak, Oriora datozenean, asealdi ederrik artu oi dute.

Nik neronek sardiña eta antxoa konejua ta erbia bezelatsu juzkatzen ditut. Biak baidute alkarren antza.

Txitxarroa ta berdela ere ez dira nolanaiko jene-roak, kontuan artu bearrekoak baizik. Jendeak ez du auenganako ainbesteraiñoko arretarik jartzen. Ez dakit zergatik, baiña ongi ezagutzen ez dituelako seguru asko.

Emen itxas ixkiñetan bizi geranak badakigu oien berri; ta txitxarro zuria, batez ere, bere garai modu batean, parrillan errea baldin bada, janari gustagarria iduritzen zaiote probatu duten geientsueneri.

Dana dala, zorioneko antxoari jarraitu dezaio-gun, berriketa-aldi au amaitzera dijoakigunez.

1991-garren urtean ipurdiko latza eman zigula ez dago ukatzerik. Gure etxean ez da iñor itxasora joaten danik. Orrek ez du esan nai, ordea, batere supritzen ez degunik arrantzaleak irabazten ez dutenean. Erri guztian zabaltzen dira tristura ta naigabe beltza. Orion ez baida beste iñundik etorkizun aundirik, oraingoz beintzat, industririk ez dago ta.

Jakin nai nuke zenbat familian nabaitu zan nolabaiteko goibeltasuna. Aje ura sendatzen kostako dala derizkiot, aurrerantzean bat-bateko aldakuntzarik sortu ezean.

Nik dakidana auxe bakarra da: ezurretaraiño beldurra sartu zitzaizotela itxasgizon askori. Esaten ari naizen urte ontako antxoaren emaitza urria ta eskasa ikusi ondoren, ez det uste arritzekoa zanik kezka ta buruausteak ugaritzea, langillearen bizitzari begiratzen badiogu arretaz.

Dana dala, antxoa kontuak onenbestean amaitu eta atunari buruzko jardunaldi bat egin nai nuke, bidezkoa danez.

Aspaldiko urteetan ikaragarri lagundu duen arrai mota onek ere noizbait utsegin bearko zuen, eta 1991-an gertatu zan ori, ain zuzen. Frakaso bildurgarria izan zala badakigu.

Beti ari ziran batzuk esaten, noiz edo noiz atunaren utsunea etortzen baldin bazan, komeri politak ikusiko zirala emen. Bai asmatu ere ederki.

Itxas giro txarrak erabili zituztela ezin genezake ukatu, eta orrek kalte aundia eragingo ziotela bistan dago. Baiña tarteka oso onak ere egokitzen omen ziran adibidez.

Guk irratiz eta telebistatik entzundakoak dakizkigu. Egunero albiste berriak ematen baizizkiguten gutxi gora-berakoak. Uraren otz-beroa nolatsu zebillen ere jakiten genduen, eta ontzat artzeko modukoa ote zan iduritzen zitzaidan, nik gai ortan ezer gutxi ulertzen dedan arren.

Beraz, itxasoan krisis aldiren bat degu seguru asko; ta, ori pasa bitartean, supritu bearra daukate arrantzale gizarajoak. Auxe pentsatzen egoten nintzan nere kasa prankotan. Naiago nuke dana gezurra balitz. Baiña dudan nago, beste askoren antzera,

Sekulan etzan ezagutuko guztien gustoko urterik, onenera jota ere. Batzuk ongi, suertez edo abar; eta bajuxeagoko saillean gelditzen diranak mordoska aundi samarra. Ori betiko kontua da ta iñoiz berdindu eziñezko diferentzia gaiñera.

San Pedro pestak igaro ondoren, berealaxe presaka irten ziran Orioko arrantzale danak itxasora. Getaritarak, berriz, egun batzuk aurreragotik, beti bezela. Beste erri askotakoak ere bai, len antxoaren faltak utzitako zuloa atunarekin beteko zutelakoan, alaxe sinisturik.

Toki ederrean zeuden! Disgusto galantak artu ta nekea probetxu. Ara or bi gauza ezertarako balio ez dutenak. Ala ere, pazientziz eramaten zekienak asmatuko zuela uste det. "Urte guztiak ez al dira igoalak izango!" pentsatzea onena, ta segi aurrera aspertu gabe.

Bost illabete luze pasako zituzten itxaso zabalean, gaez eta egunez batetik bestera ibilian, atuna nun ikusiko ta aren billa.

Noizean bein agertzen zitzaizkigun erri aldera, arrapatutako arrai aleak porturen batean saldu ta gero. Batzuetan poliki ekarri ere bai; ta urrengo txandan, berriz, oso gutxi.

Ni ez naiz ari aurreko puntan ikusi nituen aien albisteak zabaltzen; ezta ere azkeneko maillan triste eta illun gelditu zitzaizkigunak naigabetu arazitzen, banaz besteko irabaziak oso txikiak izan zirala adierazten baizik.

Suerte ona edo txarra, bietakoren bat beti ortxe egoten da zai, ta datorkiguna artzera derrigorturik gaude.

Kostera itxurazkoa egiteko almena izan balute, negua etxe aldean lasaitasunez igarotzeko moduan zeuden gure arrantzale jatorrak. Urrango udaberrian berriro itxasora joateko pozezko animo bate-

kin gaiñera. Baiña batekoz bestera irten, ordea, gauzak zoritxarrez, eta etsipenaren tristura nagusitu ote zitzaioten errezelotan nago.

Mediterranean eta Azoresetan ere suerte txarra, adibidez. Bartzelona inguruan ibili ziranak, batzuk dexente moldatu noski, baiña beste asko erdi ipurdi gelditzeak emango zuela derizkiot zer pentsatua ugari ta jarraipenerako kezka galanki. Lastima!

Azoresetara, berriz, amabost bapore joan omen ziran Euskal Errikoak: Gipuzkoatik zortzi eta bizkaitarrak zazpi. Nik ala entzun nuen. Oker idatzi baldin badet, barkatu irakurle zeran orrek, mesedez.

Dana dala, ara iritxi orduko arrantzan asiko ziralakoan pozik, artaraxe joanak izanik. Baiña amarren bat egun portuan pasa omen zituzten geldirik, itxasoratzeko lizentzirik edo baimenezko paperik eskuetan etzutelako. Gero, gauzak zuzenduta, bakoitzak bere lanari ekin zorroztasunez. Animo geiegi ez, ordea.

Eguraldiaren aldetik ere, adibidez, itxasoa arro antzean ibilia izango zan, tarteka nik telebistatik entzun nuenez. Orrek etzioten mesede aundirik egingo noski. Galerazi geiago, lagundu baiño.

Zimarroia eta egaluzea, biak arrapatu zituztela zioten, baiña kantidadade txikia. Aurreko urteko erdia, gutxi gora-bera.

Amabost baporetakoak sozio ote ziran zabaldu zan otsa alde auetan. Nik ezin nezake ziur esan ori, ez dakit eta. Dana dala, jakin nai nuke zenbat diru kosta zitzaioten Azoresetako biaje neketsu ura, gasoilak eta olioak zeukaten prezioari begiratuta. Ortik aparte, berriz, ainbeste gizonen mantenuak eta abar.

Andik etorri ta berealaxe, mariñel batek onela zion:

— Gastuak ordaintzeko aiña diru irabazi baldin badegu, kitoan gelditzen gera.

Soldata bikaiña, arranek ezik, ainbeste denbora aztarrika lanean pasata!

Pixka batean etzan aztuko 1991-an arrantzaleak izan zuten frakaso negargarri ura.

— Datorren urtea ohea espero dezagun —esaten zuten batzuek—. Bestela, txarretik okerragora joateko arrixkuan aurkitu gindezke, eta ez dedilla orrelakorik gertatu. Gaiñontzean, gureak egin du, jaunak!

Eta nora jo bear du jende pobreak ogiaren billa? Armadoreak ere buruz gain kezkatu rik zeudela dudarik ez dago. Ez motiborik gabe. Zergatik? Galdera ortxe gelditzen zaigu zutik. Baiña badu berari dagokion erantzuna.

Gaur, martxan jarraitzeko, bapore txikiak ez du balio, oso urrutira joan bear izaten baidute arrantzara, ta ortarako segurantzia komeni daramaten ontziarekin. Konfiantza, alegia, itxas giro txarretan olatu zakarren astindueri eutsi ta uraren gaiñean irauteko.

Orrengatik, bapore zarrak luzatzen edo azitzen ari dira batzuk. Motorra ere indartsua jarri bearko zaio ta bildurgarrizko gastuetan sartuko da armadore bakoitza. Baiña orren berri jakin lezake, ezertan sartu baiño len. Zenbat kostako dan, alegia, gutxi gora-bera. Gero datoz emen kontu estuak.

Gasoilla urtetik urtera prezioz aldatzen dute, eta beti goraka dijoa, beste gauza guztiak bezelaxe. Motor aundiak ibilirako erreztasuna edukiko duela badakigu. Baiña asko erretzen, ordea. Ez gasoilla bakarrik; baita olio ere galanki, alde batetik bestera gelditu gabe dabillenean batez ere, ta arrai aukerarik billatu ezin danean.

Orixe egin bear: zoko danak miatzen alegindu, bada ez bada ere, ea nunbaitetik zerbait eskuratu ote litekean. Alperrik egotearen orde, saiatu beintzat. An ez da egongo bestelako jokabide erosorik

iñolako moduz, nere ustez, gure itxasgizon trebe apalentsat.

Au ez det esaten oriotarrak bakarrik gogoan ditudala, Euskal Erri osokoeri begiratuaz baizik. Geientsuenak alkarren antzera dabiltzala entzuten baidegu, larritasun bizi ta garratzari erantzun eziñez penatzen.

Zorioneko atuna, au ere kontserban jartzen dute eskabetxerietan, antxoa bezelaxe, lata txikietan eta aundixeagoetan berdin.

Lenengo, buru, tripa ta alperrikako danak kendu, kalderan egosi, gero andik atera kanpora, ta trontzoak egin, komeni dan neurrikoak; eta ondoren lata itxietan prestatzen da, nai dan tokira bialdu al izateko moduan, lasai ta segurantzi osoarekin.

Orion bada ortarako faubrika. Len geiago ere baziran; baiña gaur bakarra dago: *Conservas Azkue* deritzana. Onek kanpora bialtzen omen du asko aspaldiko urteetan: Itali aldera, nik entzutea dedanez.

Igaz ez dakit nola osatuko zituen bere bezeroak, arrantzaleak atun gutxi arrapatu zutelako. Baiña aleginduko zalakoan nago, modu batera edo bestera.

Atuna, berez, janari gozoa eta sendoa degu. Indartsu aparta gaiñera. Freskotan asko erabiltzen du jende osasuntsuak. Nik neronek ez daukat jaterik, erdi ipurdiko kalaxka bat naizelako.

Baiña len, garai batean, gustatzen zitzaidan atuna, itxasotik ekarri berritan, eta ara nola: patakastak nastu ta aiekin egosita neretzat onena. Marmitakoa deitzen zaiona da ori. Orion ostalariak gusto ederrekoea jartzen badakite. Bestelako etxe askotan ere bai noski. Ta familirako gastu gutxi du gaiñera.

Tomatearekin batera kazuelan prestatua ere oso atsegiña da, noiznai jateko urdaillerako astun samarra gelditzen dan arren.

Mariñel jendeak, berriz, atunetan dabillen garaian, aldiko ale batzuk ekarri ta etxean kontserban jartzen dituela uste det, kristalezko ontzietan sartuta txukun, urte guztirako aiña.

Beraz, onenbestean bukatu ditzadan 1991-ko antxoa ta atun kontu zelebregogoangarriak biurtu zaizkigunak; eta ekin dezaiodan aurtengo kosteraren berri ematen, ikusi edo jakinda nagoen neurrian.

1992-an ari naiz idazten. Bi urtetako goraberak guztiz desberdiñak, nere ustez, arritzekoa ez danez. Igazko tripako miñak sendatu diranik ez dirudi oraindik; baiña pixka bat konpondu bai noski.

Len garai batean baiño errezago jendea konformatzea ere baliteke agian. Ezer gutxi espero danean gertatzen da ori.

Aurtengo udaberrian alaiago sentitzen genituen itxasgizonak. Oso urrutira joan gabe asi baiziran, ain bearrezko zitzaieten antxoa zoriontsua arrapatzen, eta eguneroko ogia irabazten poliki ta mantxo, baiña seguru, ta artantxe jarraitu gaiñera.

Ez nuke esango punta-puntako arrantzak egin zituztenik. Ori ez. Aurreko urtekoarekin konparatu ezkeror, ordea, kontentu gelditzeko modukoak bai, nere iritziz, utsaren tokian gauza gutxik ere ongi luzitzen duela badakigu ta.

Bapore batzuetako mutillak partilla dexente samarrak jaso zituztela entzun genduen aurtengo udaberrian. Danak etzuten egokiera berdiña izango. Ortan dudarik ez dago. Baiña eziñean eta gaizki dabilleni antzematen zaio, ta artaraiño deskontenturik nik ez nion iñori nabaitu antxoa denboran.

Zenbaitek bezela galdezka jarduteko ere ez det oiturarik egundaiño, ta gero sarritan ezer ez daki-dala egoten naiz.

Baiña erri barruan laister zabaldu oi dira albiste onak eta txarrak: arrantzaleak itxasoan zer moduz

dabiltzan, zenbat antxoa arrapatu duten, zer giro daukaten...

Oiek guztiak irrati bidez jakingo dituzte etxean dauden familietan. Bapore bakoitzak bere irratia nola edukitzen duen, andik noiznai itzegin lezateke abixoa pasatzeko.

Ortik aparte, berriz, astearen azkenean errira datozenean, ezagun izaten dute aurpegian ere gustora ibili diran edo ez.

Aurtengoz, espero zan baiño kostera ohea ta animoz berritu, indarrez jantzi, esku arterako txanponak bildu ta modu askotara osatu. Orixe da udaberriko antxoaren bidez lortu zutena gure arrantzale ospetsuak. Premi ederra ere bazeukatela aitortu dezagun, ez da gezurra ta.

Lenengo asieran bildurta ziran, itxaropen aundirik gabe. Igazkoa gogoan artean, eta arek ematen kezka. Baiña pixkana-pixkana arrastoan sartu, ordea, etorkizuna ikusi ondoren.

Arraia billatu ezker, ongi prestaturik daudenez, sarekada izugarriak jasotzen omen dituzte bapora, eta *tasa* izeneko neurria berealaxe bete; ta orduan portura eraman bear saltzera.

Beraz, gaur ez dago len garai bateko konturik. Lau edo bost aste aski izan litezke kostera ona egiteko, antxoa aukeran baldin bada.

Dana dala, aurten poliki eman du, eta jarrai dezala ortantxe, guztion mesederako.

Orain atunarengana pasako naiz. Au ere oso presaka ibilia omen da, arrantzale guztiak atzetik segika dituela igesi, usoak bezela. Baiña ezin aldegin, kontrario asko baizeuden bere zai, ta lazoan eroritzen errez. Ori da suprimentua, bizitzen iñork utzi nai ezak dakarrena.

Aurtengo kosterari buruz zer esan genezake? Igazkoa baiño ohea izan dala, ez da zailla ere ta.

Lenengotik poliki asita, artan zebiltzan pozik. Baiña eguraldiak txarrera jo zuen, eta itxasoa dantzan jarri arazi, arrantzale guztien kalterako. Lastima!

Irailaren azken alderako ezkutatu zitzaioten atuna, bear baiño illabete lenago. Bestela, Santu Guzienak arte arrapatzen aleginduko ziran gutxienez ere, ta kostera itxurazkoa osatu. Baiña alperrik da. Itxasoa bigurritu ezkeru, ez dago zer egiñik.

Batzuk emen urre samarrean ibili omen dira, ta asmatu gaiñera erdiz erdi. Beste asko, berriz, Mediterraneora joan ziran, an aukera ohea espero zutelako. Baiña gaizki irten izango zaizkiote gauzak. Itxurak alamoduzkoak dira beintzat. Alde guztietan galtzak bete lan badegu oraintxe, ta aurrerantzean ere kontuz.

Nik egunkari batean irakurri dedanez, atunaren kostera oso urria ta desberdiña gertatu omen da, naiz eta igaz baiño askoz ere geiago arrapatu arren. Martxa eskasaren jabe ez ote gera?

Azoresetako kasoia datorkit gogora. Nola ez? Amabost bapore joan ziralara ara entzun det Euskal Errikoak, Gipuzkoa ta Bizkaitik. Zertara, ordea? Arrantzan asi ere egin gabe edo alatsu aldegin bear izan omen zuten andik, bertako agintariak galerazita. Golpe ederra da ori, pixka batean aztuko ez dana, seguru asko.

Gero Kanariasetan, Afrika aldean eta nik ez dakit zenbat tokitan iritxiko ziran, garbiro esplikatzeke. Jakin dedana auxe da: batetik bestera, gauez eta egunez, geldiunerik gabe ibilita, iñun ez dutela atunik arrapatu. Penagarria benetan gertatu zaiotena. Orrek ez du erremediorik. Agian eskarmenturako balio lezake.

Bildurgarrizko gastuak egin izango dituzte gasoilletan bakarrik; eta, gaiñontzeko gauzak aparte, baporeak ere pasada ederra artuko zuten, bueltan

errira etortzerako; ta ainbat gora-bera daude or, guk ez dakizkigunak.

Onezkero bakarren batek esango zuela derizkiot:
— Obe genian Azoretara joan ez bagña!

Emen Mediterraneo aldekoen berririk ezin neza-ke eman azken aldikorik. Batzuek zerbait arrapatu ote duten zabaldu da otsa. Baiña nik ez det ziurtasun osorik.

Dana dala, bukatu zaiote aurtengo atunaren pesta gure arrantzale prestu askori, eta orrenbestean bearko du noski. Eskerrak udaberriko antxoaren emaitza onari. Bestela, ixtilu gorriak ikusteko arrixkuan baizeuden.

Orain, negu osoa atsedenerako daukatenez, gozatu ditezela etxeko oe zurian lo egiñez, eta ea datorren urtean, 1993-an, suerte ohea izaten duten.

Martin Artano

ORAIN zaldibitar Martin Artanorekin asiko naiz. Gizon pusketa ikaragarria zan diodan au. Auskalo zenbat kilo zeuzkan beregan. Bertsozale purrukatua ere bai. Zaldibin jaiotzea aski dala esan genezake orretarako.

Egun batez, Loiolan eguerdiko saioa bukatu ondoren, bere etxera eraman ginduzen Uztapide ta biok bazkaltzera, naiko bertso entzutearren noski. Jangelan sartu ta maian exeri giñanean, onela dio Martin aundiak:

— Gaur arratsalde ederra pasako degu, gure andre onek bazkari itxurazkoa ematen badigu beintzat.

Alaxe, beste iru edo lau gizonetzko ere inguratu ziran, aurrez konbidatuta zeudenak seguru asko, eta etxeko familia.

Maia jendez osaturik ikusi zuenean, asi zan etxeko andrea janari gozoak eramaten. Baiña nola? Neurrik gabe. Danetik geiegi, nere ustez. Martiñek esaten zigun:

— Zuek ez al zerate gosetu edo zer gertatzen da emen? Ez gero lotsetan egon, komeni zaizunetik artzeko.

Arek naiko zuen berak aiña jatea beste guztiak. Eziñezkoa izaki, ordea, guretzat. Nik neronek apetitua eskasa neukan, eta Uztapide ere etzan jatun aundietakoa. Goizean gosari ona gustatzen zitzaion, ori bai, gero zurruta pixka bat egiteko. Moduan jarri alegia. Baiña bazkaltzeko garaian errez ase.

Martin Artanok, berriz, etzuen ordu txarrik jateko. Bere etxean alkartu giñan egun artan ere, sartu zituen baten parteak. Ura zan gozamina! Inbiriz egon nintzan albotik begira, "Ori dek edertasuna!" pentsatuz.

Sabel aldea ongi berdindu ondoren, kafeak artu ta bapo. Orduantxe asi zitzaigun bertso eskean. Bi edo iru saio egin genituen, eta kontentua. Zer oberik arentzat?

Gizon zoragarria zan Martin Artano. Izlari egozia, biotz xamurrekoa ta borondatetsua. Gauzarik bearrezkoenak berekin zituena.

Andrea ere bere antzekoa ote zan iduritu zitzaidan. Bi seme zituztela uste det, oker ez banago. Famili neurtua.

Beste bein gogoratzen naiz nola parranda egin genduen alkarrekin, Ernanira bertsoetara joanda. San Juanetan pestak izan oi dira an, eta ostegunetz feria plazan. Baserritarrez baztar guztiak bete ta gainezka zeuden.

Gu ostatu jakiñean geundela bazekiten jaialdien antolatzaileak; eta, ordua iritxi zanean, deitu ziguten: bertso saioa noiz asiko zai zegoela jende guztia, ta lenbailen agertzeko plazara. Alaxe joan giñan.

Oltzaduraren gainera igo orduko, konturatu zan Uztapide Martin Artano ta bere lagunak an zeudela, ta esan zidan:

— Lasarte, begiratu zak ezker aldera, ea nortzuk ikusten dituken. Oiek gure billa zebiltzak.

Alaxe izan ere. Bete-beteen asmatu zuen. Nik ez nion ezer erantzun, eta ekin genion kantu lanari gai librean eta mikrofonorik gabe, garai artan oi zan bezela. Baiña, ala ta guztiz ere, gaur baiño eztarri indartsuagoa neukan neronek ere, ta Uztapidek berriz ohea, ta ederki entzun arazten genioten, naiz eta jende asko egon plazan.

Gero, saioa bukatu ta bera jetxi giñanean, bildu zitzaizkigun Martin Artano ta beste dozen erdiren bat, danak alkarren antzekoak, esku emanez, gozo asko. Jai eratzailleak segituan ordaindu ziguten eskatu geniotena, ta libre andik. Nik etxera etorri nai, baiña alperrikako ametsa. Martiñek laixter esan zidan:

— Ez presaka ibili, Lasarte. Gu bi kotxetan etorri gera denbora pasa, ta eramango zaitugu Oriora, pozik gaiñera. Baiña, lenengo, Ergobira joan da gazta zarra jan bear degu, sagardo ona edanez.

— *Bueno*, ori baldin bada, zuen kapritxoa bete dezagun, da goazen.

Joan da ostatuan sartu orduko, pasatzeko jangelara. Aurrez prestatua zeukaten martxa guztia. Diximuloko tranpa, alegia.

Dana dala, pentsatu ta exeri giñan maian, eta bereala an dijoazkigu bi emakumezko, kazuela aundi bana eskuetan zutela. Zer izango ta legatza xaltxa berdetan jarria. Ura ikusi nuenean, galdetu nion:

— Aizu, Martin: au al da gazta zarra?

— Ez, Lasarte. Baiña gero ekarriko digute. Orain artu aurrean daukazunetik platera betean, da jan lasai.

Zortzi-amar lagunen artean garbitu genituen kazuelak, eta urrengo txuletak eraman zizkiguten. Neretzat alperrik, baiña baziran koadrilla artan apetitu ederrekoak, Martiñengandik asita. Arek bi

jan zituen, eta azkenean zalako gazta sonatua, postre bezela. Ura zan ase eziña! Ni arriturik egon nintzan begira.

Edariz ere ongi osatu giñan. Ardoa ta sagardoa aukeran, bakoitzak berari zegokion neurrian artu zezan. Zenbat botilla ustu ote ziran, afari bikain ura bukatzerako? Ala ere, iñori etzitzaion antzik ematen geiegi edanda zegoenik, izketan ari zala beintzat.

Kafeak eta kopakoak artu bitartean, lasaitasuna izan genduen guk ere. Baiña andik aurrera bertsoak bear derrigor. Bagenekigun nun geunden eta zergatik agindu ziguten. Garaian ekin genion. Kantari saiatu ere bai al zaneraiño, jendearen pozgarri. Lagun jator aiek dana merezi zutenez, pozik jardun giñala dudarik ez dago. Umore zoragarri ura etzegoen alperrik galtzerik. Martin Artanori auxe entzun nion:

— Gaur baiño arrats oberik ez degu iñoiz pasa. Baiña orduak aurrera dijoaz. Lastima!

— Zu bakarrik zaudela gustora uste al dezu? Lasartek geienetan presa izaten du. Baiña gaur etxera joatea aztu egingo zitzaion, neri bezelaxe —erantzun zion Uztapidek.

Orduan erabaki erretiratzea. Ni Rezola tasistak ekarri ninduen Oriora, goizeko irurak inguruan. Diodan Rezola au berez Bidani aldekoa zala uste det, baiña urte asko Donostin tasista zeramazkiena.

Gizon puska ikaragarria. Eun da berrogei kilo pixatzen omen zituen garai artan, nik entzun nuen. Kotxeari aurreko aldeko muturra ederki zapalduko zion berak bakarrik ere, barrura sartzen zanean.

Martin Artano, Barkaiztegiko Pello, Bodegoiko Joxe Mari ta auen koadrillakoak geiago ere ezagutu nituen. Baiña aien izenak etzaizkit gogoratzen

oraingoz emen idazteko, aspaldiko kontuak diranez. Burutik joanak dauzkat.

Donostiko Parte Zaarrean oso fama ona zuen len *Bodegon Joxe Mari* deitzen zitzaionak. Beti edo geienetan, jendez leporaiño bete ta gaiñezka ikusi oi genduen ostatu bikain ura, bertara sartzen giñan bakoitzean. Gaur ez dakit lengo esku beretan jarraitzen duen edo aldatua dagoen.

Dana dala, Bodegoi artako nagusia, Joxe Mari, Zestoako semea izanik, Uztapiderekin konfiantza aundia zuen. Biak lagunak eta alkarren maitale sutsuak zirala ongi dakigu.

Diodan Joxe Mari onen andrea, berriz, Aian Lokate baserrian jaiotako alaba zan. Emakume leial askoa. Arrigarrizko borondate ona zuten, nola andreak ala gizonak.

Joxe Mariren arreba, neskazarra, edadetu samarra, sukaldaritzan artista izan bear zuen. Kazuelkada gozoak jan genituen iñoiz arek jarri ta gustora. Emakume argia ta atsegiña iduritu zitzaidan beti uraxe ere.

Bi koñatak erabiltzen zuten ostatuko martxa. Batek sukaldean janariak prestatu, eta besteak jendea serbitu, neskameak laguntzaille zituela.

Martin Artanok antxe gosaltzen omen zuen egunero, ta ongi gaiñera. Lenengo, oillasko errea. Aundi samarra izan ezkeru, aren erdi partea. Txiki antzekoa baldin bazan, berriz, osoa. Ori jan da gero, gaiñetik gazta ona osagarritzat. Au ez det esaten beste iñori entzunda bakarrik, neronek ikusita baizik.

Goizetan goiz jeiki bearke zuen oetik. Beiak jetzi, aiek gobernatu, esnea ontzietan jarri, karroan sartu, zaldia lotu ta arre! Loiolatik Donostira ez da bide luzea, baiña egunero ibiltzeko naikoa. Gero, bezeroeri esnea banatzen denbora joango zitzaion dexente, ta bitarte artan gosetu.

Ukuillu aldean ere lana sendo egingo zuen Martiñek. Dozen erdiren bat bei antxe baiño ederragoak ez ditut etxe askotan ikusi. Zaldia ere bai bikaiña.

Azkenerako, itxututa geratu zan Martin Artano gizarajoa. Lastima! Tentsio altua edukitzen, da arek galdu begietako bista.

Emen aipatzen ditudan pertsonetan ez dakit zenbat biziko diran. Bodegoiko Joxe Mari gazterik il zan. Barkaiztegiko Pello ere aspaldi illa da, ta orrelaxe beste batzuk ere. Pena ematen du au gertatzeak, baiña lagun jatorrak badijoazkigu betiko.

Soiñujoleak

GAUR soiñujole onak asko ta aukeran dauzkagula Euskal Erri osoan ez dago ukatzerik iñolako moduz ere.

Batzuek diotenez, trikitixa nasten ari omen da azken aldiko urte auetan. Ori baliteke. Pixkaren bat berritzearren egingo zuten agian aldakuntza.

Nik soiñu txikia jotzen jarduten ziranak, artean ume nintzala ikusi izan nituen Naparroako Leitzan, erriko pesta egunetan. Gaiñontzean nekez.

Baiña andik Aiara bizitzera etorri ta laister, lenengo Elgoibarko Gelatxo zana ezagutu nuen, oraingo Gelatxo sonatu onen aita, San Juanetan, Andoaingo plazan ain zuzen.

Gure anaietako bat an ari zan lanean garai artan, eta arengana joan nintzan Aiatik bizikletan, ez denbora pasa. Enkargua entregatzera bialdu ninduten etxeakoak. Mutil koskorretako kontua da diodan au.

Ez nekien Andoainen pestak ziranik. Baiña, goiko plazara nijoala, antzeman nion, ordea, zerbaiten mugimentua bazala, ta antxe billatu nuen gure anaia.

Gelatxo soiñu jotzen ari zan, eta bere andreak laguntzen zion panderoa joaz eta koplak aidosoak kantatuaz dotore asko. Ura zoramena! Jendez leporaino beterik zeukaten plaza guztia, ao zabalik.

Artean altabozik inork etzuen erabiltzen soiñujoletan. Ezta bearrik ere. Urrutitik entzuteko moduko irrintzi garbiak atera arazitzen baizizkioten soiñu txikiari.

Ta, jotzen ari ziran bitartean, entzule danak ixiltasun osoan belarriak gozatzen erne; ta gero, bukeran, txalo-ots galantak. Jendea gustora dagoenean gertatzen da ori jeneralean.

Dantza librean ongi dakien gazteak, ederki eramaten du soiñuaren konpasa, ta alako jostailuari arretaz begiratzen zaiola badakigu.

Nik Andoaiñen Gelatxo ospetsua ikusi nuen arratsalde artan, ura zan gozamina! "Uste gabeko pozaren jabe egin nauk gaur!", pentsamentu orixe bakarra zebillen nere buruan bueltaka.

Ordurako edadez dexente aurreraturik zeudela ziruditen andre-gizonak biak ere. Baiña lengo talentuaren sustraia garbiro erakusten zuten.

Trikitixak beti berekin du bizitasun aparteko bat, bear bezela ikasi ta jotzen alegindu ezker. Izugarrizko berezitasunez eta erreztasun aundiz astintzen omen zuen Gelatxo zanak auspo soiñu txikia. Zerbaitengatik emango zion erriak ainbesteko garrantzia ta ongi merezitako sona.

Ortik aparte, berriz, gizatasunez ere jantzia ta ornitua izango ote zan iduripena daukat, eta orrek asko balio du jendearen aurrean luzitzeko, pertsona umilla alde danetan ixtimatzen da ta. Norberak bear errespetoa, beste batzueri jartzeko.

Diodan gisan, Andoaiñen Gelatxo bere andrearekin modu artan ikusteak zearo arritu ninduen; eta, andik egun gutxi barru, Elgeta zana ezagutzeko egokiera sortu zitzaidan, alajaiña.

Au koadrilla batek Aiara eraman soiñu jotzera, eta Kanoa jatetxean bazkaldu zuten, kanpoko terrazan. Ogei ta amarren bat lagun ziran, gutxi gorabera. Ez nituen kontatu. Baiña, eguraldi bikaiña zegoenez, barruko jangelan baiño giro obea kanpoko freskuran, eta kapritxoz antxe jarri arazi maiak.

Guk etxean esne bei bat edukitzen genduen, eta arentzat janari billa joana nintzan ni. Asteko eguna izanik, ezer ez nekien gaiñera. Gure ama zanak esan zidan sukaldera sartu orduko:

— Aizak, Manueltxo: perratokira nijoala, pasadan gizon mordoska aundi samarra ikusi diat Kanoaneko terrazan bazkaltzen, eta joan adi. Bat an ari dek soiñu jotzen, ikaragarri ona.

Gure ama bere alabak bialduko zuela pentsatzen det enkarguren batekin. Bestela, traba gutxi egingo zion arek perratokian lanean jarduten zanari.

Dana dala, amak ongi baiño obeki zekien neri zer gustatzen zitzaidan, eta argatik eman naiko zidan poza gaixo arek. Ortan ez det iñolako dudarik.

Itz aiek entzun nizkionean, ankak jaso nituen. Sasoi ederra ta umore bikaiña zeuzkaten Kanoaneko terrazan zeudenak, Elgetak batez ere. Ura zan soiñu txikiari itzegin arazitzeko modua txukuntasunez eta dotore.

Nik nai baiño len bukatu, ordea, pesta. An nengoan aotik lerdea botatzeko zorian gustora. Baiña gure koñadoak ikusi ta lanera joateko deitu perratokira. Orduantxe izurratu.

Kale aldeko ume jendearentzat gozamina izan zala ez dago ukatzerik. Geientsuenak inguratu ziran beintzat terraza baztarrera. Neri, berriz, sekula etzait aztu Elgeta zana ezagutu nuen arratsalde zoragarri ura.

Gero, andik urte batzuetara erriz erri bertsotan asi nintzanean, sarritan ibili giñan alkarrekin zorionez, eta badakit Elgetaren berri, dexente gaiñera.

Oso gizon atsegiña zalakoan egoten naiz berez lagunarterako, zakarkeririk batere gabekoa; eta, era berean, izlari xuabea bezin egokia ta patxarazkoa.

Kapritxoso amorratua ere bai noski. Lepo gaiñean esku pañuelo zuria jantzi oi zuen modu dotore askoan. Erdia alkandora edo atorraren azpira sartuta jarri txukun, eta beste erdia kanpotik, plantxatuta bezela gelditzen zitzaion. Beti pañuelo garbia erabiltzeko oitura nabaitzen genion, ez dakit izerdikorra zalako edo zergatik. Berak jakingo zuen ori ongiena.

Uda partean, batez ere egun askotarako soiñu jotzera zijoan bakoitzean, gauez kanpoko oe arrotzean lo egin bear derrigor. Arentzat txarrena etzuen iñork prestatuko noski; baiña, apaiñena izanik ere, manta, maindire edo izarak danak kendu ta berriro bere gustora jantzi oia, ta orduantxe etzaten omen zan, lasai lo egiteko moduan.

Bazeukan zerbaiten mania edo konfiantzaren eskasia. Gauza orrek ala du itxura. Nik neronek ez nuen sinistuko, norbaitek esanda bakarrik.

Baiña beingo batean gogoratzen naiz nola joan giñan Uztapide zana ta biok bertsoara bi egunetarako baillara txiki antzeko batera. Elgeta, berriz, bezperatik eramana omen zuten eta an zegoen.

Alaxe, pestari asiera emateko, guri eskatu ziguten bertso saioa; ta, bukatu genduenean, Elgetaren txanda iritxi zan. Arek soiñua astindu zuen oparo, ta bai jendea dantzatu arazi ere ederki eguerdira bitartean, geldiune aundirik gabe.

Berealaxe, maian exeritzeko agindu zigun ostatuko nagusiak, lagunarteko bazkaria prestatu baizeukaten baillarako gazteak. Ez nolanaikoa gaiñera. Klase askotako janariz eta edariz ongi ornitua zegoen maia, bakoitzak bere gustokoa aukeratzeko modu egokian, eta guk aprobe txatu. Nola ez?

Bein sabelak berotu genituen garaian, ixiliek egon eziña gendukanez, kantari asi giñan pozez beterik. Bai Elgeta zanak ere atera zituen kanpora barruan gorderik zeuzkan fandandorik goxoenak eta politenak, nere ustez. Bazkalondo atsegiñak sarritan pasa izan ditugu zorionez, eta uraxe ere aietako bat egokitu zitzaigun.

Gero berriro plazan arratsaldeko bertso-saioa egin genduen, eta andik aurrerako lanak Elgetaren kontu izan ziran. Soiñu jotzeko amorru bizian aurkitzen zala zirudien. Pieza bat bukatu orduko, bestearekin asten baizan, txalo-zaparrada galantak entzunez. Dantzarako zaletasuna zeukan gazte jendeari kendu zizkiola uste det anketako otzak, eta bera orduantxe kontentua.

Afalondoan ere ez giñan ixildu errezak, ez Elgeta eta ez gu. Bazan antxe soiñu otsa ta bertsoa aukeran.

Alako batean, ordea, lotara joan bearko zala ta ostatuko andreak esan zigun gela bakarra zeukala libre, bi oe aundirekin; batean bezpera gauean Elgetak lo egin zuela, ta ea gu bestean moldatuko ote giñan.

— Bai, emakumea. Lasai egon ortan. Lasarte ta ni alkarren ondoan lo egiten oituak gaude lendik ere —erantzun zion Uztapidek.

Eta bagoaz kontu kontari, artean gutxi itzegin bagendu bezela. Iritxi gera gelara ta asi da Elgeta oia dana askatzen.

— Zer asmo dek, Jazinto? —galdetzen dio Uztapidek—. Or ez dek arkakosorik egongo.

— Bazekiat ori, ta zuentzat arrigarri izan leikek au. Baiña ni sekulan ez nauk bestek egindako oian sartzten iñun, gaur emen bezelaxe askatu ta berriro nere gustora jantzi gabe —erantzun zion Elgetak.

Beraz, bakoitzak bere kapritxoak eta arrazoiak ditu. Errespetatzea mereziko dute gaiñera, iñoren kaltera ez badira beintzat.

Gau txori oietakoa genduen Elgeta. Era berean, gizon umilla ta lagunarterako paketsua ere bai noski. Koadrillan soiñu jotzen ari zala ta kontu kontari, denbora oso errez pasatzen zekiena. Bein ere erretiratzeko presarik ez genion nabaitu, gurekin batera ibili zanetan. Gaiñontzean ez dakit, nolako lagunartean sartzen dan ere alde aundia dago ta.

Batzuetan, aldemenean latoso antzekoren bat jartzen baldin bada, beste guztiak nastu arazi oi ditu, ta gozotasuna galdu. Edariaren indarra nagusitzean gertatzen da ori, deskuidoizko okerra ta zuzendu eziñekoa. Lo aldi luze samar bat egin ezke-ro, orduantxe sendatu. Bitartean, pestan dabilienak neurri juxtua zaintzea ez da beti segurua.

Elgetak ikusiko zituen orrelako gora-berak pran-kotan, guk ez-ezik. Zenbat pertsona klaserekin tratatu ote zuen? Auskalo!

Egun batez, denbora pasa geundela, lengo gerra aurreko ixtoriak kontatzen jardun zitzaidan. Eibar aldekoak gogoratzen zitzaizkion geienbat. Artean ere kafeteri edo alamoduzko saloi inportanteren batean ordu jakiñetan soiñua jotzeko konpromisoa arturik omen zeukan, berak aitortu zidanez. Ori, gauez; eta egunez libre, nai zuen tokira joateko.

Soldata ere ona ta, kontentu zebillen garaian, gerra zital ura sortu zoritxarrez, eta aretxek ondatu martxa guztia. Aztu eziñezko pena eman ziola andik alde egin bearrak entzun nion Elgeta gizarajoari.

Ni ez nintzan galderik egiten ausartu, zein etxe zan ain maitea zuena. Baiña Eibarren Untzagako plazan ezagutu nuen *Casa del Pueblo* deitzen ziotena. Baliteke bera izatea Elgetak ziona. Ura omen zan erriko etxerik sonatuena garai aietan.

Ez dakit, ordea, ostatua edo saloia zer zan, gar-biro adierazteko. Baiña 1936-ko gerratean erdi txikituta gelditua zala bai, ta alaxe jarraitu gaiñera ondorengo urte batzuetan.

Nik Eibarren lanean denboraldi dexentea pasa nuen, eta orduan *Casa del Pueblo* artan zerra makina argi indarrezkoa edukitzen zuten. Basoan pago zugaitzak erosi; ipurditik ebaki ta bota lenengo; gero soildu, adarrak kendu alegia; zugaitz gerriak kamion aundietan eramán *Casa del Pueblo*-ra; ta an neurri jakiñeko tabloiak egin da saldu.

Materialetarako baliorik etzeukan egur guztia, berriz, zerran txikituta jarri, sutan erretzeko. Garai aietan, gaur bezela gasik iñun etzegoenez, ixtimazio ikaragarria zuen egurrak, eta erostunak aukeran. Zenbat prestatu, ainbeste saldu errez asko.

Tratu klase ontako nagusiak Aian Urdaneta baillarakoak ziran lau soziotatik iru beintzat. Mutil batzuk erabiltzen zituzten lanean. Gure anaietako bat ere antxe ibili zan basoetan eta *Casa del Pueblo*-n.

Dana dala, sartu nadin lengo arira. Ni ez nin-duen batere arritu Elgeta zanaren samintasunak, Eibar ain erri aipagarria izanik. Euskadin aurrera-tuena bezela juzkaturik zegoela gerra aurretik ere lengo aitona zarrak esaten omen zuten, lan klase askotan beintzat. Parranda kontuan ere etzan azke-neko puntan ibiliko noski.

Ango jendearen jokabidea ez daukat aztua nik. Astez lana sendo ta pulamentuz; baiña larunbat gauetz eta igandez, pesta gogoan.

Beraz, Elgetari buruz jarraitu dezadan izketan, oraindik naiko gaia badago ta.

Eibarko irabaziaren etorkizuna galtzeak kalte aundia ekarriko ziola dudarik ez nuke jarriko. Nora jo etzekiela, salduta bezela geldituko baizan, beste askoren antzera.

Ala ta guztiz ere, eutsi, ordea, arek bere opizioari zintzo, ta segi aurrera. Soiñujole artista izaki ta ixtimazio galanta baztarretan; edo, obeki adierazteko, alde danetan.

Baiña ortik bakarrik ongi bizi al izateko aiña diru sortuko ote zan, bestelako lanik ezer egin gabe? Ortxe kontu estu samarrak, seguru asko.

Emen, soiñujoleak eta bertsolariak soldata txikia jasotzen zuten len gure garaian. Ori badakit, neronek probatu dedalako. Orain dabiltzanak ongi irabazten omen dute, eta opa diotet.

Baiña zer gertatzen da? Urte kontatuak daudela ortarako. Sasoia pasa ezkerro, gizonak ez du eskatzen zaionik ematen, eta kito. Azken motza.

Elgeta gazterik asi izango zan maixu lanetan, beste batzueri soiñu jotzen erakusten alegia. Adibidez, nik ez nekien, baiña Sakabi sonatuari ere berak erakutsi ziola geienbat entzunda nago, Epelarre, Laja, Maltzeta ta aueri bezelaxe.

Beraz, txanponak eskuratuko zituen, bearrezkoak gaiñera bizimodurako. Alperrik egotea utsaren pare baida, ta saiatzeak balioko zuen orduan ere noski, betiko antzera. Pobreaki etzaio musu truke iñundik ezer etortzen. Ori badakigu, gu ez giñan etxe aberatsetan jaio ta.

Elgetaren berri sustraitik jakin nai nuen, eta ara emen testigu edo lekuko bat, ezaugarri asko eman dizkidana: Balentin Aldalur.

Au zan Aian Zialtzeta baserriko semea. Aspaldiko urteetan Usurbilko Santuenen bizi da bere familiarekin.

Amasei urte zeuzkan garaian, Elgetarengana joan omen zan, soiñu jotzen erakutsiko ote zion galdezka; eta baiezko erantzuna jaso orduko, antxe kontentu noski gure Balentin mutil gaztea. Zer obarik beretzat?

Alaxe, aginduta bezela, Zialtzeta baserrira bertara agertu omen zitzaion Elgeta, eta lenengo bixita aldian iru egun pasa. Beste amasei ikasle bazeuzkala zai, ta aien lanak egin ondoren itzuliko zala berriro esanda martxa Elgetak, Balentin kezka bezetik utzita, "Etorriko ote da ori neregana?" pentsatuaz bere kasa.

Baiña alako batean an dijoakio Elgeta emandako itza mantentzera zuzentasunez, eta Zialtzetako sukaldean ordu ta erdi pasa gaiñera soiñu jotzen ixil unerik gabe. Sasoiaren egokitu nunbait gizon ospetsua, ta Balentin Aldalurren pozak ez omen zuen azkenik. Belarriak erne edukiko zituen maixu zarraren trikiti doiñu txukunak entzuten.

Elgetak egin zion bigarren bixita ura oparirik aundiena baiño geiago ixtimatu zuela esaten du berak, eta egun artatik asi zala bien arteko konfiantza ugaritzen. Gerozkoan oso ongi konpondu zirala beti.

Iru urte pasa omen zituen gutxi gora-bera Balentin onek Elgetarekin soiñu jotzen ikasten. Etzuen erakuslerik txarrena aukeratu noski, aitor-tu izan digunez. Maixu ona ta era berean zorrotza zala ere ez du ukatzen. Gauzak benetan artzen zekien itxura dago or, konturatzen bagera.

Azkenerako, gaitzak menderaturik edo eziñak etsi arazita Donostiko Zorroaga Miserikordira joan da an zegoela jakin zuten garaian, bere ikasle izandako soiñujole batzuk bildu ta diruz laguntzea erabaki danen artean Elgetari.

Ongi pentsatua, dudarik gabe, borondate onez zebiltzala erakusteko, ta txanpon mordoska osatu gaiñera; ta berealaxe badijoa aiek emateko asmoz Balentin Aldalur Miserikordira, eta galdetu dio moja bati:

— Emen al dago Jazinto Rivas?

Ala baizituen jatorrizko izena ta apellidoa, naiz eta denok Elgeta deitzen genion arren.

Dana dala, ori entzun ondoren, Misericordiko mojak onela erantzun omen zion:

— Zuk diozun Jazinto Rivas, atzo enterratua edo illobiratua da. Ereiñegun il zitzaigun zoritxarrez.

Orduantxe, buru makur eta serio, zer egin etze-kiela gelditu omen zan Balentin, eta mojaren galdera:

— Laguna al zenduen Jazinto? Edo zer zan gizon ori? Guk ez genduen ezagutzen.

Ara emen Balentiñen erantzuna:

— Zuek ez dezute motiborik izan Jazinto Rivas ezagutzeko, ikusten dedanez, Baiña esango dizut, jakin nai badezu: soiñujole ospetsu aundi bat zan. Euskal Erri guztian oso ezaguna ta maitatua. Ni ere soiñujolea naiz, eta berak erakutsi zidan, beste askori bezelaxe. Ta, asko ixtimatzen nuenez, gaur bixitatxo bat egin nai nion, eta denbora berean diru pixka bat eman gaiñera esku arterako. Baiña berandutxo nabil. Orain ez du bearko.

— Ez. Lentxeago etorri baldin baziñan, artuko zizun agian.

Au omen zan mojak erantzun ziona. Ta, izketan ari zirala, Elgetak erabiltzen zuen soiñua an ikusi Balentiñek, eta onela dio:

— Nik soiñu ori pozik jasoko nuke, zuek eskatzen dezutena ordainduta.

— Etxe ontan ez dizugu soiñurik salduko. Ez baida gurea. Baiña emen alperrik degu ta eraman zenezake lasai, orren zale bazera. Zuk egin bear zenduke Jazinto zanari meza bat atera. Uraxe izango litzake arentzat oparirik onena.

Ori esan zion garaian, mojari eskerrak eman, artu soiñua bizkarrean eta martxa Balentiñek Misericorditik.

Ordurako, golpe txarren batzuen bidez edo nolabait ere dexente narrasturik omen zegoen soiñua. Baiña artean, konpostura egin ezkerero, moldatzeko moduan noski, ta argatik eramango zuen Donostiko Larrinaga soiñu etxe sonatura.

Gero itzegin genezake gai ontaz zabalago. Orain lenengo garbitu dezadan mojak emandako aolkuak nola bete zituen.

Diodan albiste triste arek oso naigabeturik, Donosti aldetik itzuli zala ez dauka aztua Balentiñek, eta bere laguneri segituan telefonoz abixatu Elgeta nola il zan.

Baiña, ortarako, Donostiko Santa Maria elizara joan da meza bat enkargatu omen zuen lenengo. Elizkizuna zer ordutan ospatuko zan biaramonean esan ere bai, lagunak seguru jakin zezaten, bertara bildu al izateko; eta antxe agurtu omen zuten Elgeta maixu aundia, berarekin ikasten ibili ziranak alkar-turik. Bazioten maitasun berezia, itxurak diranez.

Sakabi soiñujoleari ere deitu zion noski Balentiñek. Baiña onek Azpeitiko Loiolako elizan atera izan bear zuen Elgetaren aldeko meza. Beraz, portatu zitzaizkion adiskide ta lagunak.

Balentin Zialtzetak, berriz, soiñua Donostiko Larrinaga etxean konpondu zuten garaian bereganatu ta gero, Aginagan konfiantzako baserri batera saldu zuela esan zidan, oso merke gaiñera; ta orain pena uraxe daukala. Baiña ez diruarengatik, Elgetaren oroigarri on bat galdu zuelako baizik.

Gordeta edukitzea merezi duten gauzak sarritan konturatu gabe saltzen diralakoan dago, ta arrazoi du ortan.

Ni arritzen naiz nola erabili zuen berekin, azken arnasetara iritxi bitartean, Elgeta zanak, bizitzeko ogia irabazten lagundu zion soiñu jostailu polit ura. Etzuen, ba, diru aukera izugarririk izango

esku artean gizarajo arek. Ala ta guztiz ere, ez saldu, ordea. Ainbesteraíño maite nunbait.

Dana dala, eskuz aldatu bazan ere, soiñua bizi da oraindik. Seguru dakit ori. Neronek ikusi bainuen mutil gazte batek zerabilkiela. Diodan au ez da kontu zarra. Zazpi urte dira, geienera jota.

Balentin Zialzetaren ustez, eta beste jakintsu askok aitortzen dutenez, trikitilari konpletoa edo ongi osatua zan Elgeta. Dantza librekoa jotzen ezin ohea; eta loturako, berriz, artista aparta adibidez.

Nik ez nekien orrenbesteko mailla zuenik. Baiña ala dirudite gai ortan ulertzen dutenen iritziak.

Len garai bateko auspo soiñu txikiak ogei ta bat botoi edo tekela omen zituzten, eta Elgetak beste bi geiago jartzea pentsatu. Nola ez dakit, baiña lenengo bere soiñuarekin egin omen zuen prueba, eta alde ikaragarria billatu, Arrezkeroztik gaur arte ogei ta iru botoi edo tekela dauzkate emen trikitilari guztiak erabili dituzten soiñuak, nik jakin dedanez.

Beraz, Elgetaren asmakizunak aurrerapen aundiak ekarri zituela ez dago dudarik. Au ere Balentin Aldalurrek esanda dakit. Baiña gauzak garbiro idatzita utzi nai nituzke, bada ez bada ere. Illara biko soiñueri buruz ari naiz izketan; eta berriro Elgetaren saillera itzuli nadin.

Azken urteetan iñora joateko gauza ez noski, ta animoz urri antzean ibili bearko zuen derrigor arek ere. Ara, zartu ezkeru, zer martxa klase datorkion pertsona bakoitzari: tristura ta penak nagusi.

Auspo soiñu txikia jostailu baten antzera mane-jatzen zuela badakigu bere sasoiari, erreztasun zoragarritz.

Egunean amalau edo amabost puru erreko ziruen, *farias* izenekoak gaiñera, bokillaren puntan sartuta, txukun bezin dotore.

Plazan soiñu jotzen ari zan garaian, aurrean dantzan zebiltzanak zaintzea etzitzai on aztutzen. Ala obeki alkartzen baiziran konpasaren barruan, guztiak batera bildurik. Ori gauza polita dala bistan daukagu, konturatzen bagera.

Dantza librean ongi zekitenak edo oituta zeudenak gogo biziz astintzen zituzten anak, Elgetaren soiñu otsera bildurik, zalaparta nastu gutxirekin. Garbi ta patxara ederrean jotzen zekienez, nola ez gozatu gazte jendea? Berez doai aparta zeukan gizon umil arek, ni oso oker ez banago, langintza artarako.

Penagarria da benetan irratiz beste soiñujole askoren trikiti doiñu politikak entzuten ditugula noiz-nai; baiña Elgeta zanak jotakorik alerik ez. Garai aietan magnetofonik ez izan iñun jasotzeko, ta aizeak eramanak orain falta. Lastima!

Len aipatzen dedan soiñu zar ura uste gabeko txoko batean ikusi nuen, beltza kolorez. Bi edo iru mutil batera asi ziran bazkalondoan soiñu jotzen, eta aietako batek zerabilkien.

Nik galdetu nion:

— Nundik sortu dezu soiñu ori, gazte?

— Au Elgeta zanarena da —erantzun zidan.

Ordurako antzemanik nengoen, baiña seguru jakin nai, zer gerta ere. Alde batera pozgarri biur-tu zitzaidan, bizirik zegoelako ainbeste lan eginda-ko tresna zoragarri ura. Baiña lengo jabearen eskuetan ikusi al izan banu, naiago, dudarik gabe. Emen ildakorik ezin piztu, ordea. Orrek ematen du pena.

Jazinto Rivas Sanz Donostin jaio omen zan 1906-ko otsaillaren 10-garren egunean, eta Zorroaga Miserikordian 1964-ko ilbeltzaren 30-ean sartu: ta, bertan zegoela il, urte bereko martxoaren 29-an, 1964-ean alegia.

Zorroagako *Patronato* edo ango zuzendari dan Nikolas Maestre Lasartek sekretario kargua eduki bear du, ta zertifikatu edo agiri au berak egiña da, 1992-ko abenduaren 22-an ain zuzen.

Nik, emen idatzeko, gauzak ongi jakin nai nituen, eta Balentin Aldalur Zialtzetak ekarri zizkidan argibide guztiak, eta eskertu nizkion biotzez.

Guk Elgeta deitzen genion Jazinto Rivas onek ez dakit bere gurasoak ezagutu zituen ala ez. Ezta ere nundik eta nola eraman zuten Intxuzabal baserrira mutil koskorretan.

Dana dala, geroago itzegin genezake Jazintori buruz, eta goazen aurrera daramakigun martxan.

Balentin Aldalur bera ere soiñujole ona izan da urte mordoan, eta erri askotan ibilitakoa, aspalditxoan ixilik dagoen arren. Zerk erretiratu arazi ote du? Zardadeak, dudarik gabe. Irurogei ta iru urte beteak ditu aurten, otsaillaren 12-an, 1993-an.

Aiako San Pedro baillaran, Ariztarrasu ostatu sonatuan, asi omen zan lenengo jendearen aurrean soiñu jotzen, bertako semea dan Joxe Azkuek panderoz laguntzen ziolarik.

Oso ixtimatua du diodan baillara au. Baita beste txoko asko ere. Adibidez, Asteasu, Usurbil, Errezil, Albiztur, Ereñozu... Aginagan, Espaldiberrin, gau osoak pasa omen zituen sarritan soiñu jotzen. Ernion eta Zelatunen ere sekulan aspertu gabea izan bear du.

Nik emen idazten ditut berak izentatu zizkidan banaka batzuk. Baiña auek bezela maite omen ditu ogibidea eman dioten erri ta beste baillara guztiak ere.

Donostiko *Goizaldi* taldean emeretzi urtetan segidan jo zuen soiñu txikia Balentin Zialtzeta onek, neri esan zidanez. Alemaniko Munichen ibili zirala zion, ez dakit zenbat aldiz. Orixen ez nion gal-

detu, gauza danak batera ez dira gogoratzen eta. Baiña euskaldun askorekin alkartu omen ziran Munich aldean.

Primi Erostarbek koplak kantatuaz panderoa jotzen zuenez, bera laguntzaille arturik joan zan Balentin Alemanira. Primi Erostarbe au Arantzazuko Araotzen baserri bateko alaba da berez, alai utsa ta pestarako apraposa.

— Mugaz aruntza, Frantzira ta abar, ainbat aldiz joanak giñan garai aietan. Oiartzun ere erri atsegiña izan da neretzat. Baiña ezta edo ezkontza egunak gustatu zaizkit geienbat, soiñua lasai ta gogotsu jotzeko —itz auek esan zituen Balentiñek.

Soiñujole ta bertsolariak geienetan alkarren inguruan ibili oi diranez, ederki uztartzen bagenekigun guk ere, noranai joanik. Eta, edozein kasotan, neretzat gizon leiala eta gozoa izan dala esaten ez naiz iñoiz aspertuko. Sekulan asarretu ta txarke-rian ez det iñun ikusi. Beti umore onean, edo alamoduzko itxuran beintzat.

Bi gauza garrantzitsu zeuzkan Balentin Zialtzeta onek bere baitan: batetik, alaitasuna, soiñujoleari eskatzen zaiona; eta, beste aldetik, seriotasuna.

Nik gazte denboran Aian ezagutu nuen, berak ni bezelaxe; ta geroztik biok lagun izan gera gaur arte.

Egun batez, Lizartzako Kaxiano itxuak onela zion, kontu kontari asita:

— Balentin oso trikitilari ona da. Soiñua errez eta egoki jotzen du.

Beraz, ez da ezjakin baten iritzia. Kaxiano bera soiñujotzaille ederra dala askok aitortzen dute Euskal Errian.

Nik neronek ezer gutxi dakit gai ortan, iñor neurtzeko. Bear aiña ez beintzat. Dana dala, au bere ontan utzi ta berriro lengo tokira bilduko naiz.

San Isidro egunez Elgoibarren baserritarrak jai zutela-ta, bertsoara eraman ginduzten. Eguerdian plazan saio bat eragin ziguten; eta gero, bazkaltzerakoan, maian gure aldemenean exeri ziztaigun Gelatxo zana, trikitilari sonatua izandako ura.

Bere garaiko pesta-kontuak berritu arazi genizkion, dexente gaiñera, ta pozik geunden entzuten. Nola ez? Ordurako gauzak aldatzen zijoazen, eta ondoan zeukan lagun batek onela galdetu zion:

— Aizu, Gelatxo: gaurko soiñujole oiek zer iduritzen zaizkizu?

— Nik ez diot iñori ezer kendu nai, itxuraz jotzen dakitenak asko dabilta ta. Baiña neretzat bi aukeratuko nituzke; bat Elgeta, dudarik gabe; eta bestea, Sakabi.

Itz auetxek esan zituen Gelatxok. Maixu zarraren iritzi apalak gureak baiño zuzenagoak zirala bistan dago. Bakoitzak bere opiziokoak neurtu lezazke ongiena, ta erabaki ura ontzat artuko zuen jakin miña zeukanak, seguru asko.

Nik neronek Sakabi Zarauzko Santa Barbara baillaran ezagutu nuen. Gure anaia Elkanoko Arbaztain-aundi baserrian morroi zegoen garai artan, eta arek abixatu zidan aurrez Sakabi nola zan joatekotan Santa Barbara egunez.

Alaxe, Aiatik oiñez jetxi nintzan Zarautzera goizean. Anaiari, berriz, nagusiak jai eman ziola ta zai neukan. Laixter billatu genduen alkar, eta berealaxe igo giñan gora.

Santa Barbara ermita mendigain politean dago. Altura dexentea daukanez, itxas aldera bista bikaiñak daude andik. Denborale bigurrietan, ordea, erauntsiak bete-betean arrapatuko duela derizkiot. Gu izan giñan egun artan, eguraldi ona egokitu zitzaigun.

Sakabi sonatua soiñu jotzen asi zan garaian, ango jendearen dantzatu bearrak etzuen txantxarrik. Pozaren itxumenak eraginda, danak saltoka zebiltzala ziruditen. Pieza bat bukatu orduko, bestearen eske neska ta mutillak, udaberrian txoriak bezin kontentu. Alaitasuna gainezka ta iñor asper-tu ezin.

Ori, goiz-partean. Beranduko bazkaria seguru samar izan oi da alakoan. Konturatu gabe orduak pasatzen dira, ta gustora dabiltzanak ez baidiote erlojuari begiratzen batzuetan.

Guk aldegin genduen eguerdiko pestaren bukaer-ran. Baiña arratsalde etzan mugimentu txikiagoa jarriko noski Santa Barbara inguruan. Sabelak ongi berotu ondorenean, giroa ere sutu edo piztu egin oi dala badakigu.

Goizetik Sakabiren lanak gazte guztiak zoratu arazi zituen, nere ustez. Ura zan soiñua jotzeko postura! Sasoi eta gogoa, biak zeuzkan batera laguntzen ziotenak.

Ortik aparte, mendi erromeri sanoak indar aundia zeukaten urte aietan. Geroxeago ere bai. Azken aldi ontan urritu zaizkigu.

Gaztediaren eskuetan egoten da etorkizuna, ta aldakuntza izugarriak ikusten ari gera. Ez da bate-re arritzekoa gainera moda berrien billa ibiltzea, gaurko munduari begiratzen badiogu.

Baillara ta erri txikietan umeak eta zarrak besterik ez da gelditzen jai egunetan, entzuten degunez. Elduak edo sasoi betean aurkitzen diran guztiak, martxa al duten tokira.

Garai bakoitzari, dagokion bezela erantzun bear-ko zaio noski, dudarik gabe. Trikitilariak maite zituzten lengo erromeri klase aiek.

Sakabi ta Elgeta jakin nai nuke zenbat mandio edo ostatutan jardun ziran soiñu jotzen, plazetaz

aparte, besteak beste, biak ain sonatuak izanik, eta lagunak gaiñera. Alkarrekin ondo konpondu ta gizatasuna erakutsi. Orixe da jokabiderik garrantzitsuena, nere ustez.

Aiako San Pedro baillaran Ariztarrasu baserrian nik beti ezagutu det ostatua. Etxe aundi bildurgarria da, ta beko sarreran aurreko aldetik dauzka sukaldea ezkerretara ta jendea serbitzeko mostrodorea eskubira.

Ortik aparte, berriz, jangela eder bat an dago etxe zarrari erantsi ta egiña, orain dala urte batzuk. Diodan etxe orren atze-partean ukuillua daukatez, esne beiak eduki izan dituzte, eta txekor aragitarakoak ere bai. Len jangela goiko solairuan zan, barrendik eskaillerak zeuzkala igotzeko ta jexteko.

Erromeria edo pesta izenekoa ere bertan antolatzen zuten, neguko eguraldi txarretan batez ere. Sala aundia zuen Ariztarrazu baserriak. Batzuek mandioa deitzen diote salari.

Dana dala, erromeria urteko iganderik geienetan izan oi zan len: giro onean kanpoan eta bestelakoan barruan. Oraingo berririk ez dakit, ziur esateko; baiña uste det jarraituko ote duen.

Jatetxe sonatua daukagu gaur Ariztarrasu. Antxume errea gustatzen zaionak, antxe aurkitu lezake aukeran.

San Pedro baillaran beste jatetxe on bat bada, aspaldikoa gaiñera. Ain zuzen, Olaetxe du bere izena. Onek ere lan asko erabiltzen duela entzuten da.

Bi ostatu auetan trikitilariak beti bazuten zer egiña gure gazte denboran. Igande arratsaldez prankotan jetxi giñan Aiako kaletik bera oiñez. Baiña goazen lengo saillera.

Sakabiri Egañazpik laguntzen zion panderoz eta kantatuaz. Bikote famatua ezagutu degu diodan au Euskal Errian ainbat urtetan. Gaur oraindik irratiz

ematen dizkigute auen soiñu ta kantu dotoreak, bein ere aztu ta baztarreratuko ez diranak, seguru asko.

Trikitixa berez aberatsa omen da. Orretzek eutsi diola bizirik dantza libreari gure lurralde ontan uste dutenak badaude. Erri aundietan batekoz bestera, ordea: musikeroak nagusi ta dantza lotuak iraundu indarrean. Oitura desberdiñak eta errespetatu bearrekoak, dudarik gabe.

Sakabi gizon atsegiña zan lagunarterako. Egañazpik ere alaxe aitortu oi du, ta alkar ezagutzeko motiborik aski izan dutelakoan nago. Umore paketsua ikusten zitzaion. Bere lanetan, berriz, serbitzala, ta serio aparta. Juergista bikaiña ere bai, gauzak garbiro esatekotan. Alamoduzko ofizioa baizeukan.

Baiña gau bateko loa zabarkeriz edo zerbaiten aitzakiz galdu arren, biaramon goizean etzion iñork antzik emango, aurpegira begiratu utsarekin beintzat. Nork bere pekatua disimulatzen asmatzeak asko balioko du emen noski.

Aiako Altzola baillaran gertatu zitzaigun kasoa kontatuko det orain. Aspaldiko zarra da, ni soldadu joan baiño lenagokoa ondotoz ere.

Altzolako gazte jendeak pentsatu zuen pesta bat antolatzea, eta neregana joan ziran Aiako kalera: Sakabiri abixatu ziotela; arek baiezko itza eman zuela; Uztapide ta ni nai ginduztela bertsoarako, ta ea libre ote geunden galdetu zidaten.

— Nik egun ortan ez det iñungo konpromisorik, eta Uztapiderena laixter jakin genezake —erantzun nioten.

Alaxe, deitu nion eta libre zegoela.

Negu kontuak sarritan oi diran bezela, elurretara jo eguraldiak, eta Uztapide Zarauztik oiñez igo zan Altzolara, busti samartuta. Ni ere bai Aiatik. Baiña gero kendu genituen otzak.

Egun osoa gutxi zalako izango zala uste det. Nik berandu aldegin nuen andik etxe aldera; baiña Sakabik eta Uztapidek gau guztiko parranda egin omen zuten bertan.

Oiek danak alde batera utzirik, auxe adierazi nai nuke: erriari gogozko zitzaiola soiñujole eder au.

Ta geroxeago Laja aundiak ekarri zigun indar ikaragarria. Zenbat tokitara iritxi ote dira Landakanda panderista ta biak?

Eta, auetaz aparte, Epelde, Zabaleta, Epelarre, Maltzeta ta beste ainbat.

Izan ere, Azkoiti alde ortan trikitilariak eta alpargateroak aukeran ditugu, asko ta onak.

Bizkaian ere trikitixa ixtimatua dute. Edozein erritan aurkitu litezke soiñujole bikaiñak, dantzari ederrak ez-ezik.

Gipuzkoan eta Bizkaian berebiziko apizio sutsua izan omen da trikiti kontu ortan. Adibidez, nik ez ditut danak ezagutu gure garaikoak ere, ta lengoak gutxiago. Gaur, berriz, nork daki zenbat soiñujole dauden?

Larraulko Martin sonatuak Billabonan eduki bear du soiñuak saltzeko denda, ta maixu lanetan jarduten dala ere badakigu, gazte jendeari erakusten alegia. Baiña beste geiagok ere erabiliko dute martxa klase ori seguru asko.

Urrestillan bada *Auntxa* deitzen dioten soiñujole bat, gizon zartua, urte mordoska dituen. Baiña oraindik biziko dalakoan nago. Ez det entzun il danik.

Irratiz sarritan ematen zizkiguten bere trikiti doiñu politak. Iturbide zarrak laguntzen zion panderoa joaz dotore ta egoki. *Auntxa* etzan nolanaiko soiñujole izango, sasoi betea zeukan garaian. Ez Iturbide ere panderoa jotzen.

Baiña edadeak erretiratu araziko zituen, beste guztiak bezelaxe. Orrek ez baidio iñori barkatzen. Alperrik dira kontuak. Bakoitzak al duena eman baldin badu, ez dauka geiagoren zorrik.

Aian ezagutu genduen gure gazte denboran soiñujole eder bat, Beobate-bekoa izena duen baserrian. Ain zuzen, bertan jaio ta azitako semea, ni oker ez banago. Jexux Beobate deitzen zioten danak.

Soiñujole edo trikitalari zoragarria, jende askoren ustez. Inguru auetan fama galanta zuen, eta ori ez da ezer kosta gabe artzen, almenak erakutsita baizik.

Ez dakit, garbiro esateko, ezkondu ta bereala edo geroago aldegin zuen Beobate-beko baserritik Jexux onek. Baiña Zarautzen faubrika batean sartu ta an lanean jarraitu zuela bai, erretiratu bitartean, soiñu jotzeari erabat utzita. Gizon umilla ta atsegiña zan benetan.

1993-an idatzi dedan atal au, ontan bukatzen da.

Ijitoak

IJITO jendeari buruz ezer gutxi idatzi dedanez, gai auxe aukeratu det lerro batzuk osatzeko asmoz.

Guztien albisteak osoki ta zuzen ematen ez da errez, ala nai izanik ere. Oien soka luzea neurri jakiñik gabea baita.

Len bildurgarrizko saillak ibili oi ziran lurralde auetan. Baiña oraingoz urri aldi aundia nabaitzen degu. Ez dakit nundik nora dabiltzan.

Nik umetako kontuak buruan grabaturik dauzkat, onak eta txarrak ere berdin. Gu Leitzako Franki baserrian bizitu giñan bitartean, etxe inguruan beti bagenituen ijitoak. Joera izugarria zuten alde artara.

Beingo batez gogoratzen naiz. Errekaren ertzean an zeuden zar eta gazte, famili osoa edo koadrilla azi samarra beintzat. Eguraldi ederra zegoen. Egoaize epela pil-pil zebillen baztarrak astintzen; eta gu, udazkena zanez, babarrun biltzera joan giñan. Soroa antxe bertan baigendukan, alkarri txanda egingo genion seguru asko.

Ijitoak gauez bilduko zuten babarruna, ta gero aiek utzitakoa guk egunez. Jakingo nuke pozik soro artatik ostuta zenbat eraman ziguten.

Ateondotik, berriz, inork ezin zituen bialdu. Eskea galanki: bateko olioak, besteko azukrea, gatzak, ogia edo taloa, arraultzak eta abar.

Izan ere, gure ama zanak etzituen ezagutzen ijitoen tranpa gaiztoak, eta zeukan guztia eman borondaterik onenez. Zertarako, ordea? Pikaro batzuk aprobetxatzeko.

Dana dala, gai onek zabalago itzegitea mereziko du noski; ta, geroaxeago jarraitu nezaiokenez, orain lengo arira itzuli nadin.

Babarrun biltzen ari ginala, ikusi genduen ijitoen arteko pesta polita. Asarretzen dira andre-gizon itxurako bi une batetik bestera, ta ekin diote burrukan il edo bizian. An etzan txantxarik. Gizonak esku utsez jotzen zuen, errukirik gabe. Aiek belariondokoak ematen zizkion andreari!

— Gaur artuko ditun, bai, ongi merezitakoak, nazkagarri orrek! — esaten zion.

Alperrik, ordea. Andreak, obeditu baiño naiago zuela lepoa bertan autsi zirudien. Arek etzeukan bildurrik, eta gizona bere parteak artua zan egun artan, egurrarekin jotzen baizuen buru gainetik bera edo arrapatutako tokian. Bazekien nola erantzun gizon gogorrari. Ango negar otsak, garraxi eta eskandalo zikiñak etzuten azkenik.

Lenengo aldiz ibili ote ziran ala? Ez det uste. Seme ta alaba sasoi ederrekoak, arri gainetan exerita, aita-amak borrokan ikusiz lasai. Etziran mugitzen apartatzera. Aiek gustora zeudela begira, ez nuke dudarik jarriko.

Guk ere ez genduen lan askorik egin. Gozatu bai dotore, ni neroni beintzat, artean ume bat nintzalako.

Ijito jende ori arrixkutsua da, ta kastaz oso gogorra gainera.

Gure aita zana gerri aldetik, noizbait nekeak erasanda edo ez dakit zergatik, baiña sarritan miñez ibili oi zan. Gauez oean atsedentzen ez, eta egunez nolabait. Ala ta guztiz ere, mendikuarengana joan nai ez. Kapritxo zelebrea edo bildurra agian. Nork daki?

Gogoratzen naiz arratsalde batez. Erropak garbitu ta eguzkitan legortu zitezen atariko alanbrean zintzilik jartzen ari zan gure ama zana; ta an dijoakio ijito zar bibote luze bat, eta onela dio:

— Arratsalde on, etxeakoandre! Ongi al zerate denok? Nun dezu gizona?

— Or dago sukaldean gerriko miñez.

— Ori besterik ez bada, laixter kenduko diot nik. Pasa al niteke sukaldera?

— Bai, bai. Atoz nerekin —erantzun zion amak.

Eta, barrura sartu orduko, asi zaio galdezka:

— Zer gertatzen zaizu nagusi?

— Gerri alde ontan ditut naigabe latzak. Naiago nuke zerk ekarri dizkidan baneki. Gauean, lorik egin ezinda, jeiki ta emen egoten naiz sukaldean. Belauniko jarri lurrean, aulkiaren gaiñera beso biak botata, al dedan bezela. Baiña berealaxe aspertzen, ordea. Iñun ez daukat toki onik.

Ori entzun ondoren, belauniko jarri arazi zuen ijitoak. Miatu ere bai gerri inguruak ongi, ta esan zion:

— Zure gaitza ez da sendatu eziñezkoa. Nik badauzkat botika onak ortarako, ta banijoa billa. Laixter itzuliko naiz.

Alaxe egin ere. Ukenduz igurtzi; maindare edo izara zar batekin bueltak emanetz, estu-estuan loturik utzi zuen; eta, gure amak merienda prestatu zionean, ura janez kontu kontari biak jardun ziran denbora pasa. Ta, aldegiterrakoan, esan zion ijito kuranderoak:

— Uste det atzo baiño lo lasaiago egingo dezula gaur. Baiña egun batzuek bear ditu zure gaitz orrek zearo ezkutatzeko, ta biar bixitatuko zaitut berriro.

Ala, urrengo goizean, txoria bezin kontentu gure aita, aspaldiko partez oean gozatu zala ta.

Arratsaldean joan zitzaion ijito zarra garaiz, eta lenengo galdera:

— Zer modutan zaude, nagusi?

— Miñik ez det sentitzen oraingoz, geldirik exerita nagoela beintzat, eta gauza ixtimagarria da.

— Ezagun dezu. Aurpegira begiratzea aski baida antzemateko. Ea, ba, ikusi dezagun gerri alde ori.

— Bai pozik.

Galtza gerrikoa askatu, barruan zeraman maindarea kendu, bizkar ezurretik berako masajea eman, ukenduz igurtzi berriro, bezperan bezela lotu ta bapo.

Modu ortantxe lagundu zion ijitoak, egunero joanez zintzo asko, gure aita zanari, amabost-aldi osoan; eta erabat sendatu gaiñera. Gizona orduantxe etzan asarre.

Lendik ere alkar ezagutzen zuten; baiña andik aurrerakoan geiago. Ijito zarrarentzat beti zabalik egon oi ziran Franki baserriko ateak. Ara konfiantza nola irabazten dan. Geroztik ainbat bider entzun genion aitari:

— Ijitoak txartzat juzkatzen dizkiagu, alamoduzko azio nabarmenak egin izan dizkigutelako. Baiña guztiak ez dituk berdiñak oietan ere.

Ez noski. Ortan arrazoi zeukan. Nik neronek dextente tratatu det ijito batzuekin. Asto, beor eta zaldiak prankotan perratua naiz oieri; ta, lanak bukatzean, ez nuen kobratu eziñik. Bein ere iñork etzidan aldegin ezer zorretan utzita.

Baiña kaso zelebren ugari gertatzen zaiotela ez dago ukatzerik. Orain esatera nihoan au ere polita da, pasadizoa ikusi zuenak kontatua.

Erreka baztarrean zeudela, gizona astoari illea moztutzen ari zala, gosetu noski, artean baraurik egonik; eta, mutil koskorra inguruan bertan jolasean zebillenez, onela dio:

— Aizak, seme: joan adi ta esaiok amari gosaltzeko garaia badala, ta prestatzeko segituan.

Mutil koskorra an dijoakio korrika; ta urreratu danean:

— Ama, enkargua ekarri det zuretzat.

— Zer dek, ba?

— Aitak dio gosez amorratzen dagoela, ta gosaria jartzeko azkar.

— Ezta pentsatu ere! Berak egin dezala, nai badu! Zer uste dik orrek: neskameren bat naizela, beti obeditzeko?

Ori entzunik, itzuli da mutil koskorra aitarengana berriro, ta esan dio:

— Amak ez omen du zuk agindutakorik ezer egingo, aita.

— Ez, e? Ez dek segurua izango. Ea, joan adi, seme, bada ez bada ere, bigarren aldiz, esatera au azkeneko abixoa dala; ta, itzak balio ez badute, egurrak sartuko diola errespetoa.

Erabaki zorrotza ta justizi gogorra era berean. Giro ederra jarriko zuen arek, propinak ematen asitakoan.

Bizkaian, Ermuatik Durangora bitarteko bide baztar aietan, ijito-sail galantak egiten badakite, lasaitasuna aurkitzen dutelako edo ez dakit zergatik. Baiña sarritan ikusi ditugu, kamioz autoan pasa geranetan, autopista egin aurretik batez ere.

Uso bandak bezelatsu juzkatzen ditut nik oiek. Talde aundi samar bat aurreko puntan jarriko da, erri batetik bestera aldatzerakoan, eta tartean utsune dexentea nabaituko dezu oartzen zeran orrek.

Baiña ez pentsatu bein ere lenengo koadrilla artan danak pasa diranik. Atzean an dituzte lagunak, geienetan beintzat; eta guk baiño obeki artzen dute alkar, ez derizkiot oso zailla danik ere ta.

Mercado Común edo Europa Batua deitzen diogun famatu ori, lenengo ijitoak asmatua izango zan seguru asko, ta geroxeago nazio aurreratu batzuek. Eta gu ere orain barrura sarturik omen gaude, entzuerak dauzkagunez.

Dana dala, diodan jende klase zelebren au ez da eskolaz ongi ornitua ta jantzia, ni bezelaxe; baiña buruz argia.

Ateondora eskera dijoazenean, umil jarri ta txukun itzegingo dizute, ea geiago errukitzen ote zeran. Ortan artista amorratuak eta engaiñagarri utsak dirala badakigu, geientsuenak beintzat. Gezurrezko karrete ugaria erabiltzen du oietako bakoitzak, azkenik gabekoa gaiñera.

Begien bista luzea bezin zorrotza, ta mingaiña ere xuabea, zerbait espero dan tokian. Egirik esaten ez dakite sekulan, deskuidatu ezean.

Emen idatzita utzi nai nuke ixtori polita iduritzen zaidana. Ara nolatsu dan: ijito famili batean amabi senide daude, ta denak semeak, alabarik bat ere ez, eta anaietan gazteena illabete batzuk besterik ez dauzkana, edo urtea osatu gabekoa beintzat.

Baiña, zarrenetik asita, badijoaz indartzen, sasoi betera irixten alegia; ta betiko gosea baiño mixeri aundiagorik ezin leikela izan dio maiorazkoak, eta neurri estuzko erabaki gogorak artzea nai ta nai ezkoa iduritzen zaiola berari.

Ori entzunik, galdetzen diote:

— Zer pentsamentu dauzkak, ba, ik?

— Nik? Biar arratsaldean billera ezkutuan egin dezagun. Bitartean, ixilik egon. Ez dezala zuetako inork itzik atera.

Alaxe, urrengo egunean bildu sei senide, ta zarrenaren iritzia lenengo. Ara nundik asten dan:

— Gure guraso oiek etzeukatek bururik. Ume asko ekarri ezkeru, kontentu; ta len jaio giñanak, or konpon! Errespetorik ez dutelako gertatzen dek ori, ta aita familiz kanpora bialdu bear diagu, onez nai ez badu txarrez.

— Konforme.

Baiña anaietan bigarrena tontotzat edukitzen zuten, itxurak diranez; eta ura beste danen aurka jarri ta esan omen zioten:

— Ortan oker zaudete, mutillak. Aita kanpora bialdu arren, gure amak berriz ere umeak egingo dizkik; eta nik, nere partetik, ama bialduko nitek.

Arrazoia berari eman bear azkenean.

Ijitoak, negu beltzeko otzik aundiena dagoen garaian, erreka ondora bildu oi dira jeneralean. Ori da arrigarria; ta zubi azpitan babestu.

Egurrik inun baldin badago, pillak sutu ta inguru artan etzan da lo sendo epelean, suaren berotasuna aprobetxatuaz alegia.

Goizean lenengo esnatzen dana altxa ta errietan laixter asiko da, beste gaiñontzekoak jeiki ditezen, mingaiñeko trabarik gabe, erretolika osoan.

Ijito itz totalik ez dakit izango dan. Nik neronek ez det ezagutu egundaino inun.

1955-garren urteko otsaillean izan zan alde aue-tan negualdi bildurgarria, ni oker ez banago. Jelate ikaragarri aien bidez, baso edo oianetan piñu

zugaitz asko zearo erreta gelditu omen ziran, geiago freskatzeko almenik gabe noski; ta batere materialik zeukaten guztiak paper faubriketara saldu bear izan zituzten. Piñu landare aldatu berri samarrak edo txiki antzekoak, berriz, mendian bertan usteldu. Beraz, neurtu eziñezko kalteak baserritarrentzat.

Eta, adibidez, ijitoak ere galanki supritu zuten zoritxarreko jelate artan. Nork bialdu ateondotik aiek? Gosea ta mixeria beste konturik etzitzaioten entzuten. Janari klase danen izenak bazekizkiten.

Era berean, jazteko erropak eta mantak ere nai, ta eskatu gaiñera lotsa gutxirekin. Da nolako umiltasunez? Estuasun latzak pasako zituztela dudarik ez dago. Gu bezelaxe aragizkoak izanik, otzak erasanda ijito asko il omen ziran, zarturik zeudenak batez ere.

Baiña diodan au guztia nik ezin nezake ziurtatu. Ez bainituen neronek ikusi, ala gertatu zala esateko. Besteren aotik entzundako albisteak ematen ari naizela garbiro adierazi nai nizuke zuri, irakurle maite zeran orri.

Bestelako jendeak ere erabili zuen galtzak bete lan. 1955-eko otsaillaren zipozkeriz gogoratzen gera oraindik, neguan ekaitz zitalak gaiñera datozkigun bakoitzean. Oroigarri txarrak aztutzea oso zailla ote dan iduritzen zait, arritzekoa ez danez.

Beraz, jarraitu dezagun aurrera. Urte mordo aundia da, berrogei inguru bai gutxi gora-bera. Gipuzkoako aitona zar bati entzun nizkion ixtori politak. Onela zion berak:

— Gure etxearen aurreko aldean txabola edo estalpea daukagu, ta ez oraingoxea gaiñera. Auskalo noiz egiña dan. Nik beti antxe ezagutu det ura, ta serbitzu izugarria du guretzat, lanerako erabiltzen ditugun tresna guztiak eta beste edozer gauza legorpean eduki al izateko.

Suerteaz aspalditxoan pakean gabiltza; baiña ixtillu latzak ikusi genituen bolada nolabaiteko batean, ijito jendearekin burutu eziñik iñundik iñolaz ere. Ura zan suprimetua jartzen zigutena bearrik gabe!

Izan ere, gure andre gaixoak alamoduzko biotza zuen: onegia; ta besteak antzeman da aprobetxatu ederki. Soiñean zeuzkan erropak ez noski, baiña gaiñontzeko guztiak kendu oi zizkiotela uste det, ni kanpoan lanean nenbillenetan; eta etxe aldera noiz nijoan dotore asko zaintzen ninduten. Beti zeletan egoten baiziran.

Gure andrea ere azkenerako minberatu arazi zuten, ordea. Egun batez asarre billatu nuen:

— Ijito auen eskeak ez ote du bukaerarik? Naiko lan erabiliko dutela badakigu, ta zer egingo da? —zion bere kasa.

— Bai, bai. Zuk eman daukazunetik oparo. Oiek artuko dizute. Baiña ordaiñez esker txarra besterik ezer ez dezu jasoko —erantzun nion, zenbat supritzen ari zan jakiñik.

Nik noizean bein errespeto pixka bat jartzen nuen, naiz eta denbora gutxiko. Danetan okerrera, berriz, auxe gendukan: gaueroko fandangoa. Eskandalo ikaragarriak armatzen zituzten alkarren artean, edozer uskerirekin disputan asita, txabola-ren barruan, kutxilloak aterata. Sarritan, garraxia ta zalaparta zeriota, nork ixildu arazi? Guri lo lasai egiten etziguten uzten.

Bizimodu mingarria gendukanez, alako batean joan nintzan, ba, erriko udaletxera, ta esplikatu nioten agintarieri zer gertatzen zitzaigun; eta bertan esan zidaten neurriak laixter artuko zirala ta ez neukala estutu bearrik.

Biaramon goizean, goardiak aurrean artu derri-gorrean, beste jokabiderik etzegoelako dudarik gabe.

Alaxe eraman zituzten gure ijitoak. Orduantxe kontentu gelditu giñan. Uste genduen bildurra sartuko zitzaiotela, ta berriro ez ote ziran itzuliko, bereala beintzat. Toki ederrean genbiltzan ametsetan!

Amabost egun pasa baiño lenago an dijoazkigu, ezer gertatu ez balitz bezelaxe. Nik nere baitan pentsamentu bakarra neukan une artan: “Ez diagu atarramentu onik jende klase onekin”. Eta andreari galdetu nion:

— Nora jo genezake orain beraneante auen aurka? Edo zer iduritzen zaizu?

Ta:

— Pazientziz itxogin dezagun, agian noizbait aldegingo dute ta —erantzun zidan.

Deskuido galanta zeukan gaixo arek. Bolara luze samarra zeramakiten lengo martxa berean; eta, kokotzeraiño bete ninduten garaian, gau batez oetik jeiki ta bastoia eskuan nuela, joan txabolara zearo suturik eta esan nioten:

— Zer zabiltzate zuek pakean gaudenoi loa galarazten, ordu auetan eskamilla bizian? Ez al dezute egunez astirik ortarako? Ta nork eman dizute baimena berriro txabola ontara etortzeko? Emen ni naiz agintzen dedan bakarra, ta aldegin begien bistatik denok mesedez oraintxe, segituan gaiñera, nai dezuten tokira!

Bai zera! Giro zan andik aurrera. Eraso zidaten asma-alak esaten, neurriz kanpora irtenda. Bazidurien danen artean itoko nindutela. Ta orduantxe neroni ere ez nintzan prestua jarri lenez gaiñera, ta bastoia astindu bear izan nuen. Etzegoen beste jokabiderik, etxe ondotik bialtzekotan.

Ara nolako ixtori zelebreek kontatu zizkidan aitona gizarajo arek. Nik neronek arretaz entzun da jaso nizkion bezelaxe idatzi ditut aspaldiko pasadizo zarrak.

Gure gazte denboran, Billabonatik Asteasura bitarteko kamio iskiñak oso gogozko zitzaizkioten ijito askori.

Jakiña, or zer jana aukeran billatzen baizuten, uda partean batez ere. Soro ta baratza aberatsak, sagasti oparo ederrak, potajez eta fruta freskoz leporaiño asetzen ziran beraiek, ezer kosta gabe ta bapo.

Ortik aparte, berriz, asto, beor, zaldi ta abar, abereak ere berdin, egunez lotuta eduki, iñor kejatu etzedin, eta gauez askatu. Libre utzi alegia belardietan, onenetik jan zezaten.

Orixe omen zan ijito argi pikaroen martingala; ta, baserritarrak aspertu arazitakoan, martxa. Nora? Ez oso urrutira.

Aia aldean ere bazituzten gustoko zokoak. Baiña goardiak konturatzen ziranean, koartelera eramanda pasaporteak debalde ematen zizkioten; eta orduan Oriora edo bestela Zarautz aldera jexten ikusten genituen presaka igesi, karro zarrak, abereak, zakurrak eta tresna guztiak artu ta serio asko.

Esaten ari naizen pasadizo auek lengo gerra ondorengoak dira, neronek dakizkidanak. Geroztik aldaketa galantak ezagutu ditugu. Gaur ijitoak ere furgonetak eskuetan dauzkatela badakigu, ta ero-soago dabilta. Baiña oietan ere pobreak ibili bear gaizkiena, beti arrastaka, bizi eziñik.

Oraingo berririk ez dakit; baiña len, garai batean, Naparroako Zubietan ijito asko omen zan. Beste iñora mugitu gabe bertan bizi baldin baziran, etxeak eta lanerako terrenoak edukiko ote zituzten esan liteke. Baiña nik ez det orren segurantzi osorik, gar-biro adierazteko.

Zubieta berez erri txikia dalarik, politez eta txukunez ornitua dirudi. Gu, Uztapide zana ta biok, pestetan bertetan jardunak gera an bein da bitan baiño geiagotan.

Baleztena aizkolari sonatua erriko alkate ezagutu genduen urte batzuetan. Gizon serioa ta berrike-ta gutxikoa.

Dana dala, bi egunetarako eramaten ginduzten bertso-tara; ta gau erdian, ongi afaldu ta gero, plaza-n ijitoen dantza nolakoa zan ez genekigun, baiña antxe ikusi genituen dantzari ederrak.

Asko gustatu zitzaidan ijito dantza ura: aidoso utsa, bizi amorratua alegia. Erri artan sarritan erabiliko zutela derizkiot, urteko jai nagusietan batez ere, jendearen gozamenerako. Beraz, ezin esango degu ijitoak oitura guztiak txarrak dituztenik, bada ez bada ere, Naparroan.

Iruñen bai omen zan etxe sail dexentea ijitoena. Ala entzundako zerbait daukat buruan. Aspaldiko kontua da diodan au; inguru artan gu soldadutza betetzen ibili giñan garaikoa, ain zuzen.

Ijito kalea deitzen ziotena izan bear zuen. Ez dakit, ordea, nun zegoen. Ezta ere beraiek bakarrik edo bestelako jenderik bizitzen zan kale artan.

Baiña emakumezkoak dotore jantzita paseatzen ikusi gabeak ez gera Iruñe aldeko zenbait tokitan. Gizonezkoak gutxiago. Nik ez nezake arrastorik eman nundik norako jokabideak zeuzkaten. Neska gazteak, berriz, naiz eta al zutenik egokiena apaintzen saiatu arren, antzematen zitzaioten jitanak zirala errez eta urrutira. Ez da iñoiz sortu oien molde-a aldatu duen soiñeko jazkerarik eta pinturarik, arraza naturalekoak baldin badira beintzat.

Baiña diruak asko edertzen ditu. Gure lurralde ontan bezela, beste toki guztietan gertatuko da ori.

Nik entzuera dedanez, bakoitzak bere edertasuna maite du, eskubide osoz gaiñera, ta kito.

Iruñen ijito aberatsak ugari omen ziran len. Zerbait bearko zuten kapitalean dotore bizi al izateko. Nik ala pentsatzen det. Negozioren batzuk edo al dakit zer.

Orain dala urte mordoska, Donostin boda inportantea izan omen zan egun batez: ijitoen erregiñaren ezkontza. Lujo ikaragarrizko ospakizuna noski.

Ta gero, ango pesta bukatu zanean, Orioko ondartzara etorri zitzaizkigun egundoko ijito sailla: irureun edo geiago. Baiña ez pobreak: aberats purrukatuen itxura zuten. Erremolke edo karabana aundiak eta kotxe mertzedesak zeuzkaten. Kolonbiakoak zirala zabaldu zan otsa.

Gizonezkoak oso ongi jantzita, sonbrero ta guzti, ikusten genituen, ostatueta dirua parra-parra gas-tatzen. Emakumezkoak, berriz, gure etxe ondoko iturrian erropak garbitzen jarduten ziran, neska gazte dotore apartak gaiñera. Aiek etzuten ijitoen antzik, kolorez zuriak izanik, gizonak zearo beltzak bezela.

Denboraldi bat pasa zuten Orion; eta irureun ijito aietan, bat euskalduna bazala esan zidan lagun batek.

— Nundik dakizu? —galdetu nion.

Onela zion:

— Neuk itzegin det berarekin. Azpeitikoa omen da.

— Ez naiz arritzen —erantzun nion—, illargian ere badira onuzkero eta.

Iru aizpa

EGUN batez, Antonio Eskisabel adiskidea etorri zan gure etxera, eta onela asi zitzaidan izketan:

— Mesede baten eske nator zuregana, Lasarte.

— Zer dezu, ba? —galdetu nion.

Eta:

— Berealaxe esango dizut. Baiña, ortarako, ez al degu obe ostatu batera joatea? An, maian exeri ta kafe bana artuaz, esplikatuko nizkizuke gauzak.

— *Bueno*, etzait batere gaizki iduritzen eta goazen. Denbora pasa nagoen ezkerro, ixtimatuko det eskeintzen didazuna.

Alaxe, joan giñan kafeterira, ta:

— Begira, Lasarte: gure familian iru moja dauzkagu, nere andrearen aizpak ain zuzen ere. Zarrenak Maria Jesus du izena. Bigarrenak, Maria Arantzazu; eta irugarrenak, berriz, Mari Karmen.

Lenengo, iru auetan zarrena bere izebak, oso erlijio zalea zanez, Iruñeko Oblatetako lekaimeen ikastetxera eramán zuen, amairu urte zeuzkan garaian, an bear bezela prestatu zedin moja izateko, edo beste zerbaitetarako agian.

Maria Arantzazu ere araxe eraman zuen adin berdintsuan, eta gauza bera egiña zan Mari Karmen aizparik gazteenarekin.

Ori orrela gertaturik, azkenean irurak bertan moja sartu omen ziran, bokazio uraxe zeukatelako.

Maria Jesusek zaindaritza edo superiora kargua eduki izan bear du bere gain iru komentutan. Bati-kanon, Erroman alegia, Juan ogei ta irugarrenaren idazkaritza lanean jarduteko izentatu zuten noski. Baiña ez dakigu zenbat denbora pasako zuen egin-kizun artan, eta andik Persiako Nuntziaturara bidali zuten, *sha* errege zegoen garaian. Bertan urte batzuk igaro ondoren, Madrilleko komentu batera aldatu omen zan, eta urrengo Sebillako komentura, berriro moja buru edo superiora bezela.

Ez dakit zenbat denbora iraun zuen kargu ortan; baiña aspalditxoan Jerez de la Frontera-n aurkitzen da, diotenez, zaindaritza lanak erabat utzirik, moja soillen maillara itzulita, ezeren kon-promisorik gabe.

Urtero biltzen omen dira anai ta arrebak alkarrengana abuztuko oporraldietan.

Bigarren aizpa Maria Arantzazuk ez du ainbeste-ko zaletasunik bein ere izan ibilirako noski. Toki batean errez etsitzen nunbait. Beraz, ori jakiñik, lurralde eguzkitsuak edo giro epel antzeko babesak aukeratu ditu beretzat, egokiera izan duen bakoitzean.

Len Kanariasetan pasa zuen denboraldi bat, eta orain Murtzian dago. Kargu asko erabili du esku artean. Onek ere edozertarako balio duen emakumea baida. Bere izakera oso irikia ta aberatsa ikusten degu. Alai ta txistosa aparta, inguruan dauzkan guztiak parrez ederki gozatu arazten badaki.

Irugarren aizpa, Mari Karmen, berriz, zearoko artista da. Irakaslea izatez aparte, gaixorik edo dro-

garen bidez ondaturik daudenak zaintzen alegintzen omen da.

Kitarra instrumentua jotzen ere oso trebea noski, Peret sonatuaren antzera; ta, kanturako abots ederra duenez, koruan bakarlari edo solista lanetan dotore luzitzen duela esan oi dute bere berri dakiten guztiak.

Nik, artean gaztetasun zoragarria zeukan garaian ezagutu nuen Mari Karmen. Izugarri neska polita zan, eta gaur oraindik alaxe izaten jarraitzen du, berrogei ta amar urte dauzkan arren. Sinistreak naiko lan ematen du aren moduko emakume bat moja nola sartu liteken.

Ainbeste maite ditudan iru aizpa bitxi auei bertso batzuk zor nizkiotenez, zuregana nator, Lasarte. Egingo al zenituzke sei edo zortzi bertso?

Auetxek ziran Antonio Eskisabelen itzak. Ez dauzka saltzeko bere koiñatak.

Ataungo San Gregoriokoak omen dira moja ospetsu oiek. Nik ez ditut ezagutzen, baiña bertsoak idatzita eman nizkion, 1992-ko uztaillean.

Antonio Eskisabel au Baionan bizi da bere andre Maria Niebes Lasarekin, aspalditxotik gainerra, adibidez.

Ez dakit ondorengo landareak zenbat dituzten. Bertsoen billa etorri zanean, alaba bat ekarri zuen berekin, eta nik uraxe bakarrik ezagutu det, neronek dakidala beintzat.

Dana dala, Antonio Eskisabel onek mendi eta basoetan kableak jartzen dituela esan zidan egur da materialen karreorako; eta kamionak ere badauzkala uste det lan klase ortarako.

Urbasa aldean kable asko jarri zutela len garai batean ulertu nion, oker ez banago; ta Iratiko basoetan ere bai noski.

Antoniok bere aitaren bidez ikasi izan bear zuen opizio ori. Ura omen zan langille artista.

Ataunek, erri txikia dalarik, gizon argi asko eman ote duen pentsatuaz nago.

Ta onenbestean bukatzen da nere berriketa aldia. Bertsoekin batera ea gustatzen zaizkizun, irakurle.

1 Maria Jesus, Maria Arantxa
ta bestea Mari Karmen,
iru aizpatxo erlijiosa
agertzen zaizkigu emen.
Oso gazterik moja joan ziran
eder utsak izan arren,
Zeruko Aita serbitu nairik
besterik iñor baiño len.

2 Maite dezute Eliza eta
Jaungoikoaren babesa,
beste olako irukote bat
billatzen ez da erreza.
Moja zintzoak izatea zan
zuen buruko ametsa,
eta betetzen ari zerate
egin zenduten promesa.

3 Maria Jesus, ortxe ibili
ziñan komentuz komentu,
superiora baten kargua
arturikan zeure kontu.
Izango zendun burua bete
kezka eta pentsamentu,
baiña zuk lana egiten zendun
gustora bezin kontentu.

- 4 Ainbat tokitan Ama bezela
ibili ondorenean,
Erromaraiño iritxi ziñan
federik beroenean.
An Batikanon jardun ere bai
idazkaritza lanean,
Juan ogei ta irugarrena
Aita Santu gendunean.
- 5 Maria Arantxa berez da berriz
txistosa eta alaia,
daneri parre eragiteko
beti aukeran du gaia.
Onek etzuen alperrik galdu
mojatarako garaia,
uste det ongi bete duela
Zeruko Aitaren naia.
- 6 Kargu askotxo mantendu ditu
ezin da egokiago,
ibilirako ez du ordea
zenbaitek ainbeste gogo.
Kanariasen egondu zan len
ta orain Murtzian dago,
lurralde otzak baiño beroak
ditu beretzat naiago.
- 7 Irugarrena Mari Karmen da,
oni nai diot itzegin,
neska gaztetan berau omen zan
eder askoren erregin.
Irakasletzan lan egiten du
ta gaixoak zaintzen berdin,
lagun urkoa maite duenak
beraz badaki zer egin.

8 Mojatxo onek edukiko du
pare gabeko biotza,
otoitz egiñez eskatzen dio
Jaungoikoari laguntza.
Kitarra jotzen eta kantuan
omen da artista utsa,
Peret-en antza duela berak
zabaldua dago otsa.

Florentzio Goñi

ALKARRIZKETA batzuen berri eman nai nuke oraingo idazlan ontan.

Gure aurreko gurasoetan asko ziran pertsona atsegiñak bezin sanoak, nola gizonezkoak ala emakumezkoak ere.

Baiña den-denak ez, ordea. Beti ezagutu ditugu pikaro antzeko batzuk erri bakoitzean, zintzotasunari geiegizko arretarik ez diotenak eta ongi bizitzen alegintzen diranak, nekearen bidez gorputza beartu gabe.

Ezur nagusiko miña omen da ori; alperraren gaitza, ta erremediorik ez daukana gaiñera.

Onek gogoratu arazi dit mutil zelebren baten ixto-ria, gure gazte denboran sarritan entzun genduena. Ez dakit noizkoa dan, baiña baserri bateko kasoa beintzat.

Diodan mutil onen anai zarragoak ezkondu eta etxeko martxa artu zuen garaian, aitak esan izan bear zion:

— *Bueno*, seme: emen badakik ez dagoela denok bizitzerik, eta beste nunbait obeko dek asi lenbailen ogia irabazten eretzako. Guk mantenua ta lotarako

oia debalde emango dizkiagu, soltero zauden edo ezkontzerik pentsatzen ez deken bitartean; eta irabazitako diruari ongi kaso egin, bada ez bada ere, gero emendik doterik ez dek jasoko ta.

Alaxe, aitaren aolku onak edo mesedegarri zira-nak entzunik, bereala tokia billatu ta kaleko taillarrren batean asi omen zan lanean, lendabizitik oso zintzo gaiñera, goizean oetik jeiki, etxean gosaldtu, eguerdirako bazkaria otarrean artu ta lantokira joanez, gizonak bezela,

Baiña gerora aspertu nunbait eta parrandari ekin, da orduantxe zuzentasuna galdu erabat bere kalterako.

Gauetan etxera garaiz joatea aztu. Ostatueta lagunarteko afari gozoak egñez eta orrela zebillela ikusi zuenean, amak onela dio:

— Martxa txarraren jabe aiz, seme, bide ortatik, eta pena aundia ematen didak. Nik erakutsiko diat nola jokatu. Izerdiz kopeta busti ta eskuratzen diran txanponak ez dituk kosta gabeak izaten. Beraz, ik egin bear dek asteko egunetan parrandak utzi ta etxera zintzo etorri; eta, diru mordoska osatzean, ura Bankuan sartu ta jarri kartilla batean.

— Bejondaizula, ama! Nik dirua Bankura eramatea nai al zenduke? Len ere egongo da Bankuan gure etxean ainbeste diru —erantzun omen zion semeak.

Ateraldi polita bezin grazioso albotik entzuteko, amaren gustokoa ez bazan ere.

Guregana gauza berbera iritxi da. Ondorengo denak jatorrak, zuzenak eta zintzoak izatea nai genduke. Erreza ote da ori? Nik ez det ala uste. Gaztetasunak bere molde ta jokabide bereziak dituenek, ontzat artu bear genituzke, neurritz kanpokoak ez badira beintzat.

Gu ere gazte izan giñanez, ongi dakigu zer gertatzen dan garai ortan. Emen santuak oso banaka

ezagutuko ziralakoan nago, ta pekatariak ugari. Sekulan ezertan utsegin gabe bizitzen iñork asmatu duenik ez dirudi, edo nik beintzat iritzi orixe daukat, ez gutxiago eta ez geiago.

Atal onen asieran aipatzen dedan bezela, zarturik gaudenak aspaldiko pasadizoak ditugu gogoan. Len ere alde aundia zegoela pertsona batetik bestera adierazi nai nuke.

Ortarako, ixpillu gisara, aitona zar bat artuko det. Etxarri-Aranaztarra da bera, Florentzio Goñi Lizarraga.

Aurten, 1993-ko otsaillaren 23-an, larogei ta amaika urte beteta dago, osasuntsu oraindik zorionez.

Andrea, berriz, larogei ta zortzi urte zituela il zitzaien. Nik ezagutu nuen. Emakume zintzo ta leial purrukatuaren antza artu nion gaiñera berari, batere dudarik gabe. Famili ugaria azitzen nekaturako amak ezagun izaten du zartzera iritxitakoan, geienetan beintzat, zertan aritu dan.

Bai aitak ere. Lanean gorputzari pasada txarrak eman baldin badizkio, ez ditu ezurretako juntura bigunak edukiko noski. Gauza oien berri, probatuta gaudenak dakigu ongiena.

Diodan bikote maitagarri onek zabaldu zuen azia ta frutu ederrik ere Etxarri-Aranatz aldean. Zortzi seme-alaba izan zituzten: sei mutil eta bi neska. Senidetalde bikaiña bilduko ziran, denak etxean zeuden bitartean. Baiña gerora pixkanaka banatu, ordea, bakoitzak bere martxa artzerakoan, ezkonduaz edo abar.

Marina Altsasun bizi omen da; Antonio Donostin il zan, adibidez; Gregorio, Olaberrin bizi dana; Modesto, Idiazabalen; Joxe Migel. Etxarri-Aranazten, bere jaioterrian; Axun, emen Orion: Joxe Inaxio, Urdiañen.

Onek kantulari goi maillakoa izan bear du. Etxarriko koralean bakarka tenor bezela ibiltzen omen da. Ortik aparte, berriz, ezta egunetan, komunioetan ere asko, eta *Coro Easo*-ren taldean ere bai. Urrezko alaja dotore ta orrelako sari bereziren batzuk irabazi dituela jakin det, bere arreba Axunen bidez. Ez dago batere gaizki. Nik ez det eza gutzen Joxe Inaxio au, neronek dakidala beintzat.

Baiña Juanitorekin konfiantza aundia nuen, eta esango dizut zergatik, irakurle. Juanito auxe zan Goñi aizkolari sonatua. Emen, Gipuzkoan, erririk erri pesta egunetan Erramon Iurrebaso ta biak ibili oi ziran aizkora lanetan; eta gu, berriz, bertsotan. Motibo orren eragiñez, sarritan alkartu giñan batean eta bestean, uda partean batez ere.

Erramon Iurrebaso aizkolari ederra bezin zoragarria izan zan bere garaian. Ori iñork ukatuko duenik ez det uste; ta gauza berbera esango nuke Juanito Goñi aipatzerakoan. Aizkolari gozo aparta juzkatzen zuen gai ortan zekien jendeak. Gorputzez ere aundi antzekoa, mutil osatua ta bikaiña.

Ai zer nolako bikotea genduen diodan au. Plaza betetzeko modukoa. Alkarrekin oso ongi konponzen ziran gaiñera. Anaiak bezela edo agian obeki.

Egun batez gogoratzen naiz. Une ontan azturik daukat erriaren izena. Baiña guk goizetik bertso saioa egin orduko, agertu zitzaizkigun plazara, ta enborrak neurrian josi trabesaiño batzueri entengaz. eta prestatu zituzten txukun arratsalderako.

Gero denok batera bazkaldu genduen, erriko jai eratzaileak tartean zirala, umore ederrean. Alaxe, kafea ta kopa bana artu ondoren. purua sutu zuen Goñik, eta Iurrebasok onela dio:

— Bi ordu baiño len aizkoran asi bear, da orain purua erretzen? Ori dek zabarkeria!

— Ixilik egon adi, orko egurrak laixter ebakiko dizkiagu ta —erantzun zion Goñik.

Ez gezurra! Enbor gaiñetara igo ziran garaian, ango txikizioak etzuen txantxarik. Sasoia ta gatz sendo zeuzkaten biak ere. Begira egon zan jendea gustora utzi zuten, eta orixe da balio duena pesta giroa aberasteko.

Baiña, aizkoran ez-ezik, lagunartean ere gizon atsegiñak ziran Erramon Iurrebaso ta Juanito Goñi. Izlari egokiak eta umoretsu apartak, guk ikusi genituenetan beintzat.

Ezbearra beti zai egoten dala aspaldiko esaera degu, ta alaxe egokitu zitzaion Juanito Goñi gizarajoari. Zumarragan zuen eguneroko ogibidea, eta antxe il zan, lantokian bertan, ixtripuz, sasoirik onentxoena zeukan garaian. Penagarri dira orrelako gertaerak; baiña, datozenean, artu egin bear, ordea, nai ta nai ez.

Beraz, au onenbestean utzi ta Juanitoren aita Florentzio Goñi Lizarragak kontatu zizkidan pasadizo batzuk idazten jarraituko det.

Amairu urte bete zituenerako asi omen zan baso lanean, lenengo arrantxerotzan. Ez dakit zenbat denboran; edo, esan bazuen ere, ez naiz gogoratzen une ontan.

Orduko arrantxerotza etzan zaila izango. Portze-lanezko eltze edo lapiko aundi batean baba beltza egostea aski. Egunez iru aldiz baba jaten omen zuten baso-mutillak: gosaltzen, bazkaltzen eta afaltzerakoan. Beste jakirik batere ez. Ogia bai, baiña ardorik ere ez noski. Ur freskoa.

Andik trago batzuk egin da aurrera, mozkortzeko bildurrik gabe. Iñoiz iñori mesederik egin baldin badio, ardo pixka batek baso lanean ari danari egingo zion, ba, nere ustez. Egun guztian egur tartean borrokan eta indarka dabillen gizonak, izerdi asko ateratzen du, ta orduantxe komeni zaizkio zatotik ardo trago bat edo bi, sekulan izatekotan. Ortan ez det iñolako dudarik.

Florentzio Goñi onek ixtori politak baditu, alde askotako berri dakienez. Naparroan ez-ezik, emen Gipuzkoan ere ainbat zokotara iritxia dala garbiro aitortzen du.

Arantzazun edo Urbia inguruan urtebete pasa omen zuten berak eta beste lagun batzuek ikazkintzan, Etxarri-Aranaztik etorrira. Etxituzten etxe aldera bixitak sarritan egingo bitarte artan.

Udaran igandeak jai artzen baso-mutil aukeratu ere, ta egun batez joan zaiote artzai bat txabola aldera, eta onela dio berak, alkarri egun on opa ondoren:

— Nik belar mordoska daukat, atzo ondu ta meta-txorroketan jarria, etxera eramatea besterik falta etzaiola. Baiña, ortarako bakarrik nagoenez, lagun bat artuko nuke pozik gurdia kargatzeko. Zuetan bai ote dan inor mesede ori egin lezakenik galdetzera etorri naiz, gaur eguraldi ona ikusi dedanean.

Eta ara emen Florentzio Goñiren erantzun jatorra:

— Lasai egon, artzaia. Neronek kargatuko dizut gurdia, zuk belarra gainera botatzen badidazu; ta goazen segituan.

Alaxe, joan dira biak artzaiaren etxera. Lenengo, an ganaduak uztarrian lotu; gurdi luzea artu ta martxa belardira. Kargatu dute gurdia errukirik gabe, ta onduta zeuden belar guztiak biaje batean eramanez gainera bear zan tokiraino.

Orduantxe kontentu artzai zarra noski, zer egin edo nola ordaindu asmatu eziñik; eta, baso-mutilak igandeetan Arantzazura meza entzutera joaten ziranez, beti amaiketakoa ematen omen zion Florentzio Goñiri artzaiak ango ostaturen batean. Arek bazekien mesedeak ixtimatzen eta bakoitzari berea aitortzen. Alamoizko itxura nabaitzen da, Florentzio Goñiren esanak aintzat artu ezkeru beintzat.

Arantzazuko baso lanak bukatu ta gero, berea-laxe Altsasuko zerra faubrika batera pasa omen zan, eta an idiekin itzai ibili zan kontua entzun nion, trenaren estaziora tabloiak eta trabiesak eramaten, bertan bagoiak kargatu ta kanpora bialtzeko.

Diodan trabies aiek trenaren burnibidea gogortzeko enpleatzen zituzten garai artan. Baita geroago ere. Neurri jakiñean ebakita prestatuak izan oi ziran, nola loditasunean ala luzean; eta trabiesa bakoitzak zortzi arroako pixua omen zuen, gutxi gora-bera.

Aritzezko egurra buelo txikian ere astuna baida, berde samar dagoen bitartean batez ere, baiña busti-legorrean iraupen aundikoa; usteltzen oso zaila alegia.

Tabloiak, berriz, materialetarako erabiliko zituen jendeak mueblegintzan, eta beste gauza askotan ere bai noski.

Altsasuko zerra faubrikan urtebete pasa omen zuen Florentzio Goñi onek, len genion bezela, itzantzan. Lenengo, gurdia kargatu; ura estaziora eramatean, an ustu; baiña ez lurrera, merkantziaren bagoira aldatu baizik.

Tabloiak eta trabiesak Florentziok berak baka-rrik erabiltzen zituela ulertu nion, oker ez banago. Sasoia galanta eta indarra sendo bear derrigor. Ala ta guztiz ere, beso zaiñak ederki tiratuko zitzaizkion goizetik gauera bitartean, gorputzaren gaiñontzeko junturak ez-ezik.

Zortzi arroa eun kilo juxtu dira, ta auskalo zenbat tabloi ta trabiesa pasako ziran gizon ospetsu onen beso artean egun bakoitzean. Gazte denboran karrera bikaiña artu zuela dirudi gizarajoak.

Urte aietan etzegoen iñun grua ta orrelako tresnarik eta gaur bezelako aurrerapenik ezertarako.

Nik ikusi nituen iñoiz baso-mutillak bagoiak tabloiz kargatzen, ederki nekatu ta asperturik.

Florentzio Goñik ere garbiro aitortzen du ori oso langintza gogorra dala alegia; baiña bera gustora ibili zala Altsasun, mantu on ta soldata polita ematen zizkiolako zerra faubrikako nagusiak, au ere ez du ukatzen eta.

Gero, Oñatiko pantanora joan omen zan peontzara. An argiñei laguntzen jardun izan bear zuen denbora luze samarrean, esku erremintaz, atxurrez eta palaz masa egiñez noski.

Kanterako arri txikitua edo xetuari porlana oparo nastutzen omen zion Florentziok, masa egite-rakoan, obrako enkargatuak aginduta bezela; eta gero, esku karretillarekin eraman argiñak eskatzen zioten tokira.

Ala, pareta sail aundiak zutitu zituzten kontua entzun nion Oñatiko pantano aldean, Ez dakit zergatik edo zertarako. Orixe galdetzea aztu zitzaidan.

Baiña an ere oso kontentu ibili zala esan zidan gure Florentzio jator onek. Gobernu ona billatu omen zuen. Potajearen gaiñetik, naiko aragia. Ogi eta ardoa ere aukeran, Ez det uste alimentu txarrak diranik mutil sasoikoarentzat.

Baiña garai artan etzan zortzi ordutan lana egingen, argitik illundu bitartean baizik, udarako egunik luzeenetan ere, Florentzioren esanetan.

Beraz, jan ez-ezik, edan ere egin bearko zuen jende nekatuak; eta, egarritzean, zatoari emango zitzaizkion estutu aldi ederrak.

Argintza beti izan da lan gogorra ta torpe utsa. Ori badakigu ta goazen aurrera.

Oñatiko eginkizunak bukatu ondoren, Irati basora joan omen zan Florentzio Goñi. Naparroako gazte askoren Unibertsidadea uraxe zalakoan egoten naiz ni gaur oraindik ere.

Gure ume-denboran beste konturik ez genduen entzuten, udaberrira iritxi ezkerro, Leitzako Franki baserrian bizi giñan bitartean beintzat: erriko mutillak Irati basoan ari zirala lanean. Ez denak noski. Ori esatea gezurra litzake. Baiña banaka batzuk ibiliko ziran, dudarik gabe, udara partean.

Franki baserrian bazan mutil zar bat, bere gura-soak il da umezurtz gelditua, ta gure aitak eta amak jaso ta azi zutena. Ura udaberrian Iratira urtero joaten zitzaigun baso lanera, ta udazkenean itzuli. Negu guztia Franki aldean pasatzen zuen gurekin batera.

Arek esanda dakit Leitzako mutillak nola ikusten zituen Iratin. Baiña auskalo zenbat erritako jendea inguratuko zan ara, Florentzio Goñik zionez ere.

Iratiko basoak oso aberatsak ziran, eta langille askok irabazten zuen bertan eguneroko ogia, edo udaran negurako txanpon batzuk eskuratu, gutxienez ere.

Gizon onek berak lau illabeteetan egin izan bear zituen ango lanak; eta gero Burgetera joan segidan, opizioa aztu baiño len.

Beraz, garbi ikusi genezake nundik zetorkion bizitzeko modua, ta berari jarraitu bear, nai ta nai ez, errezero jota ezer etzeukalako.

Burgeteko basoetan zebilela, soldadutzara joateko garaia ititxi zitzaionez, bertan bera utzi zituen noski ango eginkizunak. Ez dakit, seguru idazteko, zenbat denbora pasako zuen Burgeten Florentzio Goñi onek.

Soldadutzan ere gertatu zitzaion uste gabeko zerbait. Berrogei egunetarako joan eta bost illabeteetan antxe eduki zutela esan zidan, Afrika aldean gerraren bat sortu zalako. Etxera itzultzeko baime-na eman ziotenean, ez omen zan asarre.

Gero, Lakuntzako faubrika batean, Laminazioan, lanean asi. Izerdia sendo ateratzeko, ez det uste toki txarra aukeratu zuenik.

Gaurko laminazioak obeki prestaturik egongo dira noski. Baiña lengo aiek bildurgarri utsak zira-nez, jende asko ibili oi zan osasunetik larri bezin estu. Labeko suaren berotasunak erasaten zioten, eta gorputz guztia egosi edo prejitu arazi; ta gero iñundik iñora freskatu ezin. Ori probatuko zuen Florentzio Goñik seguru asko.

Ezkondu ere garai artan egin omen zan. Eta, bereala, kamio berriak egiten ari ziran tokian lanean asi, ta artan jarraitu gaiñera luzaroan.

Nunbaitetik egunero jateko ogia etxeratu bearrak ematen zizkion komeri latzak esplikatu zizkidan, arrokeri askorik gabe ta txukuntasunez. Bai nik sinistu ere. Nola ez, neroni modu berdintsuan ibilitakoa izanik? Emen bakoitzak bere suprimentuak artzen ditu gogoan, legezkoa dan bezela.

Baiña ez dira tarte ontan penak edo nekezko samintasunak bakarrik agertzen, ordea. Umoretsu ta gozo ibilitako uneak ere ez dauka azturik Florentzio zarrak. Bere gazte denborako pasadizo batzuei begiratzea naikoa degu. jakiñaren gaiñean jarri al izateko.

Beingo batez Etxarri-Aranatzen gertatutako kaso da orain idatziko dedan au. An bertan baso lanean zebiltzala, larunbat gauetan etxeratzen ziran mutil guztiak astelen goizera arte, adibidez; eta koadrillan izan bear zuten gizon zelebren antzeko bat, gorputzez oso txikia noski, baiña apetituz ikaragarria. Jatun bildurgarri oietakoa alegia. Pedro Artola izen-apellidoz.

Florentzio Goñik amazapi urte zituela garai artan esan zidan, gutxi gora-bera; eta igande arratsalde batez, etxean merienda afaria egin zuenean,

ordurako andregaija billaturik zeukanez, arengana joan omen zan denbora pasa.

Gaueko amabiak inguruan, bueltan etxe aldera zijoala, ostatu baten paretik igarotzerakoan, bulla ta zarata aundi samarrak entzunik, “Zer gertatu ote da or? Ikusi bear diat” pentsatzearekin batera, sartu da barrura; ta Pedro Artola an denak desafiitzen noski.

Ostatu guzia jendez beterik egon arren ajola gutxi, ta Florentzio Goñik galdetzen dio:

— Indarrean al ago, Pedro?

— Bai. Iri ere berdin jokatuko diat, nai badek, nork sardiña zar geiago jan gordiñik. Or zeudek barrikan, eta dauden bezela bertatik artu ta jango dizkiagu.

Ori entzun ondoren, onela dio Florentziok:

— Naiko ardoa edateko izatekotan, jokatuko diat, ba, nik ere; ta apustua galtzen duenak ordaindu ditzala emengo gastu guziak.

— Konforme.

Biak exeri maian lasai ta asi dira sardiña zarrak jaten. Baiña nola buru, tripa, ezur, isats eta guzti, eta gaiñeko azal edo eskamarik ere kendu gabe, barrikan gaziturik zeuden modu berean, isatsak ematen omen zuen azkurea, eztarriko zuloan bera pasatzerakoan, ain latza ta legorra izanik. Baiña, ardoarekin lagunduaz, barrura ura ere noski, ta segi aurrera.

Martxa artan ari dirala, jan dituzte dozena bana sardiña zar; eta Pedro Artola, leporaiño beterik aurkitzen danez, etsita gelditzen da.

— Nik aski diat —esaten du.

Eta Florentzio Goñik erantzuten dio:

— Aspertu al aiz? Nik beste bat geiago jan bear-ko diat, ba, iri jokoia irabazteko.

Alaxe egin ere. Beraz, batek amabi ta besteak amairu. Naikoa badala uste det. Gatza galanki tragatuko zuten sardiña zarrekin batera.

Eta, ori gutxitxo ote zan pentsatuta edo ez dakit zergatik, baiña eiztariren batek eramandako birigarroa an zegoen noski, ostatuko sukaldean zintzilik, erdi lumaturik; eta etxeakoandreari galdetu dio Florentziok:

— Or daukazun txori ori emango al zenidake?

— Zertarako dezu? Oraindik ez al zera ase, gizona?

— Ez. Gaur astakerian asi geran ezkeru, artantxe bukatu bear degu.

— Torizu, ba, nai dezuna au baldin bada —esanda, eman dio eskura birigarro fresko ura etxeakoandreak, eta jan du gordiñik, bere buru, tripa ta guzti, zeuzkan luma bakarrak batere kendu gabe, sardiña zarrak bezelaxe, ta kontentu gure Florentzio, lotara joateko sabel aldean ederki berdindurik.

Urrengo goizean, astelenez, basora igo dira. Baiña bezpera gauean egindako geiegikeria edo betekada sentitzen du Florentzio onek; eta artu aizkora bero-beroan da asi da agindu dioten tokian egur txikitzen ikazkintzarako noski.

Baiña lenengotik naiko larri. Ala ere, segi ta izerdiz gorputz guztia busti zaio, erreka batean sartuta bezela; ta orduantxe sendatu.

Pedro Artolak, berriz:

— Nik ezin diat lanean jarraitu, mutillak —esanda martxa serio asko txabola zarrera.

An kamañan etzanda dagoela, joan dira eguerdian Florentzio ta bere lagunak bazkaltzera. Deitu diote Pedro Artolari jeikitzeke, baba egosiak jatera, eta:

— Ni ez nauk gauza ezer jateko —erantzuten du.

Etxarri-Aranazko basoetan zebiltzanez, Florentzioren aita ere koadrilla artan izaki; ta, guztiz kezaturik, asi zaio semeari galdezka:

— Bai al dakik Pedrok zer duen, zuek alkarrekin ibiltzen zerate sarritan da?

— Bai, aita. Badakit zertsu duen. Atzo gauean nork sardiña zar geiago jan desapiatzen ari zan ostatuari zegoen jende guztia, eta neronek jokatu nion. Pedrok amabi jan zituen. Nik, berriz, amairu.

— Ai, arraioa! Ori besterik ez badu, laixter pasako zaiok —erantzun omen zion Florentziori bere aitak.

Astakeri nabarmenaren ondorena jakin nai nuke zenbat supritu zuen Pedro Artola arek.

Florentzio au gizon zoragarritzat juzkaturik daukat nik. Negua Altsasun pasatzen du, bere alaba Marinaren etxean; eta udaran Oriora etortzen da, emen beste alaba bizi baida ezkondata, Axun ain zuzen, emakume leiala ta langille purrukatua, adibidez.

Janariak saltzen ditu, denda txiki bat daukanez. Bere senarra, berriz, Lasarteko Mitxeliñen enpleaturik dago. Onek orain dala illabete esan zidan maiatzean datorrela aita, Florentzio, Oriora, udara guztiko. Ni 1993-ko apirillean ari naiz artikulua idazten.

Gure etxe atarian badago iturri dotore bat, bere jiran zugaitzak eta exerleku ederrak dauzkala, oso poliki jarria. Udara partean jende asko ikusten degu zugaitzen azpian itzalean exerita, lasai denbora pasa, eguraldi bero samarra dagoenetan batez ere, itxas aldetik datorren aize sana artuaz.

Florentzio Goñi ere ortxe gozatzen dala dirudi. Goizean, gosalduta ondoren, laixter inguratu oi da beintzat, eta eguerdira bitartean bertan egon gainerra pozik.

Gero etxera joan, bazkaldu, siesta egin eta arratsaldean berriro lengo tokira itzuli, kontuak kontatzera. Iñor urreratzen bazaio, ez du gaizki artuko.

Nik neronek aitona onen imajiña ikusirik eta bere pasadizo asko entzunik, mundualdi bat ezagutu det.

Ez da iñorekin ezertan sartzen. Ez du arrazoi txarrik iñoiz ematen. Serio ta txukun itzegiten daki. Zer bear du gizonak geiago?

Orain iru urteko kontua da, gutxi gora-bera, aipatuko dedan au. Goiz batez irten nintzan etxetik kanpora, pixka bat ibiltzeko asmoz, giro ona ikusi nuelako; eta ordurako ortxe zegoen aitona, iturriaren aldemeneko jarlekuan exerita.

— Egun on lenengo.

— Bai zuri ere.

Ta, orrela izketan asi giñanean, galdetu nion:

— Lo ongi egin al dezu, Florentzio?

— Ni bai; oso ederki. Baiña gure andrea gau guztian ez da ixildu.

— Kontxo! Nola dakizu ixildu dan edo ez, zero-rrek lo egin badezu? —esan nion.

Eta:

— Arrapatu nazu, ba, lazoan Lasarte arraio orrek —erantzun zidan.

Zenbat kontu gozo erabiltzen genduen alkarren artean esplikatzeko itzak billatzen ez da neretzat erreza.

— Etxarri-Aranatzen baserrian bizi al ziñaten? —galdetu nion, jakin naia neukanez.

Baiña:

— Ez; guk erri barruan edo kalean degu etxetxo bat. Baditu baratza sail dexenteak ere, ta orain semeak jarraitzen du bertan. Aren kontu daude

denak. Len auntzak edukitzen genituen, lau edo bost, esnetarako; eta idiak lanerako.

Auxe esan zuen Florentzio zarrak. Auntzaren esnea oso grasatsua izan oi da. Egosterakoan ura nastuta ere, alimentu aundia duela badakigu.

Ta idiak, berriz, zertan erabiliko zituzten bixtan dago garai aietan: basoetako egurrak, ikatzak eta material balioso guztiak ateratzen erreka zulo ta mendi malkarretatik kanpora, beste jokamolderik etzeukatelako noski.

Gurdi torpe askoak ikusitakoa naiz neroni ere ume-denboran, basoetan idiekin karretoan ibiltzen ziran batzueri.

Dana dala, Florentzio onek sardiña zarrak ez dakit oso maiteko zituenik edo atsegin zitzaizkion. Baiña zakur aragia bai noski.

Etxarri-Aranatzen oitura izango zuten agian, eta burruntzian erreta zakurkume txikiak arkumearen pare edo uraxe bezin goxoak zirala aitortu zuen. Bere aitak esan omen zion Florentziori, artean mutil koskorra zalarik:

— Zakurraren aragiak alimentu izugarria dik, seme. Ni sarritan jandakoa nauk eta bazekiat ori. Ik ere bildurrik gabe jan, aukera deken guztian.

Florentzioren aitak larogei ta amairu urte omen zituen il zanean. Gizon aundi ta zabal onek berak ere ez ditu urruti.

Idatzi dedan atal au bukatzeko, mendi aldera joko det berriro. Zelebrekeria dirudi, baiña ez det uste gezurra danik esatera nijoana.

Mandazaia lau edo bost mandorekin omen zebillen basotik tabloi ta probetxugarri ziran materialak ateratzen kamio ertzera, gero andik kamionetan eramateko bearrezko lekura; eta ara zer gertatzen dan egun batez.

Mandoak kargatu ditu ta badijoa. Baiña, bide estuak eta txarrak egonik, amildu zaio mandoetako bat mendian bera. Joan da mandazaia ta kendu dizkio bizkarreko karga guztiak. Agindu dio jeikitze-ko, baiña mugitzen ez. Eman dizkio egurkada la-tzak. Ala ere, alperrik.

Baiña zugaitzen zotzak legortuak pillan an zeu-denez, artu mordoska, bota gaiñera ta su eman. Orduantxe altxa mandoa azkar asko.

Arkibidea

Ama	7
Aita	15
Plazaolako trena	28
Zuleta	31
<i>Txorro</i>	41
Patxiku Naparra	44
Manterola-erdiko Errena	53
<i>Putajoder</i>	67
Parrandero bat	71
Berdengillo baserria	74
<i>Mallabi Motza</i>	76
Afaria	78
Amona	83
Asto arra	87
Kaleko abereak	91
Joxe Mari, igeltseroa	95
Xegundo, mutilzarra	106
Arrantzaleak	113
Martin Artano	133
Soiñujoleak	139
Ijitoak	160
Iru aizpa	173
Florentzio Goñi	179



1051068
G-128/83



Manuel Lasarte

Manuel Lasarte bertsolariak, leen plazetan eztaerriari bezela, orain lumari eragiten dio bere etxe txokoan. Ala, gaurkoan beste liburu bat eskeintzen digu: *Enbor zarraren ezpalak*.

Euskeraren enbor zarraren ezpalak ditugu, izan ere, Manuelek emen ain egoki erabiltzen dituen gaiak. Beraren ama eta aitagandik asita, mota askotako gizakiak ikusiko ditugu: indartsuak, zelebrea, atorranteak, morroiak, parranderoak, igeltseroak, mutilzarrak, mojak, arrantzaleak, soiñujoleak, ijitoak, baso-mutillak eta abar eta abar.

Pelikula baten antzekoa da, beraz, gure begien aurrean jartzen duan mundua. Baiña mundu ori gu jaio giñan lurra izanik, Euskal Erriaren argazki jator eta eder bat osatzen digu; berak batera eta bestera kantuan ibili zanean ain ondo ezagutu eta biotzez maitatu zuan erriaren argazki dotorea.

ISBN 84-89080 15-1



9 788489 080157

G-